ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko otsailaren 1a > Astelehena > VI. urtea > 263. zenbakia > 1,10 euro

www.goiena.net TOKIKOM

"Hausnarketa eta erronkak gaurkotu egin behar dituzte euskara elkarteek"



**Juan Luis Arexolaleiba**
Euskaltzalea > 08

**G2a** **Ken Zazpik zaleak zoratzen utzi zituen Jamen** > 29

**DEBAGOIENA**
**Tren azkarrarendako tunela zulatzen hasi dira Eskoriatzan** > 04

**OÑATI**
**Urte amaierarako bukatuko dituzte San Lorentzoko igogailuak** > 11

**BERGARA**
**Babes ofizialeko 128 etxebizitza eta tasatutako beste 24, Urteagan** > 16

**LURJAUSIAK** > ESKORIATZAN ETA ARAMAION

# 24 bizilagun aterarazi dituzte etxetik

**ESKORIATZAN** Aranburuzabala kalean lurjausia gertatu zen atzo

**ARAMAION** Arrasate arteko errepidea itxi dute astebetez, mendi zatia jausi delako > 01




Eskoriatzako bizilagunak Pedro Lasagabaster alkatearekin. JOSETXO ARANTZABAL

## AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 02-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Eskelak** > 39
**Azkena** > 40

**KIROLA** > SOKATIRA

## Abadiño eta Gasteiz garaile, sokatiran

Euskal Herriko Goma Raineko Sokatira Txapelketaren final ikusgarri eta maila altukoa jokatu zuten Aramaion zapatuan; Bizkaira eta Arabara joan ziren txapelak. > 21


Iritsi dira urtarrileko opariak! Badago zuretako?

Zoaz 7. orrialdera




**HERRIKO PLAZAN** 500-600 bat lagun elkartu ziren atzoko manifestazioan, Arrasaten. JOSETXO ARANTZABAL

# Euskal presoen "muturreko egoera" salatu dute

Euskal presoen eskubideak eta "estatus politikoa" aldarrikatu zituzten atzo Arrasaten, eta nabarmendu zuten preso horiek "gatazka politikoaren ondorio" direla. Presoen egoera okertzen doala ere salatu zuten, eta horri aurre egiteko gizarteko eragile eta taldeen "konpromisoa" beharrezkoa dela azpimarratu zuten. > 04





**Haur eta**
**Lehen Hezkuntza**
**DBH - Bigarren Hezkuntza**

**MATRIKULAZIOA**
**Otsailaren 1etik 12ra**

**goieskola**
debagoieneko euskal
eskola publikoa

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

### Eskoriatza/Gatzaga
**Luis Ezeiza Eskola**
Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 8, 18:00
Tel.: 943 71 49 38

### Aretxabaleta
**Kurtzebarri Eskola**
Bilera: Urtarrilak 27
Euskaraz: 18:00
Gazteleraz: 19:00
Tel.: 943 79 00 49

### Arrasate
**Arrasate Herri Eskola**
Bilera:
Bedoñaben Otsailak 1, 18:00
Musakolan Otsailak 3, 18:00
Tel.: 943 79 20 69

### Aramaio
**San Martin Eskola**
Bilera: Otsailak 1, 17:30
Ate irekiak: 19:30ak arte
Tel.: 945 44 50 04

### Bergara
**San Martin Agirre Eskola**
Bilera: Otsailak 2, 18:30
Ate irekiak:
Otsailak 6, 16:30-19:30
Tel.: 943 76 21 47

### Antzuola
**Antzuolako Herri Eskola**
Informazioa:
Otsailak 1etik aurrera
Tel.: 943 76 62 68

### Elgeta
**Elgetako Herri Eskola**
Informazioa:
Otsailak 1etik aurrera
Tel.: 943 76 82 26

### Oñati
**Errekalde Herri Eskola**
Ate irekiak:
Urtarrilak 30, 17:00-19:30
Tel.: 943 78 07 64

## BIGARREN HEZKUNTZA

### Arrasate
**Arrasate Institutua**
Bilera:
Musakolako eraikuntzan
Otsailak 2, 18:00
Aramaio San Martin Eskolan
Otsailak 3, 18:00
Tel.: 943 79 44 47
Tel.: 943 79 20 38

### Aretxabaleta
**Kurtzebarri BHI**
Bilera: Otsailak 2, 18:00
Tel.: 943 79 57 40

### Bergara
**Ipintza Institutua**
Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 3, 18:30
Tel.: 943 76 31 42

### Oñati
**Zuazola Larraña Oñatiko BHI**
Bilera eta ate irekiak:
Otsailak 9, 18:00
Tel.: 943 78 12 68

**guztiona,**
**guztion artean**

goieskola@euskalnet.net
www.goieskola.net
605 773 992

baikara
Gipuzkoako ikasleen
Gurasoen Federazioa

# euskal eskola publikoa

**LURJAUSIAK** > ESKORIATZAN ETA ARAMAION

# Gaur jakingo dute bizilagunek etxera bueltatu ahal izango diren edo ez

Aranburuzabala kaleko (Eskoriatza) 24 bizilagunek etxetik kanpo eman dute gaua, atzo mendia etxe barrura etorri ostean

Arrasate eta Aramaio arteko errepidea itxita dago, zapatuko lurjausiaren ostean

**A.B./U.M.** > ESKORIATZA

"Susto handia izanda, oso susto handia. Gelatik ez banintza atera, barruan harrapatuko ninduke. Zuhaitzak... ditut logela barruan". Halakoak dira atzo goizean Eskoriatzan entzun zirenak, Aranburuzabala kalean lurjausia gertatu ostean (08:00etan).

Mendigoia hotelean eta Azkoagan pasa behar izan dute gaua Aranburuzabalako 4 ataritako 15 bizilagunek. Gainerakoak (24 dira guztira) senide edo lagunen etxeetara joan dira, gaur arte, behintzat. "Ezin dugu esan noiz arte egon beharko duten etxetik kanpo. Jaurlaritzako eta Diputazioko teknikari gehiago etorriko dira, eta denon artean planifikatu beharko dugu guztia", adierazi du Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkateak.

**ARRAZOIAK ETA KEXUAK**

Lurjausiaren arrazoiei dagokienez, berriz, uste dute arrazoiak direla azken orduotako eurijasak, eta lehenago beste lurjausi bat ere gertatu izana.

Azken horren harira, bizilagunetako batzuek salatu dute lehenago kexuak aurkeztuta dituztela malda horren egoerarengatik. Lasagabaster alkateak onartu egin du hori: "Kexuak aspaldikoak dira, eta egia da orain arte ez dugula gauza handiegirik egin, guk ere ez, jakina. Parte asko dago hor inplikatuta. Hau pasatu eta gero, samurragoa izango da irtenbidea topatzea".

Eta hain zuzen ere, lan horretan pasatuko dituzte datozen egunak, duda barik.

DATUA

**100**

**LITRO**

Egubakoitz eta zapatuko euriek metro karratuko ia 100 litro utzi dituzte ibarrean. Luismari Agirre bergarararraren datuen arabera, barikutik zapatura 46,2 litro batu ziren eta zapatutik domekara, 51,4.



Aranburuzabala kaleko hainbat bizilagun, suhiltzaileak eta beste, atzo goizeko lurjausiaren ostean, etxe aurrean. JOSETXO ARANTZABAL



Arrasate eta Aramaio arteko bidea itxita, lurjausiaren ondorioz. JOSETXO ARANTZABAL



Aramaiotik Arrasaterako bidea, lurjausia gertatu eta berehala. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE-ARAMAIO BIDEA, ITXITA**

Eskoriatzakoa ez da izan, baina, asteburuko lurjausi bakarra. Aramaion beste bat izan zen, zapatu iluntzean, Cuatrovientos baserrirako bidean. Lurjausiak Arrasate eta Aramaio arteko bidea itxi du eta Cuatrovientos baserriko bizilagunak inkomunikatuta utzi ditu: "Kalera jaitsi nahi badugu oinez joan behar dugu. Errepidea behera etorri da eta ezin gara autoz ibili. Bide berri bat eraikiko digutela esan digute, baina euria diharduen bitartean ezingo dituzte lanak hasi", diote hango bizilagunek.

Udalaren "lehentasuna" ere bizilagunoi "irtenbidea aurkitzea da", Asier Agirre alkatearen esanetan. Eta jakinarazi du "Abiadura Handiko Trenaren lanetako arduradunek lehenbailehen behin-behineko errepide bat egiteko konpromisoa" hartu dutela.

Bestalde Arrasate-Aramaio errepidea itxita egonda, zirkulazioa Untzillatik eta Zabolatik bideratuko dute, gutxienez astebetez.

## Eskoriatzako Udalaren jakinarazpenak

Eskoriatzako Udalak jakinarazi du gaurtik aurera Udaleko Gizarte Zerbitzuak gertu egongo direla "kaltetutako bizilagunen beharrei erantzuteko", honako telefonoan: 943 71 31 36.

Horrez gainera, Gipuzkoako Diputazioaren Gizarte Larrialdien zerbitzua ere eskoriatzarren eskura dago: 943 22 44 11 (24 orduan).

Bestalde, Eskoriatzako alkateak eskerrak eman gura dizkie atzo goizean Eskoriatzan jardun duten langile guztiei: "Ertzaintza, Diputazioko langileak, babes zibilekoak, larrialdi zerbitzuetakoak... Oso ondo portatu dira, eta eurei esker, gauzak agudo bideratu ditugu, bizilagunei lo egiteko lekua aurkitu eta halakoak".



Pedro Lasagabaster teknikariekin, lusjausiaren lekuan, atzo. ARRITXU BARRUSO

**POLITIKA** > PRESOEKIKO ELKARTASUN EKITALDIAK DEBAGOIENEAN

# Euskal presoen eskubideak aldarrikatu dituzte Arrasaten

600 bat lagunek babestu zituzten presoen eskubideen aldeko eskaerak

'Presoen izaera politikoa' aldarrikatu zuten haiei elkartasuna adierazteaz bat




Arrasateko osoko bilkuren aretoan asteburuan baraualdia egin duten herritarrak, euren aldarrikapenekin. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > ARRASATE
"Muturreko egoerak areagotu" egin dira euskal presoen artean; halaxe salatu zuten atzo Arrasaten egin zuten manifestazioan. 600 bat lagun elkartu ziren *Dagozkien eskubideen alde, euskal presoak Euskal Herrira* aldarrikatzen zuen pankartaren atzean.

Aurretik joan ziren asteburuan Arrasateko Udaletxeko areto nagusian baraualdian izan diren kideak, eta haien ondoren Debagoieneko presoen senideak.

Manifestazio horrekin eta ibarreko herri guztietan asteburuan egin dituzten bestelako ekitaldiekin elkartasuna adierazi gura izan diete euskal presoei. Haiendako "estatus politikoa" aldarrikatu zuten, eta adierazi zuten "gatazka politikoaren ondorio" direlako "irtenbide politikoaren ildotik etorriko dela presoen egoeraren konponbidea".

**ALDARRIKAPENAK HERRIZ HERRI**
Manifestazioaz gainera, Debagoieneko 30 bat lagunek baraualdia egin dute Arrasateko osoko bilkuren aretoan asteburuan. Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideek urtarrilaren 25etik 29ra egin duten baraualdia dela-eta, haiei elkartasuna adierazi gura izan diete modu horretan.

Gaixo larrien eta kondena beteta duten presoen "berehalako etxeratzea" eta "euskal presoek Euskal Herrian" behar dutela izan dira eskaera nagusiak. Eta herriz herri aldarrikatu dituzte.

Presoen kolektiboak idatzitako *Burdinen arteko herria* liburua ere aurkeztu zuten zapatuan, eta emakumeek kartzeletan jasaten duten egoeraren gaineko hitzaldia egin zuen Amaia Arrieta preso ohiak.

**Julen Agirre** > Jon Agirre presoaren iloba

## "Espetxe politika presoa suntsitzeko sortua da"

**GOIENKARIA** > ARRASATE
**Aramaioko Jon Agirre presoaren lobarekin izan gara espetxe politikaz.**

**Zenbateraino larritu da presoen egoera hilotan?**
Beti bezain larria da, baina adinez gorakoak larriago daude espetxe politikaren ondorioz. Bestetik senideek uko egiten diete miaketa eta ukipenei, eta bisita asko galdu dituzte.

**Uste zenuten egoera okertuko zela?**
Gobernuen bulegoetan ongi diseinatutako politika da, gainontzeko presoekiko desberdina, nolabait izaera politikoa onartzen duena.

**Geroz eta gehiago daude preso gaixoen zerrendan.**
Bai, eta baita kondena beteta dutenen artean ere. Presoa suntsitzeko sortutako espetxe politika da. Gainera hainbat preso adinean aurrera doaz, urte luzeetako espetxe zigorrekin. Osabak adibidez, 66 urte ditu eta 29 urte egingo ditu kartzelan. Harekin batera larri daude Jose Luis Elkoro eta Josu Uribetxeberria.



MIREN ARREGI

**AZPIEGITURAK** > AHT-REN OBRAK

# Tunel berria zulatzen hasi dira Eskoriatzan, tren azkarrerako

Uruburu II da tunel horren izena eta 460 metro luze izango da, 85 metro karraturekin

**UBANE MADERA** > ESKORIATZA
Eskoriatza eta Aramaio arteko tunel berria zulatzen hasi dira, Uruburu 2 izenekoa. Hala jakinarazi du Adif-ek, Abiadura Handiko Trena eraikitzen dabilen enpresak.

Bi erreiduna eta 460 metro luze izango da tunel berri hori; hura eraikitzeko, berriz, leherketak erabiliko dituzte.

Tunela eraikitzearekin batera, hura iragazgaizteko, urak bideratzeko eta bestelako lanak ere egingo dituzte.

**3,5 KILOMETRO, TUNELETAN**
Eskoriatza eta Aramaio arteko Abiadura Handiko Trenaren ibilbideari dagokio orain zulatzen hasi diren tunela. Horrekin batera, baina, beste hiru ere eraikiko dituzte. Izan ere, Eskoriatza-Aramaio tramua 5,5 kilometro luze izango da, eta horietako 3,5 kilometro lurpetik, tunel eran eraikiko dituzte: Uruburu 1, Uruburu 2, Mazmela eta Induspe. Horrez gain, bi zubi ere izango ditu zati horrek: Uriarte eta Zarimutz, Gi-3343 errepidea zeharkatzeko eraikiko dituztenak.

**31.000 ZUHAITZ**
Adif-ek emandako xehetasunen arabera, ingurumena zaintzeko neurriak hartuko dituzte Eskoriatzan trenaren obrak bukatu ostean: 285.672 metro karratutan landareak sartuko dituzte, eta bertako 31.000 zuhaitz landatzea ere badute aurreikusita.

**ALKATEAREN EPAIKETA**
Bada, obra horren harira, Abiadura Handiko Trenaren Kontrako Elkarlanak gogora ekarri du tunel horren obrak egingo dituztela justu Aramaioko alkatearen kontrako epaiketarekin batera. Hain zuzen, 2007an tren horren gaineko herri-galdeketa egiteagatik epaituko dute Aramaioko alkatea otsailaren 10ean.

Bestalde, tren azkarraren kontrako taldeak jakinarazi du datorren otsailaren 6an, zapatuan, egingo dutela tren horren kontrako hurrengo protesta ekitaldia: Tolosan, 17:00etan, Triangulo plazatik abiatuta.

> LAPURRETAK

### Arrasaten eta Antzuolan lapurretan egin dituzte

Arrasateko Uarkape frontoiaren ondoko garajeetatik bi auto eraman zituzten joan den astearen amaieran. Atedun partzelak dira, eta besteren bat ere indarrez zabaltzen saiatu direla adierazi dute Herrizaingo Sailetik.

Arrasaten segituz, Kataide industria-gunean ere lapurretan egin zituzten. Jatetxe batean sartu dira, eta dirua eraman dute, ertzainek adierazi digutenez.

Bestalde, Antzuolan ere saiatu ziren lapurretan egiten joan den astearen amaieran. Hain justu ere, Sagasti auzoko garaje batean bost partzelatan lapurreta saiakera egin izana antzeman dute.

Herrizaingo Sailetik aditzera eman dute ikerketa lanetan dihardutela. Eta horrekin batera, kaltetuen salaketak lagungarri egingo zaizkiela ere ohartarazi dute.

> ARAMAIO

### Aramaioko alkatearen aldeko ekimenak iragarri dituzte

Otsailaren 10ean Asier Agirre Aramaioko alkatea epaitu behar dutela-eta, hainbat herritarrek "alkateari beharrezkoa duen babesa" adierazteko ekimenak iragarri dituzte eta "herriko eragile, kultur talde, norbanako eta alderdiei" ekimen horietan parte hartzeko dei egin diete.

Arabako Audientzia Probintzialean epaitu behar dute Asier Agirre, 2007an Abiadura Handiko Trenaren gainean egindako herri galdeketarengatik. Fiskalak bederatzi urtez kargutik kentzea eskatuko du.

> ESKORIATZA

### Aurrekontuak lantzeko, herritarren partehartzea bultzatu

Partehartzean oinarritutako aurrekontuak gura dituzte Eskoriatzan, eta horretarako mekanismoak bideratzea erabaki du herriko Udalak. Hala onartu zuen joan den asteko osoko bilkuran.

Herriko elkarte, bizilagunen eta bestelakoen proposamenak batu gura dituzte mekanismo horien bitartez.

Ezker Batua Berdeak alderditik aditzera emandakoaren arabera, landuko duten hori "bide berritzailea" izateaz gainera, herritarrei utziko die "herriko gastuen kontrola egiten, aurrekontua exekutatzen doan neurrian". Eta "ustelkeria kasu posibleei aurre egiteko" bide egokia dela ere uste dute.

Rafael Kortabarria > Ekonomia aditua

# "Gizarte Segurantza bideragarria izateko erretiro adina zabaltzea ez da neurri ona"

EDU MENDIBIL > BERGARA

**Erretiroaren adin ofiziala atzeratzeko proposamena eraman du Espainiako Gobernuak Ministro Kontseilura. Zapateroren gobernuaren proposamenak hautsak harrotu ditu. Igoera mailakatua izango zela esan zuen Elena Salgado Ekonomia Ministroak; hasiera baten, 67 urtera arte luzatuko da erretiro adina. Rafael Kortabarriak Goiatz Aranarekin jardun zuen *Goiena Magazinea*-n.**

**Zer iruditzen zaizu erretiro adina 67 urtera arte atzeratzeko proposamena?**

Urte asko dira. Gaur egun 60 urterekin erretiratzen dira asko eta zazpi urtez luzatzea gehitxo iruditzen zait... Gainera, badirudi asmoa dela poliki-poliki adin tarte hori 70 urtera arte atzeratzea. Lanaren arabera izaten da, baina orokorrean jendea nahiko erreta egoten da ordurako (are gehiago garraiolari, arrantzale eta esfortzu fisiko handia eskatzen duten beste zenbait ogibideren kasuan) eta zait logikoa iruditzen. Gizarte Segurantza bideragarria izatea nahi dute aipatutako neurriarekin, baina ez dut uste irtenbide ona denik.

**Pentsioen jaitsiera ekarriko du neurriak...**

**"Horrenbeste urtetan kotizatu ondoren, pentsioek ez dute bizitza duin bat bermatzen"**

**"Gero eta langabe eta zahar gehiago ditugu eta aurreikuspenak ez dira onak "**

Gaur bertan (egubakoitzean) irratian entzun dudanez, Espainia mailan, batezbeste, Euskal Herrian jasotzen ditugu pentsiorik altuenak (944 euro inguru) eta Extremaduran, aldiz, baxuenak (600 euro pasatxo). Horrenbeste urtetan kotizatu ondoren, pentsioek ez dute bizitza duina bermatzen, kontuan izanda bizi-itxaropena goraka doala, 80 urteren bueltan dagoela gaur.

**Langabeziak nabarmen egin du gora krisia dela eta.**

Gero eta langabe eta zahar gehiago ditugu eta aurreikuspenak ez dira onak ekonomiari begiratuta. Autonomoek aurrean duten panorama oraindik okerragoa da eta kooperatibetan egin izan duten antzera, etorkizunerako, Gizarte Segurantzaz gain, aseguru pribatu eta pentsio planetara joko du jendeak.



Rafael Kortabarria oñatiarra egubakoitzean, GOITBko platoan. GOIENKARIA

etxeko leihotik



Usoa Agirre > uagirre@goiena.com

## Ai, ai, ai, ai, ai, hik jai eta nik lan!

Espainiako gobernuak erretiroa hartzeko adina luzatu nahi du 65 urtetik 67 urtera. Orain eztabaidatu egingo dute proiektu hori, baina asmoa da 2013tik aurrera indarrean egotea pentsioen lege berria.

Egia esan, ez ditut ekonomia kontuak oso ondo ulertzen. Hobeto esanda: *no entiendo ni papa* (Arnaldo Otegiren aurkako epaiketako epaile txit gorenak esan zuen moduan). Oraindik urte gutxi daramatzat lanean eta erretiroa hartzeko batere asmorik ez dut, baina horrelako albisteek zer pentsatua ematen didate: erretiroa hartu ahal izango dut sekula? Nik oraingo erretiratuei ordaintzen badiet beraien erretiroa, nork ordainduko du nirea? Neurri honekin zerbait konponduko da edo beste arazo batzuk ezkutatzeko zunda-globo bat besterik ez da? Gaur egun, zergatik egiten zaigu hain gogorra lanera joatea? Dugun sistema ekonomikoa edukita, ez da ekonomialaria izan behar ikusteko langile gutxi eta erretiratu asko badaude, ezin dela denendako dirurik egon. Orduan, zergatik ez sistema aldatu, petatxuak jartzen aritu beharrean?

**"Oraingo erretiratuei ordaintzen badiet, niri nork ordainduko dit?"**

Hasieran esan dudan moduan, ez ditut ekonomia kontuak gehiegi ulertzen. Baina, usain txarra hartzen diot kontu honi. Mesfidatia izango naiz agian, baina norbaiten edo norbaitzuen mesederako trikimailua besterik ez zait iruditzen kontu hau guztia: bankuak? Enpresariak?

**> Zaborrak**

**Zaborrak gora eta zaborrak behera aritu dira Mankomunitateko azken batzarrean. Kontsumitzaileok zabor gutxi sortu behar dugu, baina horretan produktuen egile eta saltzaileek ere parte hartu beharko dute, ezta?**

**> Epaileak**

**Argi dago epaituak eta epaituak daudela. Legez guztiek errugabetasun printzipioa izan arren, praktikan, epaiketa egin aurretik epaituak daude batzuk. Ez da ulertzen, bestela, Murillo epaileak Otegirekin izan duen jarrera.**

ARRASATE > GIZARTEA

# Adin txikiko atzerritarrei zuzendutako Izeba proiektua, otsailaren amaieran abian

Gipuzkoa osoan 55-60 familiak egin dute bat Izeba proiektuarekin, eta Debagoieneko hamar bat familia ere daude tartean

E.M. > ARRASATE

Izeba proiektuaren helburua hau da: adin txikiko atzerritarren osaba-izeba izan nahi duten pertsona eta boluntarioekin sarea osatzea; adin txikikoek familia erreferentziak izatea, azken batean.

Gipuzkoan 55-60 familiak egin dute bat Izeba proiektuarekin, eta Debagoienean 8-10 familia izan dira izena eman dutenak, Pello Sarasua proiektuko koordinatzaileak emandako datuen arabera. Gipuzkoako bost gunetan eramango dute aurrera Izeba proiektua: Donostian, Urretxun, Azpeitian, Legorretan eta Arrasaten.

Baketik zentroaren ekimenez sortutako egitasmoa da eta Diputazioak bat egin du proiektuarekin. Hain zuzen ere, joan den urrian sinatu zuten kolaborazio hitzarmena Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta Baketikek.

**ARRASATEN, OTSAILEAN**

Adin txikikoen Arrasateko etxebizitzan zortzi lagun dira gaur egun, eta 8-10 familia azaldu dira gertu haiek hartzeko. Aipatutako familien zeregina hauxe litzateke: gurasoengandik urruti bizi diren adin txikiko horien osabaizebak izatea, nolabait: bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea; aldiro telefonoz deitzea; eta arazo pertsonalak edo ikasketekin zerikusia dutenak konpontzen laguntzea.

Datozen egunotan familiarekin elkarrizketak izango dituzte proiektuko arduradunek eta gaztetxoekin ere gauza bera egingo dute jarraian. Gaztetxoek eurek erabakiko dute proiektuan parte hartu nahi duten ala ez.

Otsailaren bukaeran jarriko dute abian Izeba proiektua Arrasaten. Pello Sarasuaren arabera, jendearen aldetik jasotako erantzuna nabarmentzekoa izan da. Dena den, aurrera begira, jende gehiago beharko dutela azpimarratu du. Interesatuek Baketik zentrora, 943 25 10 05 telefonora dei dezakete.

DATUA

**8-10**

FAMILIA

Arrasateko etxebizitzan diren zortzi adin txikikoei harrera zerbitzua eskaintzeko 8-10 familia azaldu dira gertu. Otsailaren bukaeran hasiko dira elkarlanean.

ESANAK

**"Jendearen aldetik oso erantzun ona jaso dugu, sentsibilizazio handia erakutsi du jendeak"**

Pello Sarasua > Izeba proiektuko koordinatzailea

**LAGUNTZA** > SAHARA

# Jasotako materiala eroango duen kamioia zapatuan beteko dute Arrasaten

Gasteizera joango da Debagoienean betetako kamioia eta otsailaren 20an irtengo da Sahararantz

Eskatutako elikagaiekin batera garraiorako dirulaguntza jaso dute

**MIRARI ALTUBE** > ARRASATE

Bukatu da Saharara bidaltzeko materialaren bilketa kanpaina eta egunotan ibili dira jasotakoa behar bezala lotu eta kaxetan gordetzen. Arrasateko Nubi eta Aretxabaletako Iesbaa elkarteek urtarrilaren 23an gorde zuten material guztia Arrasateko biltegi baten. Bergarako Bubisher elkartekoak, ostera, egunotan dabiltza kaxetan sartzen eta asteon eroango dituzte Arrasateko biltegira. Legazpiko Arehaizea elkarteak ere bertan gordeko du jasotako materiala.

**IAZ BAINO GEHIAGO**

Nubi elkarteko Agurne Juldainen esanetan, iaz baino 1.000 kilo gehiago jaso dituzte aurten. Hona Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatin jasotakoak: lekaleak, 1.512 kilo; pasta, 1.890 kilo; arroza, 1.890 kilo; atuna, 546 kilo; azukrea, 756 kilo; eta konpresak, 208 kilo. Eskoriatzako Udalak, gainera, 2.000 euro eman ditu azukrea erosteko.

Materialarekin batera garraiorako dirulaguntza jaso dute: Oñatiko Udalak, 12.000 euro eta Oñatiko Txantxiku ikastolak, 220 euro.

**OTSAILAREN 20AN IRTEERA**

Datorren zapatuan, otsailak 6, kamioia beteko dute biltegian duten materialarekin eta gero Gasteizera joango da kamioi hori. Gasteizen elkartuko dira Saharara doazen kamioiak eta otsailaren 20an irtengo dira.

ESANAK

**"Iaz baino material gehiago jaso dugu, 1.000 bat kilo gehiago, eta, iaz legez, kamioi bat beteko dugu horrekin"**

**Agurne Juldain** > Nubi elkartea

DATUA

**6.802**

**KILO MATERIAL**

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatin 6.802 kilo material jaso dute. Hortik gehiena jatekoa da, 6.594 kilo hain zuzen, eta gainerakoa, konpresak.



Nubi elkarteko kideak Arrasateko biltegian jasotako produktuak kutxetan sartzen joan zen zapatuan, urtarrilak 23. JOSETXO ARANTZABAL

> LURRALDEBUS

### Lau autobus berri erosteko dirulaguntza jaso du Pesak

Astean iragarri du Aldundiak 1.800.000 euro bideratuko dituela Lurraldebus eta D-Bus konpainietako autobusak berritzeko. Guztira, 14 autobus berri erosiko dituzte eta horietatik lau Debagoinean zerbitzua ematen duen Pesa konpainiarendako izango dira.

Gipuzkoan 347 autobus daude hainbat eratako zerbitzua ematen. Azken zazpi urteotan 78 autobus berri ekarri dituzte eta Aldundiak 7.694.911 euro bideratu ditu horretara. Ezintasunak dituztenendako egokitutako autobusak izango dira berriak, gurpildun aulkiendako arrapala dutenak batzuk eta igogailua dutenak besteak.

> BERRIKUNTZA

### Abaroako adinekoek Ikerlan-Ik4rendako probak egin dituzte

Arrasateko Abaroa erretiratuen egoitzako hainbat adinekok Fagor, Inabesa eta Ikerlan-IK4 garatzen dabiltzan proiektu bat probatzen jardun dute. Matia Ikerkuntza Istitutuko Ingema fundazioarekin elkarlanean, etxeko kalitatea hobetzeko probak egin dituzte adinekoek Ikerlan-Ik4 zentroan.

Proiektuaren helburua da adinekoei –norberaren etxean– autonomia handiagoa emango dien teleasistentzia sistema garatzea. Horretarako, eguneroko jardunetan lagundu eta babes handiagoa emango dieten teknologiak landu dituzte. Abaroako adinekoak etxe itxurako laborategi baten egin dituzte probak eta, besteak beste, arropen ezaugarrien arabera lan egiten duen garbigailua probatu dute.

**EKONOMIA** > EUSKADIKO KUTXA

## 56,5 milioi euroko irabaziak izan ditu Euskadiko Kutxak

2008an izandako irabaziekin alderatuta %43,8 murriztu dira iazkoak

**M.A.** > ARRASATE

Iazko datuen berri eman du egunotan Euskadiko Kutxak, eta jakinarazi 56,5 milioi euroko irabaziak izan zituela zergak ordaindu eta gero. Irabaziok, 2008koekin alderatuta, %43,8 murriztu dira. Negozioaren kopuru osoa, ostera, 35.412 milioi euro izan zen iaz, 2008an baino %3,1 gutxiago.

Berankortasuna edo morositatea %2,9an kokatu dela iragarri dute, sektorearen batez bestekoa baino askoz beherago. Eta morositateari eutsi arren, entitateak bikoiztu egin ditu hornidurak. Euskadiko Kutxak bezeroei emandako kredituak 16.797 milioi eurokoak izan direla jakinarazi dute, aurreko urtean baino %0,1 gehiago. Gainera, kaudimen edo solbentziari dagokionez sektoreko entitateen artean lehenengo zazpien artean dago.

**ELKARTASUNA** > LURRIKARA

## Haitira laguntza bidaltzeko materiala jasotzen dabiltza Oñatin hainbat talde

Zapatura bitartean jasoko dute Hermansoloña elkarteko egoitzan: arropak, sokak, izarak, janaria, erizain lanetarako materiala...

**MIRARI ALTUBE** > OÑATI

Oñatiko parrokiako misio taldea, Hermansoloña elkartearen laguntzarekin, Haitira bidaltzeko materiala jasotzen dabil. Joan den astelehenean hasi zuten kanpaina eta zapatuan, otsailak 6, bukatuko da. Herriak Elkarlanean GKEren baliabideak erabiliko ditu bilketa lanetan eta Debagoieneko eta Debabarreneko bilketa gunea izango da Hermansoloña elkarteak Bidebarrieta kaleko 22. atartean duen egoitza.

Egoera larrian geratu da Haiti lurrikararen ostean eta bertako beharrak hainbat eratakoak dira. Horregatik, zera eskatu dute bidaltzeko: multzo elektrogenoak; ura edangarri bihurtzeko tresnak; arropak: eskuzapiak, izarak, mantak eta udako arropak; janaria: arroza, lekaleak, kontserbak… eta erizain lanetarako materiala: antibiotikoak, analgesikoak, eskularruak, haria… Bestalde, elikagaiak Oñatiko hainbat komertziotan ere jasoko dituzte: San Migel kooperatiba, Eroski, Super BM, DIA eta Autoservicio Matea (Errekalde auzoan).

**JAKMEL HERRIRAKO LAGUNTZA**

Jasotako guztia Haitiko Jakmel herrira bidaliko dute. Bertan dauden Mesedetako mojek bideratuko dute gero materiala. Dagoeneko sei urte daramatzate elkarrekin lanean Herriak Elkarlanean GKEk eta Jakmel herriko Mesedetako mojek.

auzorik auzo

**MENDIOLA** > Eskoriatzako elizatea da Mendiola. Autoz joateko, Aretxabaletatik joan behar da; bestela, Bolibarko Lete auzotik oinez. 20 etxebizitza daude Mendiolan; eta gazteak badauden arren, gehienak nagusiak dira.



Arantzazuko Ama Birjinaren omenez egindako monumentuaren ondoan dago Joxe Madinabeitia. A.E.

**Joxe Madinabeitia** > Mendiolako auzo-alkatea

# "Ohituretan, ekonomian eta belaunaldien artean aldaketa handia egon da azkenaldian"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

**Mendiolan Joxe moduan ezagutzen dute; herrian, ostera, Iñaki da. Argi utzi gura izan du auzoen eta elizateen arteko aldea: Mendiola elizatea dela dio. Madinabeitiak azaldu du elizateetan ez daudela "aisialdiaren gizartean"; baizik eta "mantentze gizartean".**

**Azkeneko urteetan Mendiolak aldaketa soziologiko handia izan du. Zer gertatu da?**

Ohituretan, ekonomian, belaunaldien artean... aldaketak egon dira. Nagusi asko daude; eta haien ohiturak eta gazteenak ezberdinak dira. Esan daiteke gazteek oraindik ez dituztela elizatearen zuzendaritza eta gestio ardurak hartu.

**Argi utzi gura duzu auzoaren eta elizatearen arteko aldea. Zein da alde hori?**

Bai, ez da berdina auzoa edo elizatea. Sasoi baten, bizikidetza unitateak sortu ziren; hala, taldearen beharrak hobeto defendatzeko aukera zegoen. Errealitate horietako bat Elizaren administrazioa antolatzea izan zen. Esan behar da Udalak antolatu aurretik parrokiak antolatu zirela. Garai baten, parrokiek egiten zituzten gaur egun egitura zibilak egiten dituen hainbat funtzio. Elizatea izateko bete beharrekoak: parrokia bat izatea, antolakuntza administratiboarekin; eta hilerria izatea. Modu horretan, hildakoen inguruan, kofradiak eta beste antolatzeko aukera zegoen.

**Elizateak deitzen dira elizaren atean biltzen zirelako.**

Bai, erlijio kontuak eliza barruan tratatzen ziren; baina gainerako kontuez berba egiteko ez zegoen lokalik. Hala, elizako aterpean batzen ziren.

**Alkatea aukeratzeko bozketak bi itzulira egiten dituzue.**

Mendiolako auzotar guztiek bozkatzen dute; lehenengo itzulian denak izan gaitezke hautagaiak eta bigarrenera pasako dira boto gehien jaso dituzten hiru hautagaiak.

**Mendiolako arazoetako bat zerbitzuekin daukazue.**

Pertsona nagusi asko bizi da Mendiolan; hortaz, osasun zerbitzuaren beharra handia da; eta, ondorioz, mugikortasun arazoak sortzen dira. Arazo horri nolabaiteko irtenbidea eman behar zaio.

Bestalde, oso gutxitan ikusten ditugu Udaleko brigadako langileak auzoan lanak egiten... Horrelako gai guztiak guk egiten ditugu auzo-lanean, eta herrian Udaleko zerbitzuak arduratzen dira lan horietaz...

**Bestalde, zein arazo duzue autoekin?**

Kurtzebarrira igotzeko bide nagusienetakoa denez, jende asko etortzen da Mendiolara, eta autoekin arazoak izaten ditugu. Monumentu inguruan aparkatzen dute; horrek arazoak sortzen ditu, batez ere elurra dagoenean. Esan gura diet autoz datozenei, elizaren ondoan badagoela autoendako egokitutako tokia; hortaz, han aparka dezatela.

**San Juan jaiak dira Mendiolako jai nagusiak, baina zer gehiago ospatzen duzue?**

Ekainean jai nagusiak izaten ditugu, San Juanak; bestalde, San Juan txikiak ere ospatzen ditugu, maiatzaren 6an. Hildakoen Egunean gaztaina-jana egiten dugu hilerrian errosarioa esan ondoren.

Bestalde, galduta dagoen Urdelardero jaia berreskuratzeko asmotan gabiltza; eta erretiratuen jaia ere egiten dugu.

**"Erlijio kontuak eliza barruan tratatzen ziren, baina gainerakoak elizako aterpean"**

**"Pertsona nagusi asko bizi da Mendiolan eta horrek mugikortasun arazoak sor ditzake "**

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba

URTARRILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

EUSKARAZKO JOSTAILUAK
Umeentzako euskarazko jostailuak
Ikastolen Elkartea
Mikel Eguren Laskurain (Bergara)

UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela etxearen umeentzako liburuak.
PAMIELA argitaletxea
Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aroren partidurako sarrerak.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET
Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)

GOIENAKO PENDRIVE-A
Goienako pendrive bat.
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE



• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Topaguneak antolatuta, euskara elkarteei buruzko jardunaldiak egin dituzte Durangon. Hausnarketa prozesu baten hasiera izan dira jardunaldi horiek, urtebete inguru iraungo duen prozesua. 100 bat lagun elkartu ziren jardunaldietan eta lau ponentzia aurkeztu zituzten. Joan zirenen artean, ibarreko ordezkaritza ere izan zen, Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*, adibidez.

**Juan Luis Arexolaleiba** > Euskaltzalea

# "Hausnarketa eta erronkak gaurkotu behar dituzte euskara elkarteek"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**Euskara elkarteek oinarrian zuten funtzioa bete dutela onartzen du Juan Luis Arexolaleiba *Gatxik*, baina erronkak gaurkotu behar dituztela ere uste du, eta euskalgintzako sinergiak, indarrak, hobeto aprobetxatu.**

**Hausnarketa egiteko momentua heldu dela ikusi duzue?**

Premia ikusi delako. Edozein langintzan komeni da hori egitea, eta hemen ere bai. Aurreko urteetan zein irizpide eta oinarrien arabera ibili garen ikusi behar da eta gauza batzuk mantendu egin beharko dira, baina badaude hausnartzeko puntuak eta jarraitu beharreko ildo berriak ere.

**Euskararen normalizaziorako sortu ziren, neurri baten, euskara elkarteak duela 25 urte. Bete dute funtzio hori?**

Oso funtzio inportantea bete dutela uste dut. AED, esaterako, 1983an sortu zuten, orduko premiei erantzuteko. Arrasaten hasitako bideari jarraitu zioten eskualdeko eta Euskal Herriko beste herri batzuk ere. Gaur egun Topagunean 100 bat elkarte daude. Egindakoa garrantzitsua izan da, batez ere erabilerari begira. Debagoienean komunikabideen inguruan, aisialdian, euskararen pretigioa bultzatze aldera egindakoa ere garrantzitsua izan da.



Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi* Arrasaten, joan den eguaztenean. O.E.

**Kritikoa ere bazara, baina.**

Euskara elkarteek bi zeregin nagusi dituzte: euskaraz bizitzeko ekimenak sortzea eta euskararen akuilu izatea (sentsibilizazio lana, eragile lana egitea). Uste dut azken urte hauetan batez ere kulturgintza eta zerbitzuak sortu dituztela. Ondo egin dute lan hori, baina bi zereginen arteko oreka bilatu behar dela uste dut.

**Akuilu lana behar beste ondo ez dutela egin uste duzu?**

Lehentasuna besteari eman zaiola uste dut, eta oraindik zoritxarrez, sentsibilizazio lana egin beharra dagoela. Euskara elkarteek ezin dira soilik izan zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateak, baizik modu onean, baina sentsibilizazio lana ere egin behar dutela uste dut.

**Elkarteekin batera, euskalgintza osoa hartuta, sinergiak ez direla ondo aprobetxatu. Horren errezeloa ere baduzu.**

Bi maila daude hor: batetik, euskara elkarteek izan duten arrakastagatik sortu diren ekimenak (adibidez AED elkartearen arrakastatik etorri ziren komunikabideak edo aisialdirako eta emakumeendako ekintzak). Hemen hartu zen erabakia sendotutako ekintza zehatzek euren bidea egin zezatela (Arko, Goiena, Txatxilipurdi...). Baina dinamika horren garapenean badago zer hobetu.

Bestetik, euskalgintza moduan ulertzen dugu euren egitekoan euskararen normalizazioa oinarrian duten entitateak. Eta hor ere nahiko kritiko naiz. Uste dut euskalgintzan badaudela entitateak eraginkorrak, indartsuak direnak, baina oro har euskalgintza moduan Euskal Herri mailan dugun eragina nahiko txikia da. Sinergiak eta komunikazioa falta direla uste dut. Pausu handiak eman dira euskararen normalizazioan, baina badaude kezka batzuk, adibidez erabileraren eta motibiazioaren inguruan. Erronka berriei heltzeko, euskalgintzan gaur egun garrantzitsua da hainbat gauza elkarrekin egitea.

ZEREGINA

**"Euskaraz bizitzeko ekimenak sortzea eta akuilu lana egitea dira elkarteen zeregina"**

GAKOA

**"Gaur egungo dinamikan ibili behar diren pertsonak motibatu egin behar dira"**

BAILARAKOEN EGOERA

**"Ekintzak garatu ahala euren bidea hartu dute proiektuek, eta elkarteak hustuta gelditu dira"**

**Asko eman dute euskara elkarteek, baina parte-hartzea eta konpromisoa ere eskatu dute, neurri baten. Gaur egun, baina, ez gaude gertu horiek emateko.**

Bi ideia nagusi: batetik, hausnarketa gaur egungo pertsonek egin behar dute eta ilusionatu behar dituzte parte hartzen dutenak. Inertziaz bakarrik ibiltzea ez da ona. Hausnarketak eta erronkak gaurkotu behar ditugu. Gaur egungo dinamikan ibili behar diren pertsonak motibatu behar dira.

Bestetik, euskara elkarteak ez dira sortu euren zilborrari begira egoteko. Sortu dira premia batzuk daudelako gizartean edo gauza batzuk bultzatu gura direlako, baina bitartekoak ere badira, eta hori zaindu egin behar da. Lan hori egiten duten pertsonen ilusioa mantendu egin behar da.

**Ze osasun egoeran ikusten dituzu Debagoieneko euskara elkarteak?**

Egoera ezberdinak daudela uste dut. Herri denetan izan dute arrakasta euskara elkarteek, baina bailara honetan hartu dute erabakia ekintza zehatzak gorpuztu ahala euren bidea hartzeko. Ekintza batzuk osasuntsu daude, baina jatorrizko elkarteak, AED, Jardun edo Laixan, esaterako, gelditu dira hustuta.

GOIENKARIA, Ekin edo Txatxilipurdi egonda, euskara elkarteek askoz zeregin zehatzagoa izan behar dutela uste dut, kualifikatuagoa. Zeregin horretaz konsziente izanik, ez dira horrenbeste azalduko, baina "egin eta eragin" dinamika bultzatu behar dutela uste dut, bai gizartean bai euskararen inguruko entitateetan, eta prozesuaren katalizatzaile izan behar dute.

**Horixe da euskara elkarteen zeregina etorkizunean?**

Helburua egoera eta muga kontuan izan eta apustu berritu bat egin, gaur egun horretan gabiltzanok horrela ikusten dugulako, eta ez garai baten gauzak modu baten egitea erabaki zelako.

**Gizarteak baloratu du euskara elkarteek egindako lana?**

Uste dut baietz. Batzuk beste batzuk baino gehiago jakingo dute zergatik eta nola sortu ziren ekimenak, baina orokorrean nik uste dut baietz.

**Hausnarketa prozesu baten hasiera izan da Durangon egindako jardunaldia. Zein izango da hurrengo pausua?**

Topaguneak bideratu duen prozesua da baina uste dut gura dela ahalegin serio bat egitea eta elkarteek ekarpenak egitea.

Debagoienean badugu zer hausnartu. Ondorio orokorrak atera eta herri bakoitzaren berezitasun propioak hartuta egin behar dugu aurrea. Askotan, sakonean egon daitezkeen kezkak komunak dira, nahiz eta gero horiei irtenbidea emateko bakoitzak bere errealitate partikularra izan.

Baikorrak eta zorrotzak izan behar gara aurrerantzean euskararen inguruan ditugun hainbat kezka argiago ikusteko.


Kutxa Inbertsio Irtenbideak
6 Up Gordailu Berria.
Inbertsio ezin tentagarriagoa.
6 Up Gordailu berria errentagarritasunik gozoena lortzeko osagai-konbinazio ezin hobeaz prestatua baitago. Zatoz kutxara eta dasta ezazu aho-zapore ezin gozoagoa utziko dizun inbertsio hau.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Zapaterok erretiroa 67 urtera atzeratu gura du. Zer pentsatzen zaizu hori?



**Mariangeles Motrel**
Etxekoandrea
Arrasate

65 urterekin nahikoa da. 65 urtera arte nahikoa lan egin du jendeak. Eta pentsioen arazoari aurre egiteko, ipin ditzatela gazteak lanean, gazte asko dago langabezian. Beste batzuetan topatzen dituzte neurriak.



**Anabel Arantzadi**
Langilea
Aretxabaleta

Larregiko berandu da. Dena den, batzuei aukera emango die lanean segitzeko, batzuk prestatuta daude horretarako. Bi aukerak izatea izango litzateke onena. Baina berez, atzeratzea txarto iruditzen zait.



**Angel Guridi**
Erretiratua
Arrasate

Gaizki pentsatzen zait. 65 asko da, eta bi gehiago… Neu 65ekin erretiratu nintzen eta niregatik, aurreratu egingo nuke erretiro adina, behintzat, 60 urtera arte. Nahikoa lan eginda gaude ordurako.



**Markel Uribarren**
Ikaslea
Arrasate

Txarto pentsatzen zait, orain dagoena ere larregikoa da. Eta gainera, gu erretiratzen garenerako seguru 67 urte baino atzerago egongo dela erretiroa, eta ordurako auskalo zela gauden bizitzaz gozatzeko!

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Anbulatorioko aparkalekua moldatu behar dutela-eta**
Oñatiar batek deitu du erredakziora esateko pozik entzun duela Udalak anbulatorioko aparkalekua moldatzeko hartu duen erabakia. "Auto gutxiago sartuko dira, eta ordaindu behar diren parkingak erabiltzera ere bultzatzen gaitu erabaki horrek, eta hori ez zait gustaten, baina egia da aparkaleku hori estuegia zela", dio.

ARRASATE
**> San Frantziskoko biribilgunean zulo asko**
Arrasateko San Frantziskoko biribilguneko errepidean zulo asko daude. Elurtearekin, gainera, okertu egin da errepide zati horren egoera. Konponduko zutela ere esan zuten, baina oraindik zuloz beteta dago. Auto askok maniobra xelebreak egiten dituzte zulo horiek ez zapaltzeko, eta txirrindulariek ere sufritzen dute handik pasatzean.

ARETXABALETA
**> Lur azpiko edukiontzietan ordez, kanpoan dago kartoia**
Aretxabaletako erdigunean zaborra eta birziklatzeko materiala jasotzeko lur azpiko edukiontziak jarri zituzten. Baina kartoia, batez ere, kanpoan pilatzen da sarritan. Ume askok jolaserako erabiltzen dituzte kartoi zati horiek eta Ilargi plazako inguru denean zabaltzen dira. Maiztasun gutxirekin biltzen dituztelako edo jendeak ez dituelako edukiontziak behar bezala erabiltzen, baina barruan egon ordez, kanpoan ikusten da materiala.

## usteak uste

**Miren Arregi**

# Zuzentasuna ez da bermea

Zuzentasunaren izenean sekulako esaldi dotore eta ongi egituratuak bota ohi ditugu euskaldunok komunikabideetan zein jende aurrean hitz egiten dugunean. Zuzentasunaren izenean eta dotoretasunaren izenean. Eta gustura gelditzen gara, aurrean ditugunen ehuneko handi batek esan duguna ulertu ez duela sobera jakinda ere.

"Zuzen egin dut. Egoki. Ulertu ez duenak berak jakingo du zergatik, izan ere, ni gustura gelditu naiz hitz potolo eta esaldi egitura luze eta aldrebesak erabiliz egin dudan aurkezpen honetan".

Baina, zein da komunikatzearen helburua? Zer da komunikatzea? Ez dakit jabetzen ote garen zuzentasuna baztertu gabe eraginkortasunak behar duela izan komunikazioan oinarri. Zuzentasuna ez delako komunikatu gura dugun hori jendartera guk gura legez helarazteko bermea.

## zorroztailea



**Larraitz Ugarte**

# Otegiren 'cheli'-a



"La cheli de Otegui. Cheli: madrildar berba, batez ere gazteena, arduragabeen prototipoarekin lotutakoa. Hori da azken urteotan lurperatuta zirudien berba egiteko modu baten definizioa. Baina Arnaldo Otegi epaitzen dabilen epailea asteon hori berreskuratzen tematu da."

*elmundo.es* > 2010-01-28

Horrela izendatu du espainiar hedabide batek Angela Murillo Entzutegi Nazionaleko magistratua eta asteon Arnaldo Otegi, Ixiar Galardi, Irakulis, Etxaburu eta Enparantza epaitu behar zituen emakumea. "Por mi como si le quieren dar vino" eta "no se entiende ni *papa*" bezalako esaldiak edo perlak utzi ditu hedabide aspertuen gozamenerako. Horregatik omen da *chelia*, hizkuntza hain modu popularrean edo traketsean erabiltzeagatik.

Aitortu behar dut hasiera batean emakume horrek grazia egiten didala, sinpatika ere egiten zaidala bere Belen Estebanen toke *cheli* horrekin, eta ezin zaiola ukatu umore ironiko, ziniko eta sarkastikoa duenik. Baina izan gaitezen serioak. Bost pertsona duela bost urte Zornotzan gertatutako omenaldi batean parte hartzeagatik agian bost urtetarako espetxeratuak izatea? Hau bai ez dudala *paparik* ulertzen!!! Gainera inkriminazio elementu nagusia, froga izarra, gertaera akreditatuko lukeen bakarra, euskaraz, itzulpenik gabe editatutako bideo grabazio bat izanik (berau itzultzea Kixotea baino erraxagoa bada ere, Murillo *dixit*). Beste hitz batzuekin esanda, nola dabiltza bost euskaldunen aurka ahozko epaiketa egiten *Gatzaren* omenaldian pertsona horiek esan zutena oraindik inork eta beraz, epaitegiak ere ez dakitenean? Hau *chelia* ez, hau oso larria da ikuspuntu gizatiar eta juridiko batetik. Euskal Herrian, zoritxarrez badakigu Entzutegi Nazionaletik datorkiguna ez dela inoiz juridikoa, politikoa baizik. Eta espainiar hedabideek ere badakite. Horregatik, barregarri geratzen direnean, epailearen profil *cheliak* ateratzen dituzte, atentzioa desbideratzeko edo.

**"Badakigu Entzutegi Nazionaletik datorkiguna ez dela juridikoa"**

**"Arnaldo Otegi gose greban egon da bere ur botilarekin"**

Baina niri ez zait atentzioa desbideratu: Arnaldo Otegi, gainontzeko euskal preso politikoak bezala, asteon gose greban egon da, bere ur botilarekin eta irrifarrarekin espainiar epaile *cheliei* enegarrenez herri honek behar duena aterabide demokratikoa dela gogoraraziz, eta presoen duintasun xumearen lezioa espainol ikusle guztien aurrean erakutsiz.

Goienkaria
**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi
**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Ubane **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arritxu Barruso, Miren Arregi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain
**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com
**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> ARRASATE**
Merkealdien azoka otsailaren 19an, 20an eta 21ean egingo dute **> 14**



**> BERGARA**
Babes ofizialeko beste 128 etxebizitza eraikiko dituzte **> 16**



**> ARETXABALETA**
Frankismo garaiko esklabotzaren gaineko erakusketa **> 19**



**> ARAMAIO**
Iturrizuri kalean 22 aparkaleku egokitzeko asmoa dute **> 20**





Irudiko muntaiak erakusten du nondik atera eta noraino iritsiko diren eraikiko dituzten bi igogailuak.

KONTZEJUPETIK

**OÑATI** > AZPIEGITURAK

# Urte amaierarako bukatuko dituzte San Lorentzoko bi igogailuak

**1.600 AUZOTAR**
Igogailuekin 1.600 bizilagunek %60 irabaziko dute irisgarritasunean

**BOST MILIOI EURO**
Auzorako irisgarritasun planean bost milioi euro inbertituko dituzte

**UBANE MADERA**> OÑATI

Joan den eguaztenean hasi zituzten San Lorentzo auzoko bi igogailuen obrak, auzoaren erdialdeko jolasparkearen ostean, justu. "Hor kokatuko da igogailuetako bat", azaldu du Lourdes Idoiaga alkateak. "Obrek oztopo handirik ez dute eragingo, eskumako partea itxi egingo dute, baina jendea ezkerraldetik ibili ahalko da eta behe-barruetara iristeko arazorik ez da izango", gaineratu du.

Igogailu horren bitartez, auzoaren lehen altuera salbatu gura dute, "30 bat eskailera".

**HAMAR HILABETE BUKATZEKO**

Bigarren igogailuak, berriz, plaza handitik abiatu eta bi solairu izango ditu, pasarela eta guzti, goiko eremuraino iristeko.

Bi igogailuen obrak 10 hilabetean bukatzea dute aurreikusita; urte amaierarako, beraz.

**1.600 AUZOTAR ETA BOST MILIOI EURO**

Igogailu berriek mesede handia egingo diete San Lorentzon bizi diren 1.600 auzotarrei,: "Irisgarritasuna irabaziko dute, %57 inguruan", jakinarazi du alkateak. Hori bai, herriko Udalak horretarako egin beharreko inbertsioa ere handia da: 900.000 bat euro.

Hala ere, San Lorentzo auzoa irisgarri bilakatzeko planaren zati bat besterik ez da hori; guztira, bost milioi euro inbertitzea aurreikusita du Udalak. "Eremu publiko guztia irisgarri bihurtu" gura dute; hala, espaloien koskak txikitu, oztopoak ezabatu eta halakoak egingo dituzte urteotan: "Urte bakoitzean eta aurrekontuaren arabera joango gara obrak egiten", zehaztu du alkateak.

**UDAL GOBERNUAREN APUSTUA**

San Lorentzo auzoarekin batera, Errekalde da irisgarritasuna bermatzeko beharra daukan auzo bakarra Oñatin, "San Lorentzotik Olakuarakoa, plaza, eta Arkitekto Lizaurrerakoa irisgarri dago", azaldu du agintari nagusiak. "Inbertsioak ez doaz monumentu handiak egitera, baizik eta auzoak atseginago bilakatzea da gure helburua. Udal Gobernuaren apustu inportantea eta hauteskundeetako programan hartutako konpromiso zehatza da hori eta horrekin segituko dugu. ", dio Lourdes Idoiagak.

## Errekalde auzoko irisgarritasun lanak maiatzean hasiko dituzte, ondo bidean

Errekalde auzoan ere egingo dituzte irisgarritasuna eta bide-segurtasuna bermatzeko lanak, ondo bidean maiatzean bertan hasita. Labur esanda, Errekaldeko kale osoa "plataforma bakarrean" ipini gura dute udal agintariek, "oinezkoei eta bizikletei lehentasuna emanez", esplikatu du Idoiaga alkateak; hala, autoak ere ibili ahal izango dira Errekaldetik, "baina azkenak izango dira", zehaztu du, eta kontatu koloreak erabiliko dituztela plataforma bakar horretan egokituko dituzten guneak desberdintzeko. Kasu horretan, kalkulatu dute milioi bat euroko inbertsioa eta hamar hilabeteko epea beharko dutela obra hasi eta bukatzeko. Dena den, argi dute Errekaldeko auzotarrendako onura handia izango dela, "auzotarrekin eurekin adostutako proiektua da", jakinarazi du alkateak.

# Ongi etorri Goiena Klubera

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.




**Nola egin klubeko bazkide**

Urteko kuota: 45 euro
Telefonoa: **943 25 05 05**
Posta-e: **kluba@goiena.com**

Goiena kluba

## Onura bikoitza txartel bakarrean

### 1. Goiena Kluba

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean.
Bazkide-txartelarekin abantaila eta onura esklusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu.
Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!

### 2. Topakide

**Bazkide-txartelaren beste aurpegia**
Euskara elkarteek antolatzen dituzten kultura ekitaldietako batzuk Topaguneko agendan sartuko dira, eta ekitaldi horietara joaten diren bazkideak txartela erakutsi eta doan edo prezio berezian sartuko dira.




## Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.

- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia:
  DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak...

**eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat**

## Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

**BARCELÓ BIDAIAK**
**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

**LILURA** EDERTZE INSTITUTUA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

**NAREN** FISIOTERAPIA ZENTROA
**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

**IKER** SUKALDEAK
**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

**LARRAÑAGA** AUTOESKOLA
**BERGARA**
- **-%15** matrikula ordaintzean.

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE** (MECA)
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

**MONDRAGON LINGUA**
**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

**AUTOBERRI**
**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

**ZIENTZIEN KUTXAGUNEA**
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

**AQUARIUM**
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

**TXURI-URDIN** IZOTZ JAUREGIA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu**

**ARRASATE** > ETXE ANDALUZIARRAREN URTEURRENA

# Al-Andalus beste 20 urte betetzeko gertu

Eguenean, urtarrilaren 28an izan zen justu, elkartearen 20. urteurrena

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Anaia arteko afari batekin hasi (eguenean) eta dantza saioekin bukatu (domekan) zituzten Arrasateko etxe andaluziarraren 20. urteurreneko ospakizunak. Gipuzkoako etxe andaluziar zaharrena da. "Espero dugu beste 20 urte edo gehiagoan jarraitzea, baina… ondorengoak behar ditugu, erreleboa", esan zuten Rafael Rayak eta Rafael Gomezek, Al-Andalus elkarteko oraingo eta lehengo presidenteek, hurrenez hurren. "Gaur egungo bazkideen %60 nagusiak dira", gaineratu zuten.

Bide batez, jakinarazi zuten 350 bat bazkide dituela gaur egun Al-Andalus elkarteak, eta "500 bazkide izatera ere iritsi" direla. Eta ez hori bakarrik, "Andaluziako Batzordeak EAEko etxe onenetakoa bezala ere izendatu du Arrasatekoa", gehitu dute.

Urteurreneko ospakizunak eginda, otsailaren 28an Andaluziaren Eguna ospatzeko prestatzen dabiltza orain.



Ikusleak gustura, atzo elkartean J.A.



Bazkide mordoa elkartu zen zapatuko afarian. RAFAEL GOMEZ



Umeak Gorritiren pottoka batekin jolasean, Meatzerreka auzoan. U.M.



Mus txapelketak erakarri zituen inguruko gizonak auzoko elkartera. U.M.

**ARRASATE** > SAN BALEIXO JAIAK

# Euriari aurre eginez ospatu zituzten jaiak, Meatzerrekan

Urtero moduan, mus txapelketak arrakasta handia izan zuen San Baleixotan

**U.M.** > ARRASATE

Gorritiren animaliak, txokolate-jana, mus txapelketa, Joxe Gardoki eta Manu Iztuetarekin dantzaldiak… halakoak eta beste izan zituzten Arrasateko Meatzerreka auzoan, San Baleixo jaietan. Jakina, euria izan zuten traba, bailara osoan moduan. Baina horri inportantzia kendu eta "ia ba datorren urtean jende gehiago animatzen den", zen auzotarren nahia. Hala ere, zapatuan aretxabaletarren, arrasatearren eta soraluzetarren bisita izan zuten.

**ESKORIATZA** > ZUHAITZ EGUNA

# 60 zuhaitz landatu zituzten Aingeru Guardan

Antolatzaileak pozik daude uste zutena baino jende gehiago ibili zelako zuhaitzak landatzen; talde polita elkartu zen Aingeru Guardan



Haur eta gurasoak gustura ibili ziren zuhaitzak landatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**A.B.** > HERRIA

Lan polita izan zuten domeka goizean Eskoriatzan; 2009an jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bana landatu zuten Aingeru Guarda ingurunean. Eskoriatzako zuhaitz egunaren helburua da bizitza berrien eta zuhaitzen arteko lotura sinbolizatzea. Aurten, pasa den urtea bezalaxe, zortea izan dute; Ibarraunditik irten eta landaketak amaitu arte ateri izan zen-eta. Guztira, 60 zuhaitz landatu zituzten, 2009an jaiotakoak 41 izan arren. Antolatzaileak oso pozik daude uste baino jende gehiago gerturatu zelako.

**ELGETA** > DANTZA

# Dantza saioak arrakasta itzela

Elgetako Espaloia Kafe Antzokia dantzariz beteta ikusi genuen atzo iluntzean. *Herrixa dantzan* izeneko ekimena ipini dute abian. Horren baitan, hilero azken domeketan, Espaloian dantza saio irekiak egingo dituzte. Atzokoa lehenengoa izan zen eta deialdiak sekulako arrakasta izan zuen. 100 pertsona inguru elkartu ziren; gazte eta nagusi, gustura ibili ziren Patxi Monteroren gidaritzapean. Monteroren esanetan "jendeak dantzan ondo pasatzea da helburu nagusia" eta herritarren aurpegiak ikusita uste dugu helburua bete zela.



JOSETXO ARANTZABAL

**JENDARTEA** > MERKEMERKAUA 2010

# Aukeren azoka otsailaren 19an, 20an eta 21ean egingo dute

Erosleen ohiturak kontuan hartu, eta zapatuan barik, egubakoitzean hasi eta domekan 15:00etan bukatuko dute Merkemerkaua

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Ezarri dituzte egunak: hil honen 19an, 20an eta 21ean egingo dute aurten Merkemerkaua azoka, Arrasate eta inguruko dendarien eskaintzak batzen dituen merkealdi azoka.

Kokagunea betiko bera izango da: Uarkape pilotalekua. Baina egutegia desberdina izango da, aurten egubakoitzean zabalduko dituzte-eta ateak.

**SALTZAILEEK ESKATUTA**

"Parte-hartzaileek eskatu dute egubakoitzean hastea, domeka eguerdira arte, ikusita aurreko urteetako azoketan domekan ez dela jende askorik ibiltzen. Eta pentsatu dute egubakoitzean jende gehiago ibiliko dela", azaldu du Eñaut Iraetak, Ibai-Arte merkatari elkarteko dinamizatzaile eta Merkemerkauaren antolatzaileetako batek.

Egutegiarekin batera, azokaren ordutegia ere finkatu dute: egubakoitzean, 16:00etatik 21:00etara; zapatuan, 10:30etik 21:00ak arte eta domekan, 10:30etik 15:00ak arte.

**23 SALTZAILERENDAKO LEKUA**

Uarkapen 23 saltokirendako lekua egokitu dute Merkemerkaurako. Eta parte hartzeko lehentasuna dute Ibai-Arteko kide diren saltokiek. "Gero, gainerakoek eman ahal dute izena, Arrasate ingurukoek-eta".

**IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK**

Bestalde, izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi du. Hain zuzen ere, joan den astelehenean zabaldu zuten, baina oraingo aste honetan ere zabalik dago. Horretarako bi bide egokitu dituzte: telefonoz dei daiteke, honako zenbakira: 943 79 30 90; edo Interneten honako helbidera idatzi: *ibaiarte@ibaiarte.com*.

Parte hartzeko lehentasunez aparte, interesa daukan edozein saltokik aurkez dezake parte hartzeko eskaera: "Ez dago beste baldintzarik, bakarrik ordaindu beharko luke standarengatik ordaindu beharrekoa", azaldu du Merkemerkauaren antolatzaileak (350 euro Ibai-Arte elkarteko kideek, apurtxo bat gehiago gainerakoek).

Bezeroei dagokienez, iaz ia 6.000 lagunek bisitatu zuten Arrasateko merkealdien azoka.



Iazko Merkemerkauan eskaintza politak aurkitu zituzten bisitariek. GOIENKARIA

EROSKETA TXARTELA

## Ordainketak egiteko modua: Ibai-Arte txartela, abantailaduna

Merkemerkauaren berritasunen artean, txartelarekin ordaintzeko aukera emango dute saltokiek, "baina Ibai-Arte txartelarekin bakarrik; bestela, diruarekin ordaindu beharko da", azaldu du Eñaut Iraetak, Ibai-Arteko dinamizatzaileak.

Ibai-Arte txartela da Arrasateko merkatariek abiarazitako fidelizazio txartela. Erosketak txartel horrekin ordainduz gero, bezeroei puntuak ematen dizkiete, eta gero puntu horien truke abantailak eskuratzen dituzte: opariak eta diru-txekeak. Horrez gainera, Ibai-Arte txartelarekin erosketak egiten dituztenen artean bestelako opariak ere zozketatzen dituzte.

Justu, azken kontu horren harira, Ibai-Arte merkatari elkartetik jakinarazi dute azkeneko opari handiaren zozketa atzeratu egin zaiela. Kanariar irletara bidaia bat zozkatu behar zuten urte hasieran, baina adierazi dute asteon jakinaraziko dutela zeinek eskuratuko duen oporraldi laburtxo hori.

**OBRAK** > E PLANA

# Milioi bat euro pasa inbertitu gura ditu Udalak Musakolako kiroldegiko egitura berritzeko

Aurtengo E Planaren barruan sartu dute obra hori egiteko dirulaguntza eskaera; erantzunaren zain daude orain


Igerileku handian jende asko ibiltzen da kirola egiten. U.M.

**U.M.** > ARRASATE
Kiroldegiaren egitura hainbat puntutan sendotzeko obrak egin gura ditu Udalak. Obra handi samarra da, bereziki, bi puntutan: barruko igerilekuaren azpiko sotoan eta kantxa polideportiboaren estalkian. Eta obra hori egin behar dutela aprobetxatu, eta igerileku handia iragazgaizteko obrak ere egin gura ditu Udalak.

**IGERILEKUA ITXI EGIN BEHAR**

Bada, hori guztia egiteko dirulaguntza Espainiako gobernuaren E Planari eskatu diote: 1.170.000 euro, guztira. Gobernu zentralak onartuz gero, bost hilabeteko epean bukatuko dituzte obrak. Hasiera epea ere pentsatuta dute: maiatz-ekaina, "betiere AUKEAren funtzionamenduaren arabera", zehaztu dute udal ordezkariek. Horrek esan gura du urte amaierarako guztia bukatuta izango dutela. Eta, jakina, horrek esan gura du, baita ere, obrek iraun artean igerileku handia itxita izan beharko dutela.

Labur esanda, kiroldegiko bi puntuotako hormigoizko egitura da sendotu beharrekoa, "patologia bat" daukalako, udal iturrien arabera. Izan ere, egitura egin zutenean, hormigoia eusteko burdinen estruktura "nahiko azalean" utzi zuten; "giro agresiboa dago hor, kloro eta halakoekin, eta burdinak joan dira herdoiltzen. Ondorioz, hormigoia puztu egin da, eta pitzatu ere bai", zehaztu dute.

Era berean, "premia dago" igerileku handia berriro iragazgaizteko, eta hori ere egin gura dute. Eta lanok aprobetxatuta, igerileku handiaren sakonera ere egokitu gura dute, "oraingo beharretara egokitzeko".

**SAKONERA TXIKITU**

Bestela esanda, sakonera txikitu egingo diote igerilekuari: "1,80 metroko sakonera du, 2 metrokoa ere bai zenbait puntutan; bada, gura diote ipini 1,20 metro igerileku txikitik gertuen dagoen puntuan, 1,60 metro erdialdean eta 1,40 metro tranpolin inguruan.

## oharrak

DEIALDIA

**> Santa Ageda koruak**

Otsailaren 4a badatorrela-eta, Karkabal elkartetik hitzordua egin dute Santa Ageda koroetan parte hartu gura dutenenendako: gaur, otsailaren 1a elkartuko dira, Karkabal elkartean.

Jakinarazi dute, baita ere, bidali dutela lantegi eta dendetara dirua batzeko eskaera, gutun bidez.

Iaz, 5.361 euro batu zituzten, eta gehiena banatu zuten (Caritasen bitartez) langabezian egon eta seme-alabak dituzten bikoteen artean.

ODOL EMAILEAK

**> Odol ateratzeak**

Etzi eta eguenean dute hitzordua odol emaileek anbulatoriora joateko, 16:30etik 20:00etara.

UDALA

**> Tokiko batzarra**

Mugarrietako biribilgunea, ospitale-guneko aparkaleku eza eta adibidez, Aratuste egitaraua landuko dituzte gaur gobernu batzarrean.

**NEKAZARITZA** > SEBER ALTUBE PLAZAN

# Baserritarrek hilaren 20an jarriko dituzte euren postuak

Azoka egiten den bakoitzean, baserriko produktuz betetako otarretxoa zozketatuko dute

Herritarren artean izandako harrera dela-eta, urte guztian egiteko eskatu diote baserritarrek Udalari


Ikutixo baserriko baratzeko produktu freskoak eros daitezke, besteak beste, baserritarren produktuen azokan. J.A.

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Baserritarrek hala eskatuta, aurten ere baserriko produktuen azoka egingo dute hilero Arrasaten, Seber Altube plazan. Arrasate Irratiari udal ordezkariek baieztatu diotenez, otsailaren hirugarren astean izango da lehenengoa; hain justu, hilaren 20an.

Joan den urtekoekin alderatuta aurtengoak, gainera, badu berritasun bat: azoka egiten den bakoitzean, han bertan saltzeke dauden baserriko produktuz betetako otarretxo bat zozketatu egingo dute egun horretako bezeroen artean.

Esan bezala, baserritarrek eurek eskatu dute azoka urte guztian egitea. Erabaki hori hartzen eta xehetasunak lotzen urtarrila pasa eta horregatik otsailean egingo dute aurtengo lehenengoa. Urtarrilaren 25ean egindako tokiko gobernu batzordean hartu zuten udal ordezkariek esandako erabakia.

**URTEAN BEDERATZI AZOKA**

Guztira, bederatzi azoka egingo dituzte, otsailetik azarora. Abuztua salbuespena izango da; hilabete horretako azoka prestatzeak gastu handiagoa du, eta, horregatik, abuztuan ez egiteko proposamena egin die Udalak baserritarrei, eta haiek onartu dute.

**BASERRITARRAK, POZIK**

Iaz maiatzean egin zuten lehen aldiz azoka hori, udalerriko baserritarren produktuak sustatzeko asmoz; eta hilero, batez beste, 10-11 ekoizle izan ziren. Tartean, Ikutixo, Enuzketa Aldekoa, Gorostiza, Aranguren, Bidasoro, Etxebarri eta Askasibarren produktuak egon ziren eskura, baita Leintz Gatzagako Jakion enpresaren kontserbak ere.

Aurten ere kopuru hori mantendu egingo da; izan ere, baserritarrak pozik daude herritarren artean iazko azokak izandako harrerarekin eta han lortutako salmentarekin.

Modu iraunkorrean hartuko dute parte baserritarrek Seber Altuben kokalekua duen azoka horretan. Dena dela, udalerri kanpoko hainbat ekoizle ere egongo dira euren artean: euren produktuak modu ekologiko edo biologikoan ekoizten dituztenak, hain zuzen ere.

Bestalde, Arrasateko Udaletik azaldu digutenez, azoka egingo duten bakoitzean hango postuak ondo antolatzeko, azoka baino egun batzuk lehenago telefonoz deituko diete baserritarrei udal ordezkariek, hil horretako azokara joango diren edo ez galdetzeko.

**KIROLA** > UDALA

# Aholkularitza zerbitzua jarriko dute martxan asteon Musakolan


Body combat egiten dabiltzan hainbat gazte, kiroldegian. GOIENKARIA

Kirol eskaintza kontuan izanda, bakoitzaren beharretara egokitutako jarduera gomendatuko du

**M.B.** > ARRASATE

Arrasateko Udalak zerbitzu berria jarriko du martxan asteon, Musakolako kiroldegian: kirol aholkularitza zerbitzua, hain justu ere. Horren helburua da aholkularitza ematea kirola praktikatzen hasi nahi duten baina zer kirol mota egingo duten erabaki barik dutenei, baita jarduera berriak ezagutu nahi dituzten kirolariei ere.

Kirol ekintzen arduradun Nuria Rodriguez izango da, eguaztenetik aurrera, aholkulari lanak egingo dituena. Haren esanetan: "Bereziki jendea bideratu nahi dugu. Behar hori ikusi dugu. Batzuk etortzen dira galdezka zerbait egin nahi dutela eta ez dakitela zer. Horren harira, bakoitzaren beharra kontuan izango dugu. Kaloriak erre edo argaldu nahi duenari, esaterako, spinninga egiteko gomendatuko genioke; indarra lortu nahi duenari, berriz, pilatesa edo body pumpa". Horrekin batera, kirol jardueren eskaintzaren berri emateko ere balioko du. Rodriguezen arabera, "badago jendea jarduerak ezagutzen ez dituena. Gaur egun, kiroldegian 15 jarduera eskaintzen ditugu".

**IRAILEAN, OSO EMAITZA ONAK**

Behar horretaz jabetuta, joan den irailean, ikasturte hasieran, aholkularitza zerbitzu horren harrera neurtzeko proba aitzindaria (pilotua) egin zuten. Kirol ekintzen arduradunak nabarmendu du "arrakasta" izan zuela horrek: "Orain dinamika hori sartu nahi dugu, jendeak jakin dezan zerbitzu hori dagoela eta, nahi izanez gero, hara joateko ohitura har dezan". Irailean egindako proban askotariko jendea joan zela esan digu: "Denetarik etorri zen, baina bereziki emakumeen artean oso harrera ona izan zuen".

**ASTEAN BEHIN**

Astean behin eskainiko dute zerbitzu hori: eguaztenetan, 11:15etik 11:45era eta 18:00etatik 18:30era bitartean. Interesatuek aurretik hartu beharko dute txanda, 943 77 16 77 telefono zenbakian edo *aukea@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikoan.

Hori gauzatzeko hitzarmena berretsi du Udalak asteon Madura Etxegintzak SL promotorearekin

**HIRIGINTZA** > HITZARMENA

# Babes ofizialeko beste 128 etxebizitza eta tasatutako 24 eraikiko dituzte Urteagan

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Martitzen eguerdian, Urteagan etxebizitzak eraikitzeko hitzarmena berretsi egin zuten Udalak eta Madura Etxegintzak SL sustatzaileak. Sinadura ekitaldia udaletxean egin zuten eta parte hartu zuten Agurne Barruso alkateak eta Bittor Alberdi enpresa sustatzaileko ordezkariak.

Hitzarmen horren arabera, 267 etxebizitza eraikiko dituzte Urteagan: 128 babes ofizialekoak, 24 tasatuak eta 115 libreak –libreetako 60 eraikita daude–. Konpentsazio gisa, aprobetxamendu urbanistikoaren%10 jasoko du Udalak: batetik, diru kopurua jasoko du –80.000 euro orain; 118.000 euro tasatuak zozkatzean eta beste 118.000 babestutakoak zozkatzean–. Bestetik, orubea ere jasoko du, babes ofizialeko etxeak egiteko.

**ERREKATIK HASIKO DIRA**

Hitzartutako etxeok eraikitzeko, gaur egun Urteaga kalean geratzen diren etxe zaharrak bota egingo dituztela aurreratu zuen Barruso alkateak; hain justu ere, Antzuolarako norabidean errepidearen ezkerraldera daudenak. Hori etxebizitza libreendako lekua izango da. Babes ofizialekoak eta tasatutakoak eskuinaldeko orubean eraikiko dituzte.

Bittor Alberdi eraikuntza enpresako arduradunak, berriz, esan zuen lehenengo eta behin tasatutako etxeak eraikiko dituztela eta jarraian, babestutakoak. Horren haritik, etxeak eraiki aurretik Antzuola erreka kanalizatzeko lanak egingo dituztela argitu zuen Alberdik eta gehitu zuen lan horiek udaberrian hasiko dituztela. Barruso alkateak zehaztu zuen hitzarmeneko baldintzen arabera tasatutako etxeek zozketatuta egon beharko dutela 2010eko iraila baino lehen eta babestutakoak, berriz, 2011ko martxorako.

**IZENEMATEA, LASTER**

Babes ofizialeko zein tasatutako etxeetarako izenemate epea oraindik itxita dago, baina Barruso alkateak zehaztu zuen ahalik eta azkarren zehaztu gura dituztela epeok. Kontuan hartu behar da, dena den, interesatuek Etxebiden izena emanda ere egon behar dutela.



Udal idazkaria, Agurne Barruso alkatea eta Bittor Alberdi enpresa sustatzaileko ordezkaria hitzarmena sinatzen. M.B.

Zapatuko mozorro onenak saria jasoko du aurten ere Bedelkarren eskutik

**JAIAK** > INAUTERIAK

# Inauterietan mozorrotzeko gonbita egiten die Udalak herritar, tabernari eta dendariei

**M.B.** > BERGARA

Udalak Inauteriak alaitzeko ahaleginean dihardu azken urteotan eta, horren haritik, herritar, tabernari eta dendariei gonbita egin nahi die mozorrotzeko.

Mozorroa luzitzeko aukera ere emango die herritarrei: Inauteri-zapaturako mozorro kalejira antolatu dute. Herriko kaleetan barrena izango da hori, Sugarri txarangaren laguntzarekin. San Martin plazan abiatuko da kalejira hori, 19:30ean, eta Barrenkalea, Irizar, Fraiskozuri, Herri Lagunak, Irala, Kruz Gallastegi eta Bideberrin barrena ibili eta gero, San Martin plazan bukatuko da.

Inauteri-zapatuan saririk ere egongo da; mozorro onenari eta giro hoberena jartzen duen talde edo banakoari saria emango dio Bedelkar elkarteak: 200 euro herriko taberna eta jatetxeetan gastatzeko.

Bestalde, zapatuko mozorro afarirako txartelak otsailaren 7ra arte eskura daitezke, Pol-Pol, Ariznoa eta Kortazar tabernetan eta kultura etxean. Prezioa da 15 euro.

## Miguel Altunako irakasleak Porton egon dira

Miguel Altunako zenbait irakasle eta zentroko zuzendari Iñaki Larrañaga Porton (Portugal) izan dira. Hango Lanbide Heziketaren hezkuntza sistema ezagutzera joan dira. Bestalde, bertatik bertara ikusi nahi izan dute Portugaleko ikasleek enpresetako praktiketan jasotako ezagutzak duen errekonozimendu sistema eta Bergarakoek han praktikak egiteko aukera.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

## oharrak

SANTA AGEDA

**> Eguenean Santa Ageda eskean aterako dira San Martinen**

15:00-16:15 ordutegian ibiliko dira irakasle eta ikasleak herriko kaleetan barrena. Bestalde, egubakoitzean, eskolako jaia ospatuko dute eta hainbat ekitaldi izango dituzte 16:30ean hasita.

SANTA AGEDA

**> Otsailaren 5ean abestera irteteko dei egin du Aranzadik**

Santa Ageda bezperan eskolako irakasle eta gurasoekin batera abestera ateratzeko dei egin du. 19:00etan abiatuko dira. Azken entsegua bihar egingo dute, 19:00etan.

BATZARRA

**> Pertxa elkarteak urteko batzarra egingo du hilaren 6an**

Pertxa elkarteak urteko batzarra deitu duela jakinarazi nahi die bazkideei. Hilaren 6an izango da; 18:00etan da lehen deialdia eta 18:30ean bigarrena.

IRTEERA

**> San Joxepek Kutxaespaziora irteera antolatu du**

Irteera izango da martxoaren 3an, 09:00etan, autobus geltokitik abiatuta. Izenematea zabalik dago elkartearen bulegoan 11:30-12:30 eta 17:30-18:30 ordutegian.

**ONGIZATEA** > NAGUSILAN

# Mizpirualdek eta Nagusilanek elkarlanean jarraituko dute

Bergaran 13 boluntariok egin dute bat egitasmoarekin azkenaldian

Beste urtebete elkarlanean jarraituko dute Nagusilanek eta Bergarako Udalak



Jose Luis Elosua Nagusilaneko presidentea eta Agurne Barruso alkatea hitzarmena sinatzen, atzean boluntarioak dituztela. E.M.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bakardade edo isolamendu-arazoak dituen adineko jendeari laguntza eskaintzea da Nagusilan elkartearen asmoa. Bergaran lau urte daramatza lanean eta azkenaldian 13 boluntariok egin dute bat egitasmoarekin. Zerbitzu profesionalak ordezkatu gabe, borondatez, solidaritate moduan eskaintzen dute laguntza. Gipuzkoan 28 herritan dihardu lanean Nagusilanek, 800 boluntarioren laguntzarekin. Dagoeneko 15 urte bete ditu Nagusilanek aipatutako zerbitzua eskaintzen.

Bergarako kasuan, orain dela lau urte jarri zuten abian eta Cristina Buitzer holandarra da zerbitzuko koordinatzailea. Egun, esan bezala, 13 boluntario ari dira Bergaran Nagusilanekin lanean; erretiratutako emakumezkoak dira gehienak, eta pare bat gizon ere badabiltza boluntario. Mizpirualdeko Alazne Irazabalek guztien lana nabarmendu zuen egubakoitzeko ekitaldian. Mizpirualde egoitzan ez ezik, etxez etxeko laguntza ere eskaintzen dute bergarar boluntarioek. Beste urtebete elkarlanean jarraituko dute Nagusilanek eta Bergarako Udalak.

Jose Luis Elosua Nagusilaneko presidenteak hau azpimarratu zuen: "Laguntza, konpainia jasotzeko beharrean egon eta bakarrik bizi direnengana gero eta gehiago iritsi nahiko genuke. Eta garbi laga nahi dugu ez diogula inori lanposturik kentzen. Laguntasuna da boluntarioek eskaintzen dutena, ez besterik". Besteak beste, solasaldiak, irakurketak, paseoak eta holakoak egiten dituzte boluntarioek Mizpirualdeko egoiliarrekin eta etxean bakarrik bizi diren adinekoekin.

**BOLUNTARIOREN BEHARRA**

Nagusilaneko ordezkarien arabera, Bergarako kasuan 30 boluntarioz osatutako taldetxoa osatzea da helburua. Interesatuek Mizpirualdera jo besterik ez dute izena emateko eta zerbitzuaren nondik norakoak ezagutzeko.

Era berean, adinekoendako doaneko telefono arreta zerbitzua eskaintzen du Nagusilanek ondoko telefonoan: 900 71 37 71.

**ZINEMA**

## Otsailean, hiru emanaldi zine-klubean

Txaparen urteurrena ospatzeko, 'Radio encubierta' filma, eguenean Zabalotegin

**E.M.** > BERGARA

Zine-klubeko programazioarekin jarraituz, Udaleko kultura zerbitzuak hiru emanaldi iragarri ditu otsailerako. Eguenean, otsailaren 4an, *Radio encubierta* filma eskainiko dute Zabalotegiko aretoan, 20:00etan. Txapa Irratiaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako emanaldia da eguenekoa. *Radio encubierta* (*The boat that rocked*) Richard Curtisek iaz filmatutako komedia da eta Philip Seymour Hoffman, Bill Nighy, Kenneth Branagh eta Emma Thompson aktoreak dira protagonisten artean. 1960ko hamarkadako Ingalaterran girotuta dago eta orduko musikak protagonismo berezia du, bi irrati-esatariren gorabeherak direla-eta.

Hurrengo astean, hilaren 11n, *Le grand voyage* (Ismäel Ferroukhi, 2004) emango dute eta otsaileko azken zine-klubeko emanaldia hilaren 18koa izango da; Elia Kazanek zuzendu eta Marlon Brandonek protagonizatutako *La ley del silencio* (1954) eskainiko dute. Kazanen filmak zortzi Oscar eskuratu zituen.



NAGORE NARBAIZA

## 'Bergara ezagutzen' lehiaketako irabazleak

Ipintza institutuko, Mariaren Lagundiko eta Aranzadi ikastolako DBHko 4. mailako ikasleek *Bergara ezagutzen* lehiaketa izan zuten aurreko astean. Besteak beste, Bergarako historia, kultura, ondare, kirol eta euskararen gaineko galderak eta bestelako probak izan zituzten hiru jardunalditan. Hiru ikastetxeetako ikasleek elkarrekin, talde berean, jardun zuten eta antolatzaileek oso balorazio ona egin dute. Goian, talde irabazlea. Sari gisa Valdezcarayra eskiatzera joango dira datorren otsailaren 20an.



U.M.

## Asteburuan estreinatu dute aparkalekua

Aurrerantzean, Bergarako erdigunean errazagoa izango da automobila ondo aparkatuta lagatzea, zabaldu dituzte-eta, Bideberri kalean egokitu dituzten aparkaleku berriak. Zapatu goizerako erabilgarri zeuden eta goizeko lehen ordurako leku gehienak okupatuta. Argi dago askok eskertuko dutela aparkatzeko gune berria izatea.

**AZPIEGITURAK** > LANAK

# Lazarragako bidegorriko lanak egiteko deialdia

Enpresek otsailaren 15era arte aurkez ditzakete proposamenak udal bulegoetan; gehienezko aurrekontua ia 289.000 euro da

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Lazarraga kaleko bidegorria egiteko lanak egingo ditu Udalak. Deialdia Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zen urtarrilaren 25ean, eta orain, eskaerak aurkezteko epea zabaldu dute. Lanak egiteko interesa duten enpresek otsailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute euren eskaera udal bulegoetan astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara arte.

Lazarraga kaleko iparraldeko espaloiko lanak hiru hilabetean egin beharko dituzte, eta Udalak onartuko duen gehienezko aurrekontua 288.061 euro da.

**OLAKUA AUZOKO ZATIA**

Olakua auzoko bidegorriko lehen zatia orain dela aste batzuk bukatu zuten. Hain zuzen ere, Bidaurretako biribilgunetik ahateen urmaelaren parean dagoen autobus geltokirainoko bidegorria egin zuen Construcciones Ugarte enpresak. Legazpi alderako noranzkoan eskuineko bidegorria egin dute. Aurrerago egingo dute ezkerraldekoa.

Olakua auzoko bi bidegorriak Urrutxuko kirolgunetik hasita Ugarkalden bukatuko den ardatz nagusiko tramuetako bi izango dira.

**BI ADAR NAGUSI ETA SEI BIDE-ADAR**

Ander Irazustak egindako proiektuak 3,8 kilometroko bi adar nagusi (Kurtzekua-Berezao eta Urrutxu-Ugarkalde) eta sei bide-adar egitea aurreikusten du. Lehen adar nagusiak Kale Zaharra eta Bidebarrieta zeharkatuko du, eta Elorregitik Oñatira Foru Aldundiak egingo duen bidegorriarekin bat egingo du. Bigarren adar nagusiak Urrutxun eraikiko den kirolgunetik abiatuta, Unibertsitate etorbidea, Portu kalea, Santa Marina, Euskadi etorbidea eta Lazarraga kalea zeharkatuko ditu.

Bestalde, bi adar nagusiekin bat egingo duten sei bidegorri motzago ere aurreikusi ditu Irazustak; hain zuzen ere, Kalegoiena-Aita Lizarralde; Atzeko kalea-Kalebarria-Lazarraga; Zubibarri-Irizar-Gerriko kantoia; Patrue kalea-Arantzazuko Ama; Lizaur-Zubikoa; eta Errekalde. Guztira, hiru kilometro osatuko dute sei bide-adarrek.




Legazpiko noranzkoan eskuinetik egin dute bidegorria Olakuan. M.B.

## oharrak

DEIALDIA

**> Hitzaldia Elkar Hezi ikastetxean**

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak hitzaldia antolatu du hilaren 4rako.

Eguenean, *Nola finkatu oinarrizko ohiturak* delako hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak 0-7 urte arteko haurren gurasoendako. Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikinean izango da 18:30ean.

DEIALDIA

**> Ikastolan Haitirako materiala batzen dihardute**

Txantxiku ikastolan Haitiko lurrikaran kaltetutakoendako materiala batuko dute egubakoitzera arte. Besteak beste, pasta, azukrea, arroza, lekaleak, olioa, analgesikoak, antibiotikoak, bendak, eskularruak, toallak, izarak, mantak eta udako arropak batuko dituzte.

> DEIALDIA

### Elikagaien erabiltzaile izateko ikastaroak

Arrisku handiko eta txikiko elikagaien erabiltzaile izateko ikastaroak egingo ditu Elkolabek otsailean. Interesatuek 943 53 33 03 zenbakira dei dezakete izena emateko.

Hilaren 9an arrisku txikiko erabiltzaileendako ikastaroa egingo dute 14:00etatik 17:00etara. Bestalde, hilaren 16an eta 17an, arrisku handiko elikagaiena egingo dute 16:00etatik 19:00etara.




GOIENKARIA

## Euskal presoen aldeko elkarretaratzea

Herriko Gazte Batzarrak deituta elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean Foru plazan. Hainbat lagun bildu ziren euskal presoei elkartasuna adierazteko eta haien eskubide zibil eta politikoak errespeta daitezela eskatzeko. Euskal presoek eta euren senitartekoek kartzeletan bizi duten egoera bukatzeko asmoz, hil bakoitzeko azken egubakoitzean elkarretaratzea egingo dute, 19:30ean. Hil bakoitzean herriko talde edo eragile batek egingo du deialdia.

**HEZKUNTZA** > ESKAINTZA

# Larrañan langileendako eta langabeendako ikastaroak

Izenak 943 78 21 50 zenbakian eman daitezke, 09:00etatik 21:00etara

**M.B.** > OÑATI

Zuazola-Larraña institutuak langileendako eta langabeendako ikastaroak egingo ditu otsailean hasi eta ekainera arte. Ikastarook %100 diruz lagundutakoak dira.

Dagoeneko zabalik dute izenemate epea Larrañako Lanbide Heziketa egoitzan. Interesatuek 943 78 21 50 telefonora dei dezakete 09:00etatik 21:00etara, astelehenetik egubakoitzera.

**IRAUPEN ASKOTARIKOAK**

Langileendako ikastaroak 16 eta 80 ordu artekoak dira, eta bost ataletan banatzen dira: mekanizazioaren gaineko ikastaroak; mantenua eta muntaia elektromekanikoa; diseinua; soldadura; informatika; eta energia berriztagarriak.

Aldiz, langabeendako bi ikastaro aurreikusten dituzte: martxotik ekainera arte 405 ordutan emango duten *Arku elektriko bidezko soldadura* delako ikastaroa; eta 475 ordutan ekainetik abendura emango duten *Mig-mag soldadura* ikastaroa.

**400 ORDUKO PRAKTIKAK**

Bestalde, erdi mailako hiru heziketa ziklo eskaintzen dituzte. Zikloak bukatu ondoren, gaiarekin zerikusia duten enpresetan 400 orduko praktikak egin ahalko dituzte ikasle guztiek.

**ESKORIATZA** > KULTURA

# Eguenean estreinatuko dute otsaileko egitaraua Santa Ageda bezperarekin

## Egubakoitzean Sorkun bakarlari gipuzkoarrak kontzertua eskainiko du Inkernu tabernan, 23:00etan; horretarako sarrera debalde izango da

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Udalak otsaileko kultura egitaraua ezagutarazi du. Ekimenak eguenean hasiko dira, Santa Ageda bezperarekin. Urtero moduan, aurten 18 urte beteko dituzten neska-mutilak baserriz baserri ibiliko dira Santa Ageda eguneko koplak abesten. Egubakoitzean, berriz, egun guztia emango dute herriko kaleetan koplak abesten eta 19:00etan Santa Ageda neska-mutilek batera egingo dute dantza, plazan. Domekan dantzaldia egingo dute berriro toki eta ordu berean.

Santa Ageda egunean, gainera, musika emanaldi bikaina egongo da Inkernu tabernan: Sorkunek kontzertua eskainiko du, 23:00etan. Ez da Aitzorrotz kultura elkarteak hilabete honetarako antolatu duen ekimen bakarra. Otsailaren 26an, Uek eta Zain taldeak izango dira Inkernuko agertokira igoko direnak. Kontzertu horiek ere 23:00etan hasiko dira.



2008an kintoek herriko plazan egin zuten dantza saioaren unetxoa jaso du argazkiak. ESKORIATZAKO UDALA

**ARATUSTEEI HASIERA**

Tradizioari eutsiz, otsailaren 11n egingo den Urdelardero egunarekin hasiko dituzte Aratusteak eskoriatzarrek. Goizean Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako umeak kalez kale ibiliko dira kantuan, baserritar jantzita; eta kalejira amaitzean, 11:30ean, txistorra goxoa izango dute gertu plazan. Arratsaldean, 17:00etan, Hipo eta Tomax pailazoen ikuskizuna izango dute neska-mutikoek kiroldegian. Urdelardero eguna behar bezala amaitzeko, 18:30ean, txokolate jana izango da herriko plazan. Antolatzaileek gogorarazi dute, horren harira, nork bere edalontzia eraman beharko duela, txokolatea hartu nahi badu.

Aratuste-zapaturako ere egitarau potoloa gertatu dute. Besteak beste, Egan taldearen dantzaldia, trikitilariak, herri bazkaria, Gorriti eta bere animaliak eta mozorroen desfilea izango dira. Joan den urteko emaitza ikusita, aurten, bigarrenez, mozorro lehiaketa egitea erabaki du Udalak. Martitzenean, berriro, umeen ekimenen txanda izango da: jaialdia herriko plazan, Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizuna eta Kukumarroen irteera, hain justu ere.

**ERAKUSKETA**

Bestalde, Ibarraundi museoak beste erakusketa bat hartuko du. Jaurlaritzaren *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* erakusketa ibiltaria egongo da, otsailaren 17tik 21era. *Natura 2000 sarea* proiektua gurean nola garatzen den azaltzea du helburu. Gainera, Leire Betetak gai horren gaineko hitzaldia eskainiko du hilaren 18an, 19:00etan, Ibarraundin.

**BERTSO AFARIA ETA ANTZERKIA**

Bertsoek ere tartea izango dute: otsailaren 20an, bertso afaria izango da Apotzagako San Migel jatetxean, 21:00etan. Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga izango dira han. Hilaren 26an, azkenik, Lakrikun antzerki taldeak umorezko komedia berria aurkeztuko du unibertsitatean: *Prest gaude*. 22:30ean izango da hori.

Aipatutako hitzordu horietaz gain, hilero moduan, kirol hitzorduak eta gaztelekuan zein ludotekan hainbat ekimen ere izango dira.

**ARETXABALETA** > HISTORIA

# Frankismo garaiko esklabotza, Arkupen

## Gaurtik otsailaren 28ra, Eusko Ikaskuntzaren erakusketa ikusi ahalko dute aretxabaletarrek

## Osagarri moduan, Edurne Beaumontek ikus-entzunezkoa eskainiko du egubakoitzean



Presoak Erronkariko bailaran, 1941eko apirilean. JULIAN GURTUBAI

**M.B.** > ARETXABALETA

Eduki historikoa duen erakusketa zabalduko dute gaur, Aretxabaletako Arkupen: *Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak Mendebaldeko Pirinioetan*. Otsailaren 28ra arte bisitatu ahalko da, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan goizeko ordutegian.

Aretxabaletako Udalaren laguntzarekin Eusko Ikaskuntzak, Memoriaren Bideak eta Ustaritzeko Geronimo Institutuak antolatutako erakusketak mendebaleko Pirinioetan diktadura frankistako presoek egindako bortxazko obra publikoak (lantegiak, errepideak, trenbide sareak eta obra hidraulikoak, besteak beste) jasotzen ditu.

**16 PANEL**

Hain zuzen, 16 panelen bidez esklabotza sarea nola eratu zen eta azpiegitura horiek nola eraiki ziren azaltzen da. Aldi berean, lan horiek presoen familiengan, Pirinioetako herrietan eta memoria kolektiboan izandako eragina agerian gelditzen da. Erakusketan, azalpen laburrak eta protagonisten ahotsak garaiko argazkiekin tartekatzen dira, baita Avila eta Guadalajarako artxibategi historiko militarretan topatutako planoekin eta dokumentazioarekin ere. Ekimen horren helburua da denbora luzean isilpean egon den historiaren errealitate bat ezagutaraztea.

**IKUS-ENTZUNEZKOA**

Erakusketaren osagarri moduan, frankismoaren gaineko ikus-entzunezkoa ere ipiniko dute Arkupen. Egubakoitzean, hilak 5, Edurne Beaumontek *Frankoren esklaboak* izenekoa eskainiko du, 19:00etan, Zaraia aretoan. Horretarako sarrera debalde izango da.

**oharrak**

ARETXABALETA

**> San Blas eguna ospatuko dute etzi Apotzagaetxebarrin**

Etzi, otsailaren 3an, San Blas eguna ospatuko dute Apotzagaetxebarri auzoko Sailuente ermitan. Herritarrek eta ikastetxeetako umeek ohitura dute jakiak bedeinkatzera joatea. Meza 10:30ean hasiko da, Sailuente baselizan.

ARETXABALETA

**> Santa Agedan 1981eko kintoak aterako dira aurten**

Aretxabaletan ere Santa Ageda eguna ospatzen dute. Eguenean hasiko dira 1981ean jaiotako neska-mutilak baserrietan kantuan eta dirua eta jakiak batzen. Egubakoitzean kalean kantuan ibili ostean, 19:00etan dantza egingo dute plazan. Ohiturari jarraituz, Santa Ageda egunetik Aratuste-domekara (otsailak 14) bitarteko domeka guztietan Santa Ageda dantzak eskainiko dituzte, esandako toki berean.




Iturrizuri kalea, herriko irteeretako bat. JONE INUNTZIAGA

**ARAMAIO** > HIRIGINTZA

# Iturrizuri kalean 22 aparkaleku egingo dira

Aparkaleku faltaren arazoa konpondu nahi du Udalak; bide batez, kalea urbanizatu egingo dute

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Orain dela gutxira arte ez zen erraza Aramaioko erdigunean autoa aparkatzea. Hori horrela, jende gehienak herriko plazan uzten zuen autoa eta, askotan, Bizente Goikoetxea plaza herriguneko aparkaleku bilakatzen zen. Udaleko ordezkariek beti esan izan dute herriko plaza auto barik ikusi nahi zutela; herritarren aisialdirako gune bat izan behar zuela aparkaleku bat beharrean. Arazoari irtenbidea eman nahian, orain dela hilabete batzuk Osteta kalean behin-behineko aparkalekua eraiki zuen Udalak. Eremu horretan etxebizitzak eraikiko dira, baina hori gertatu bitartean espazio hori aprobetxatu nahi izan dute aparkalekuaren arazoa konpontzeko. Horrek, bada, auto asko kendu ditu herriko plazatik.

Orain, baina, beste urrats bat egin dute eta herriaren sarreran aparkaleku gehiago egitea erabaki du Udalak: Iturrizuri kalean, hain justu ere. Joan den eguaztenean egindako osoko bilkuran proiektuaren behin-behineko esleipena egin zuten. 22 aparkaleku egingo dituzte eta, bide batez, lanok aprobetxatuko dituzte kalea urbanizatzeko: kalea pabimentatuko dute, isurbide berriak egin eta farolak ipiniko dituzte.

**JOLASPARKEA**

Iturrizuriko aparkalekuena, baina, ez zen izan joan den eguazteneko osoko bilkuran esleitutako proiektu bakarra. Udalak Aramaioko jolasparkea eraberritzeari ekin zion orain dela hilabete batzuk. Lurzorua konpondu eta egokitu ostean, orain, ziburuak ipintzea falta da. Hiri-altzarien hornidura eguaztenean esleitu zuten eta orain, altzariok ipintzea bakarrik falta da.

**ANTZUOLA** > OSPAKIZUNAK

## Katarro eta eztarriko gaitzen zaindariaren eguna etzi, eta eguenean Santa Ageda eskea

Aiherrara abesbatzarekin abestera joan gura duenak entsegua izango du etzi, eguaztena, 20:00etan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Eguaztenean da San Blas eguna. Katarro eta eztarriko gaitzen zaindaria dela esaten da. Antzuolan, Basalden ospatzen dituzte San Blas jaiak. Eguaztenean beharrean, baina, zapatuan ospatuko dute Basalden jaia. Hain zuzen, otsailaren 6an 12:00etan meza izango dute. Han, San Blas opilak bedeinkatzeko aukera egongo da; ondoren, salda eta txorizoa egongo da guztiendako.

**SANTA AGEDA ESKEA**

Eguenean, otsailaren 4an, Santa eskea egingo dute. Goizeko seietan kintoak ibiliko dira kantuan eta 18:30ean abesbatzakoak. Gainera, abesbatzakoek, Anelkarrekin elkarlanean, Santa eskean batuko duten dirua Haitira bideratuko dutela esan behar da. Herriak Elkarlanean taldearekin egingo dute lan Anelkar eta abesbatzak dirua Haitira eramateko.

**AIHERRAN ABESTEKO ENTSEGUA**

Bestalde, otsailaren 6an Aiherrara abesbatzarekin abestera joan gura duenak eguaztenean entsegua egiteko aukera izango du. Entsegua udaletxean izango da, etzi, 20:00etan.

**ELGETA** > ZABORRA

## Beira da gaika iaz Elgetan gehien birziklatu zen gaia

Herriko 'iglu' berdeetan 42.321 kilo beira jaso ziren; paperaren eta kartoiaren edukiontzi urdinetan, berriz, 29.955 kilo batu ziren

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, gaikako zabor bilketan beira da iaz Elgetan gehien batu zen gaia: 42.321 kilo, hain zuzen ere.

Hurrengo lekuan, papera eta kartoia daude: 29.955 kilo. Ontzi arinen edukiontzi horiei dagokienez, berriz, 10.935 kilo zabor batu ziren, eta arropen edukiontzi zurietan, bestalde, 4.648 kilo.

**PUNTU BERDE MUGIKORRA**

Hamabostean behin herriko plazara etortzen den Puntu Berde Mugikorrean 1.009 litro olio jaso ziren, etxean erabilitako olioa. Pilak (646), motorren olioak (87), etxetresna elektriko txikiak (65), fluoreszenteak eta bonbillak (52) eta aerosol ontziak (44) ere ondo batu ziren.

Aurten, 27 egunean egongo da gune hori herrian. Erabiltzeko eskaera egin dute.



Barikuan herriko plazan izan zen Puntu Berde Mugikorra. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > HONDAKINAK

## 27.500 kilo beira eta 12.600 kilo paper jaso zituzten iaz

Baita ia 3.500 kilo arropa, 3.000 ontzi eta plastiko eta 585 litro olio ere

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Debagoieneko Mankomunitateak herriz herri jasotako hondakinak zenbatzen ditu urtero. Zaborrari dagokion iazko daturik oraindik ez du zehaztu, baina gainerako bilketei dagokienez Gatzagan zenbat jaso duten jakinarazi du.

Edukiontzi berdera botatako beira izan zen kilotan gehien jasotakoa, eta haren atzetik geratu da papera. Arroparen edukiontzira ere gero eta gehiago botatzen dute gatzagarrek, eta ia 3.500 kilo jaso ditutze. Eta hilabetean bi bider etortzen den Puntu Berde Mugikorra ere gero eta herritar gehiagok erabiltzen dutela diote iaz jasotako datuek.

### Iaz jasotakoak:

**ARROPAK**
Edukiontzi zuria
> 3.449 kilo.

**PAPERA/KARTOIA**
Edukiontzi urdina
> 12.607 kilo.

**ONTZIAK**
Edukiontzi horia
> 2.933 kilo.

**BEIRA**
Edukiontzi berdea
> 27.575 kilo.

**PUNTU BERDE MUGIKORRA**
Etxeko olioa
> 585 litro.
Pilak
> 71 unitate.
Pinturak
> 15 pote.
Toner kartutxoak
> 10 unitate.
Erradiografiak
> 26 unitate.
Etxetresna elektriko txikiak
> 4 unitate.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Mondrak eta Aloñak irabazi egin zuten, eta Bergarak galdu > 23



**> ESKUBALOIA**
Ford Mugarrik Barakaldo menderatu zuen atzo, Iturripen > 24



**> ELKARRIZKETA**
Lagunak-Saltoki taldera salto egin duen Beñat Arnaizekin egon gara > 27



Abadiño eta Sokarri taldeak lehian, Aramaioko kiroldegian elkartu zirenen begiradapean. JOSETXO ARANTZABAL



Badaiotz (Araba) taldeko neskak txapela buruan, bigarren eta hirugarren sailkatuekin. JOSETXO ARANTZABAL



Abadiño erraz gailendu zitzaien Amaiur eta Ñapurrak taldeei. JOSETXO ARANTZABAL

# 600 kilokoan Abadiño A garaile, Badaiotz 540 kiloko kategorian

**MAILA ALTUA**

Ez zen ezustekorik izan zapatuan Aramaion jokatu zen finalean

**MIREN ARREGI** > ARAMAIO

Erraz gailendu ziren Aramaion Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako 600 eta 540 kiloko txapelen jabe egin ziren bi taldeak; gizonezkoen 600 kilokoan Abadiño A taldea nagusitu zen eta emakumezkoen 540 kiloko kategorian, berriz, Badaiotz.

Ez zen ezustekorik izan Aramaion, izan ere, final aurreko sailkapen ligaxkan, gizonezkoetan, Abadiño A-k batu zuen puntu gehien eta nagusitasun horri aise eutsi zion zapatuko norgehiagokan. Eta ez zen ezustekorik izan, ezta ere, gizonezkoen kategoriako bigarren eta hirugarren postuekin: Amaiur talde nafarrak bigarren postua eskuratu zuen, hirugarrena, berriz, Iparraldeko Ñapurrak taldeak. Ezpeletakoek, nabarmen hobetu zuten iaz egindako lana; hain justu, iazko txapelketan bosgarren postuan sailkatu ziren-eta.

Bestalde, Berriozar, Abadiño B eta Sokarri sokatira taldeak gelditu ziren laugarren, bosgarren eta seigarren postuetan, hurrenez hurren. Horien arteko lehia ere polita izan zen, nahiz eta ez zen lehen postuetan gelditu ziren taldeen mailara iritsi.

"Maila handiko taldeak daude. Topean daude eta hori taldeek egiten duten lan itzelaren emaitza da" esan zigun Pedro Alkortak, Euskadiko Herri Kirolen Federazioko Lehendakariak: "Ezustekorik ezean, 600kiloko gizonezkoen kategorian Abadiño A taldeak eskuratuko du txapela; Gasteizko Badaiotzek, berriz, 540 kiloko emakumezkoen kategorian". Hala izan zen, gainera.

**540 KILOKOAN BADAIOTZ GARAILE**

Emakumezkoen kategorian bost talde aritu ziren nor baino nor: Badaiotz (Gasteiz), Sakana (Arbizu, Nafarroa), Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa) eta Ibarra (Gipuzkoa). Talde guztiek erakutsi zuten maila ona dutela, baina, Badaiotzek, ez zuen hutsik egin. Hura zen faborito aurretik jokatutako bi jardunaldiak samur irabazita, eta zapatuan ere, jokatutako bederatzi tiraldiak irabazi zituen.

**ARAMAIO SOKATIRAREN HIRIBURU**

Eguraldi traketsa zegoen ibar guztian legez, Aramaion zapatuan. Euskadiko Goma Gaineko Sokatira finala, baina, ez da egunero jokatzen, eta herritar asko batu zen kiroldegian sokatira talde onenak ikusteko.

Iaz ere saiatu zen Udala Goma Gaineko Sokatira finala Aramaiora ekartzen, baina ez zen aukerarik egon. Hain justu, iaz bete ziren 30 urte, Aramaioko sokatira taldea Suitzako olinpiadetan egon zela, eta hori ospatzeko gura izan zuten finala Aramaion jokatu. Iaz ezin izan zen, aurten bai ordea.

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

# Talde sendoa duela erakutsiz, Reala Aretxabaleta baino gehiago izan zen

Donostiarrek hainbat gol aukera egin zituzten, eta horietako bi aprobetxatu zituzten

UDA bukaerara arte ahalegindu zen, baina ez zuen berdinketarako aukera garbirik egin

UDA
**0-2**
REALA

**UDA** > Eden, Raul, Gorka, Iban, Kerman, Aritz, Julen, Ander (Gillen, 72. min.), Oinatz (Imanol, 67. min.), Akaitz, eta Aitor (Iker, 60. min.).

**Reala** > Mandaluniz, Plaza, Morgado, Errasati, Gaztañaga, Cadamuro, Eizmendi (Iparragirre, 85. min.), Illarramendi (Pardo, 89. min.), Orbegozo, Albistegi eta Eneko (Ozkodi, 74. min.).

**Epailea** > Sansuan jaunak zuzendu zuen partidua, Loran eta Estebanez marrazainen laguntzarekin. Hainbat txartel erakutsi zituen, gehienak etxeko jokalarien alde. Ondorioz, zaleak eta ordezko jokalariak asko haserretu ziren. Realaren alde hartutako zenbait erabakirengatik zaleen ohiuak eta protestak entzun zituen.

**Bestelakoak** > Ohiko ikusleak Ibarran. Euriari aurre eginez, gehienak harmailetan kokatu ziren. Zelaiaren bueltan gutxi batzuk egon ziren aterkiarekin estalita.

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

Bosgarren jardunaldian Realak emandako errepasoa ahazteko asmoz irten ziren zelaira Aretxabaletako jokalariak atzo. Orduan, Reala Hirugarren Mailako liderra zen eta sei gol egin zizkion UDAri; eta aretxabaletarrek errebantxa gura zuten. Baina, asmoak asmoetan geratu ziren. Imanol Idiakezek talde sendoa du, eta ez zion aukera gehiegi eman etxeko taldeari.

Partiduko hasierako 15 minututan indarrak parean egon ziren, bi taldeak zelaian kokatu ziren arte. Orduan, Realak hartu zuen partiduaren kontrola. Lehen ukituan jokatu zuen Realak, eta minutu askotan UDAko jokalariak baloiaren atzetik ibili ziren. Aukerak ere Donostiako taldeak egin zituen, lehen biak Orbegozo aurrelariak.

**GOLA, 22. MINUTUAN**

Reala indartsu zegoen zelai erdian, baloi asko berreskuratuz eta erasoan ondo irteten. Norgehiagoka 22. minutuan apurtu zen; alegia, Realak lehen gola egin zuenean. Albistegik, areaz kanpo, jaurtiketa bortitza egin zuen, eta zutoinaren ondotik ate barrura sartu zen.

Aretxabaletak berdinketa lortzeko ahaleginak egin zituen, baina donostiarrak izan ziren, atsedenaren aurretik, bigarren gola egiteko aukerak izan zituztenak: Eizmendik bi izan zituen eta Enekok beste bat.

**BERDINKETA EGITEKO AUKERAK**

Bigarren zatian beste itxura bat erakutsi zuen UDAk. Berdinketa lortzea zuten helburu, eta Realaren atera iristeko bide errazenak topatzen ahalegindu ziren. 56. minutuan Akaitzen errematea kornerrera bidali zuen defentsak. Lau minutu beranduago Akaitzek berak egindako falta jaurtiketa defentsak urrundu zuen. 74. minutuan korner erdiraketa baten ondorioz, baloia hilda geratu zen Realaren arean, baina Gorkak ez zuen asmatu atezainaren aurrean.

Punturen bat lortzeko Aretxabaletak zituen aukera apurrak bertan behera geratu ziren donostiarren bigarren golarekin. Illarramendik gol bikaina egin zuen.



Aretxabaletako jokalari Aitor Azpiazu baloia kontrolatu guran Realeko Cadamuro begira duela. JOSETXO ARANTZABAL

**Gillen Mar Barrutia** > UDAko jokalaria

## "Debuta egiteagatik gustura nago, baina oso nekatuta"

**M.B.** > ARETXABALETA

**Gillen Mar Barrutia gazte mailako taldeko jokalaria da, baina atzo Hirugarren Mailako taldearekin debuta egin zuen. Harekin berba egin genuen partiduaren bukaeran.**

**Nola ikusi duzu partidua?**

Bagenekien partidu zaila izango zela. Realaren kontra jokatzea oso zaila da. Ondo menderatzen dute baloia eta lehen ukituan jokatzen dute. Baina ahalegindu gara, nahiz eta punturik ez lortu.

**Lehia berdintzeko gauza zinetela uste zenuten?**

Atsedenean gol bakarreko desabantaila genuen, eta berdintzeko aukera genuela esango nuke. Baina, ez ditugu aukera garbiak sortu, eta area ingurura heldu garenean ez dugu asmatu. Gero eurek egin dute bigarrena, eta partidua erabakita utzi dute.

**Gazte mailako jokalaria zara, eta lehen aldiz sartu zara talde nagusiko deialdian. Gainera, debuta egin duzu. Gustura zaude?**

Egia esan bai. Gustura nago, baina oso nekatuta.

**Alde handia dago gazte mailatik Hirugarren Mailara?**

Bai. Hirugarren Mailan indar handiagoko jokalariak daude, eta oso azkarrak, abiadura handikoak. Joko mailan ere aldea dago: gazte mailako jokoa garbiagoa da.



GOIENKARIA

## Gazte mailakoek irabazi, Gasteizen

**Aretxabaletako gazte mailako futbol taldeak irabazi egin zuen atzo 1-2 Aurrera Vitoriaren kontra. Lesioengatik, partiduari aurre egiteko jokalari gutxi zituen UDAk, baina jokatu zutenek maila ona erakutsi zuten.**

**Bosgarren minutuan aurreratu zen UDA Jokinek egindako golari esker, baina atsedenaren aurretik berdinketa egin zuten gasteiztarrek. Bigarren zatian aukera garbiak egin eta bi baloi zutoinera bidali ondoren, UDAren bigarren gola egin zuen Ibaiek.**

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Joko eskasa egin arren, Mondrak hiru gol egin zizkion Real Unioni Mojategin

Jon Murua, Enrike Tena eta Julen Heriz izan ziren arrasatearren golegileak

Futbol zelaian pilatuta zegoen urak asko baldintzatu zuen partiduko jokoa

MONDRA
**3-0**
REAL UNION



Julen Murua baloia kontrolatu guran, futbol zelaian zegoen ur piloari aurre eginez. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

*"Vete y dile al Union que se prepare, que al equipo de Mondra no hay quien le gane..."*, kantuarekin hartu zituzten Peña Barandako gazteek Mondrako jokalariak zelaira irten zirenean. Gogor borrokatuz, eta futbol zelaian pilatuta zegoen urari aurre eginez, Real Union menderatu zuten arrasatearrek. Dena den, egindako jokoari erreparatuta, sari handiegia lortu zuen Mondrak. Iritzi berekoa zen Andoni Azkargorta entrenatzailea: "Beste partidu batzuetan falta izan zaigun zortea aldea izan dugu gaur. Partidu txarra jokatu dugu, baina estrategi jokaldietan asmatu dugu. Agian, justuena, berdinketa litzateke".

Baina, partiduak irabazteko, beharrezkoak dira golak, eta irundarrek ez zuten asmatu Anderren ate aurrean.

**MURUAREN GOLA**

Ez zen erraza jokaldi garbiak egitea Mojategin. Ur asko zegoen zelaian –batez ere, harmailen aldeko hegalean–, eta partiduan zehar ere euri asko egin zuen.

Hasierako minutuetan Real Union kokatu zen hobeto zelaian, eta aukera garbiak ez egin arren, Mondra atzean sartu zuen. Baina, lehen gola arrasatearrek egin zuten 17. minutuan. *Keixi*k jokaldi ederra egin zuen, eta erdiraketa Muruak ate barrura bidali zuen. Zailena eginda, etxekoek hartu zuten partiduaren kontrola. Dena den, irundarrek ez zuten burua jaitsi, eta berdinketaren bila joan ziren. Atsedenaren aurretik ez zuten aukerarik izan, baina bigarren zatiko lehen biak, eurek sortu zituzten; biak ere, areaz kanpotik egindako jaurtiketak izan ziren.

**DEFENTSAKO HUTSETAN, GOLAK**

Aurrean ez zuen asmatu Real Unionek, eta atzean ere ez. Defentsako huts bat aprobetxatuz Tenak gola egin zuen 67. minutuan. Bigarrenarekin erabakita utzi zuten partidua etxekoek.

Azken ordu erdian ezer gutxi egin zuten irundarrek erasoan, baina atzean, beste huts bat egin zuten luzapenean, 92. minutuan: atezainak urrundutako baloiak Herizen bizkarrean jo eta ate barrura sartu zen.

Ez zuten gehiagorako denborarik eduki, epaileak berehala adierazi zuen bukaera. Mondrako jokalariek eta zaleek gogotsu ospatu zuten garaipena. Baita Peña Barandakoek ere: *"Goazen, goazen Mondra; goazen, txapeldun"*, abestu zuten bukaeran.

**BEDERATZIGARREN**

Azken sei jardunaldietan lortutako 13 puntuei esker, sailkapenean bederatzigarren tokian daude arrasatearrak 25 punturekin. Aste bukaeran Beti Gazteren kontra jokatuko dute.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Bigarren partidua jarraian irabazi zuen Aloña Mendik Idiazabalen kontra

Juaristik egin zuen gola, eta oñatiarrek bolada onarekin jarraitzen dute: azken bederatzi puntutik zazpi irabazi dituzte

IDIAZABAL
**0-1**
ALOÑA MENDI

**M.B.** > OÑATI

Emaitzek erakusten dute entrenatzaile aldaketak on egin diola Aloña Mendiri. Pablo Diazen aginduetara jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi (Idiazabalen zapatuan, eta Zarautzen kontra Oñatin) eta bat berdindu du (Ordiziaren kontra). Hortaz, bolada onean daude oñatiarrak, eta sailkapenean gora egin dute.

**GOLA, BIGARREN ZATIAN**

Azkoagainen mailako liderra menderatu ostean, bosgarren tokian dagoen Idiazabalen kontra ondo jokatuta irabazi zuten. Oñatiarrek menderatu zuten norgehiagoka, eta aukera garbiak egin zituzten. Gola, baina, 60. minutura arte ez zuten egin. Korner erdiraketa bikain errematatu zuen Josu Juaristik. Entrenatzailea pozik zegoen emaitzarekin eta jokalariekin: "Lehia borobila jokatu dugu. Oso pozik nago jokalariekin, nire aginduetara daudenetik konpromiso handia dutela erakutsi didate".

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Zarautzek Bergarak baino esperientzia gehiago duela erakutsiz, lehia hoztu zuen

Liderrak, 20. minutuan lehen gola egin ondoren, denbora galdu zuen protestekin eta jokalarien lesioekin

ZARAUTZ
**2-0**
BERGARA

**M.B.** > BERGARA

"Ez dute gu baino gehiago direla erakutsi. Partidua parekatua izan da. Baina, abantaila hartu dutenean, partidua hoztu egin dute, eta denbora galtzen hasi dira. Horretan, behintzat, guk baino esperientzia gehiago dutela erakutsi dute". Halaxe laburtu zigun Bergarako entrenatzaile Manu Diazek zapatuko lehia.

**BEHERAKADA NABARMENA**

Zarauztarrek 20. minutuan egin zuten lehen gola, bergararrek atzeko lerroan egindako hutsa aprobetxatuz. Markagailuan atzetik zirela, aukera batzuk sortu zituzten mahoneroek, baina, azken metroetan ez zuten asmatu. Bigarren zatian, denbora galtzeko asmoz, epailearen erabakiak behin eta berriz protestatu zituen Zarautzek. Luzapenean, Bergarako atezainari txartel gorria erakutsi zioten, eta penaltiz egin zuen bigarren gola liderrak.

> ERREGIONAL PREFERENT.

### Aretxabaletak irabazi egin zuen, eta Antzuolak galdu

Erregional mailako ibarreko bi taldeek emaitza ezberdinak lortu dituzte aste bukaeran. Alde batetik, Aretxabaletak 1-0 menderatu zuen Mutriku taldea Ibarran jokatutako lehian.

Beste alde batetik, Antzuolak etxean 1-2 galdu zuen Zestoarekin.

> EMAKUMEZKOAK

### Igoera faseko bigarren partidua irabazi zuen Mondrak

Mondrako neskek igoera faseko bigarren partidua 5-1 irabazi zuten Lagunak taldearen kontra Mojategin. Partidu parekatua jokatu zuten, baina etxekoak finago ibili ziren ate aurrean. Maitane Roa (hiru gol), Ainhoa Alonso (gol bat), eta Andrea Paredes (gol bat) izan ziren golegileak.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Ford Mugarrik neurria hartu dio Barakaldori eta irabazi egin zuen atzo

Bizkaitarrek ligako bigarren lehia galdu zuten atzo, hori ere arrasatearren kontra

Bi taldeek ikuskizun paregabea eskaini zuten, eta goi mailako eskubaloia jokatu zuten

FORD MUGARRI ARRASATE
**30-28**
BARAKALDO

**Arrasate** > Ekaitz, Asier (1), Xabi (2), Jonan, Aitor (1), Iker (2), Arkaitz, Pello, Jorge, Aitor (12), Nestor (3), Kepa (8), Josu (1) eta Kepa.

**Barakaldo** > Segura, Garcia Ariño, Lucas, Mugertza (2), Alonso (7), Martinez (1), Aurrekoetxea, Uriarte, De la Hoz (2), Alonso, Macias (3), Otegi (9), eta Gartzia (4)..

**Golak bost minuturo** > 1-1, 5-2, 6-7, 8-9, 9-11, 13-12. Atsedena. 16-15, 20-19, 23-21, 25-24, 28-26, 30-28.



Arrasateko jokalari Iker Zubiaurre hegaletik jaurtiketa egiten, Barakaldoko Aurrekoetxea atezainaren aurrean. J.A.

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Ford Mugarri Arrasatek neurria hartu dio Barakaldori, eta, txapelketan bigarrengoz, mendean hartu zuen atzo Iturripen. Biak ala biak, goi mailako taldeak dira, eta ikuskizun paregabea eskaini zuten; baina une erabakigarrienean, urduri jarri ziren bizkaitarrak. Lehia 29 goletara berdintzeko bi jaurtiketek huts egin zuten: lehena Asier atezainak geratu zuen, eta bigarrena balio barik utzi zuen epaileak area marra zapaltzeagatik. Lehiako azken gola, Iturripeko zaleen gozamenerako, arrasatearrek egin zuten.

**INTENTSITATE HANDIKOA**
Hasierako minututik erakutsi zuten bi taldeek sailkapeneko lehen bi tokietan zergatik dauden. Biak ala biak talde indartsuak dira, eta erasoan jaurtitzaile onak dituztenak, bai kanpoko jaurtitzaileak, baita sei metroko jaurtitzaileak ere. Hori horrela, intentsitate handiarekin irten ziren zelaira, eta defentsan lan gogorra egin zuten. Horren adibide, lehen bost minutuetan epaileek lau txartel hori erakutsi izana.

Lehen zatian bi taldeek izan zuten markagailua alde: arrasatearrek hiru goleko errenta izan zuten (5-2), eta bizkaitarrek bi golekoa (8-10 eta 9-11), baina, atsedenera, etxekoak heldu ziren aurretik (13-12).

**BIGARRENA, OSO PAREKATUA**
Lehen zatia parekatua izan bazen, bigarrena parekatuagoa. Bi taldeak jarri ziren markagailuan aurretik gol bakar bategatik. Ford Mugarrik bi goleko tartea zabaldu zuen bederatzigarren (19-17) eta 15. minutuetan (23-21); baina bietan berdindu egin zuten bizkaitarrek.

Hiru goleko tartea ere izan zuten arrasatearrek (28-25, 24. minutuan) lehia erabakita uzteko. Baina Barakaldok asko estu tu zuen, eta berdintzeko zorian egon zen. Azkenean, baina, urduri jarri eta txapelketako bigarren partidua galdu zuten.

**Edu Orgaz** > Entrenatzailea

## "Asko falta da, baina helburua igoera faserako sailkatzea da"

**M.B.** > ARRASATE
**Pozik, oso pozik zeuden partidu bukaeran Ford Mugarriko jokalariak, baita entrenatzailea ere.**

**Zorionak. Partidu ikaragarria jokatu duzue.**
Oso ondo jokatu dugu, eta badirudi neurria hartu diogula Barakaldori. Eurak urduri jartzen dira gurekin jokatzen dutenean.

**Bigarren zaudete sailkapenean, zein da oraingo helburua?**
Igoera faserako sailkatu gura dugu, eta ezinbestean bigarren tokia mantendu behar dugu. Egiarekin eta Askartzarekin lehia estua izango dugu. Hamabost egun barru Egiarekin jokatuko dugu Arrasaten. Erabakigarria izan daiteke.


GOIENKARIA

## Zazpi goleko errenta izan arren, galdu egin zuen Verkol Aloñak

Verkol Aloñako neskek poltsikoan zuten partidua galdu egin zuten Elgoibarren kontra zapatuan. Zazpi goleko errenta izan arren, 19-20 galdu zuten Zubikoan. Joko ona egin zuten, eta partidua menderatu zuten bukatzeko 10 minutu falta ziren arte. Ordura arte fin ibili ziren erasoan eta defentsan. Aipagarria da Aloñako bi atezainek egindako lana. Dena den, 50 minututan egindako lana, pikutara bidali zuten azken hamarretan. Kantxa osoan presioa egin arren, ez ziren gai izan lehia berdintzeko.


JOSETXO ARANTZABAL

> LEHENENGO TERRITO.

## Soraluze BKEk Zarautzen kontra irabazi zuen: 29-33

Soraluze BKE taldeak 29-33 irabazi zuen Zarautzen kontra atzo. Partidu ona jokatu zuten, eta epaileek egindako lan eskasari aurre eginez, bi puntuak eskuratzeko gai izan ziren. Hasieratik jarri ziren aurretik markagailuan mahoneroak. Eurek menderatu zuten partidua, baina sufritu ere egin zuten. "Ez dugu partidua galtzeko arriskua ikusi, baina gogor borrokatu behar izan dugu irabazteko", esan zigun Josetxo Muniategik.

Bergararrek sailkapeneko bigarren tokian jarraitzen dute 20 punturekin.

**SASKIBALOIA** > SERIES COLEGIALES

# Arizmendi Dragons Caja Laboral Baskoniako finalean

Egubakoitzean Marianistas taldearen kontra 61-34 irabazi zuten arrasatearrek; Arizmendi taldeko Jon Altubek partidu borobila jokatu zuen

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Arizmendi Dragons taldeak Caja Laboral Baskoniaren finalerako txartela lortu zuen egubakoitzean. Hain zuzen ere, Marianistas taldea 61-34 menderatu zuten Series Colegiales txapelketan.

Arrasatearrek hasieratik bukaerara kontrolatu zuen norgehiagoka. Lehen tartearen bukaeran hiru puntuko aldea zuten (15-12). Atsedenean zortzi puntuko abantaila zuten, 29-17. Hori horrela, azken bi laurdenetan erabaki zuten lehia. 15 puntuko tartea zabalduko zuten hirugarrenean (39-24), eta 27 puntukoa laugarrenean. Aipagarria da Arizmendi taldeko Jon Altubek egindako lana: 23 puntu egin zituen, lau asistentzia eman zituen eta hiru txapel egin zituen.

Marianistas taldearen kontra jokatu aurretik, Presentacion de Maria erraz menderatu zuten arrasatearrek, 76-44.

Arrasateko mutilak gogotsu daude. Iaz, jokalari berberekin, Madrileko lauko finala jokatu zuten. Dena den, ez da bide erraza izango Estatuko 150 ikastetxetako taldeak lehiatzen dira-eta, Series Colegialesen.

**ARIZMENDI QUEENS**

Mutilekin batera Arizmendiko Queens taldeko neskek ere parte hartu dute txapelketan; baina, lehen partiduan kanporatuta geratu ziren. 37-36 galdu zuten azken segunduan jasotako hiruko jaurtiketa batekin Urkide taldearen kontra.



Arizmendi Dragons taldeko kideak. URTZI AMIANO

> GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Aloña Mendik 20 puntuko tartearekin irabazi zion Ibaizabali

Aurreko aste bukaerako porrota ahaztuta, eta liderraren bisita jaso aurretik, Aloña Mendik jipoi ederra eman zion Ibaizabali (99-79) zapatuan. Lehen tartearen bukaeran 15 puntuko aldea zabaldu zuten (30-15), eta handik aurrera lehia Aloñak menderatu zuen.

> GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Sailkapeneko bigarrenarekin galdu zuen Soraluze BKEk

Soraluze BKEk 86-61 galdu zuen Alde Zaharraren kontra zapatuan. Sailkapenean egoera ezberdinean daude bi taldeak – donostiarrak bigarren tokian daude, eta bergararrak azken aurrekoan –, eta kantxan nabaritu egin zen. Donostiarrek hasieratik kontrolatu zuten lehia.



GOIENKARIA

## Markelen Lagunarteko arropak salgai

Oñatiko Markelen Lagunarteak txirrindulari denboraldirako arropak jarri ditu salgai. Bizikleta gainean ibiltzeko kulot eta txamarrak jarri dituzte guztien eskura. Interesatuek Oñatiko Lizarralde kirolak dendan (Olakua, 16) egin beharko dute eskaera otsailaren 15a baino lehen. Roger etxeko arropak izango dira, eta dendan probatzeko aukera egongo da. Arropak hilabeteko epean entregatuko dituzte.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **47** | 24 |
| 2. **Amorebieta** | **46** | 24 |
| 3. **Cultural** | **41** | 24 |
| 4. **Zamudio** | **40** | 24 |
| 5. **Beasain** | **39** | 24 |
| 6. **Portugalete** | **38** | 24 |
| 7. **Gernika** | **38** | 24 |
| 8. **Elgoibar** | **37** | 24 |
| 9. **Amurrio** | **35** | 24 |
| 10. **Basconia** | **34** | 24 |
| 11. **Zalla** | **31** | 24 |
| 12. **Leioa** | **31** | 24 |
| 13. **Santurtzi** | **30** | 24 |
| 14. **Arenas Getxo** | **29** | 24 |
| 15. **Lagun Onak** | **27** | 24 |
| 16. **Aretxabaleta** | **27** | 24 |
| 17. **Laudio** | **25** | 24 |
| 18. **Eibar B** | **25** | 24 |
| 19. **Retuerto Sport** | **22** | 24 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 24 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Salvatierra-Eibar | 0-1 |
| **Aretxabaleta**-Real Sociedad | 0-2 |
| Leioa-Amorebieta | 1-1 |
| Retuerto-Lagun Onak | 1-1 |
| Amurrio-Arenas | 0-0 |
| Portugalete-Santurtzi | 1-1 |
| Elgoibar-Laudio | 2-0 |
| Zamudio-Zalla | 0-1 |
| Basconia-Gernika | 1-1 |
| Durango-Beasain | 1-0 |

**Hurrengoak**

Eibar-**Aretxabaleta**

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **41** | 20 |
| 2. **Pasajes** | **41** | 19 |
| 3. **Aurrera** | **38** | 20 |
| 4. **Tolosa** | **32** | 19 |
| 5. **Idiazabal** | **32** | 19 |
| 6. **Ordizia** | **30** | 19 |
| 7. **Oiartzun** | **27** | 19 |
| 8. **Trintxerpe** | **25** | 19 |
| 9. **Mondra** | **25** | 19 |
| 10. **Berio** | **25** | 19 |
| 11. **Aloña Mendi** | **24** | 19 |
| 12. **Hernani** | **23** | 19 |
| 13. **Bergara** | **23** | 19 |
| 14. **EHU Vasconia** | **22** | 19 |
| 15. **Hondarribia** | **21** | 20 |
| 16. **Euskalduna** | **19** | 19 |
| 17. **Beti Gazte** | **15** | 19 |
| 18. **Real Union** | **14** | 20 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Euskalduna-Beti Gazte | 2-0 |
| Trintxerpe-Aurrera | 2-1 |
| EHU Vasconia-Berio | 2-2 |
| Idiazabal-**Aloña Mendi** | 0-1 |
| Zarautz-**Bergara** | 2-0 |
| Ordizia-Tolosa | 1-0 |
| Hernai-Hondarribia | 0-0 |
| Oiartzun-Pasaia | 0-0 |
| **Mondra**-Real Union | 3-0 |

**Hurrengoak**

**Aloña Mendi**-Aurrera
**Bergara**-Idiazabal
Beti Gazte-**Mondra**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Aurrera Vitoria-Aretxabaleta | 1-2 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-San Martin | 1-0 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Antzuola-Zestao | 1-2 |
| Aretxabaleta B-Mutriku | 1-0 |
| **LEHEN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Hernani-Mondra | 2-1 |
| Bergara-Kostkas Miren | 2-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA, KOPA** | |
| UDA Arizmendi-Urki | 0-1 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Aloña Mendi-Mondra | 0-3 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA** | |
| Sanse-Aretxabaleta B Arizmendi | 6-1 |
| **GAZTEAK, KOPA** | |
| Eibartarrak-Bergara B | 0-1 |
| Arizmendi-Ikasberri | 0-4 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA** | |
| Bergara-Beasain | 1-2 |
| **OHOREZKO KADETEAK KOPA ETA JAITSIERA** | |
| Billabona-Aloña Mendi | 3-0 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA, IGOERA** | |
| Aloña Mendi-Oiartzun | 0-3 |
| Arrasate-Euskalduna | 4-4 |
| **EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA** | |
| Mondra-Lagun Onak | 5-1 |
| Arizmendi-Allerru | 4-1 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR AUTONOMIKOA** | |
| Aloña Mendi-IIbaizabal | 99-79 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Alde Zaharra-Soraluce BKE | 86-61 |
| Gabi Jatetxea-Aloña Mendi | 71-80 |
| Katu Kale-Soraluze BKE B | 59-38 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Tecnun-Eskoriatza | 48-52 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Lizardi-Aloña Mendi | 65-54 |
| Internacional-Soraluce BKE B | 75-63 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Zarautz-Eskoriatza | 62-35 |
| **KADETE MUTILAK (ERRENDIMEND.)** | |
| Internacional-MU A | 46-85 |
| **KADETEAK NESKAK (PARTAIDETZA)** | |
| Aloña Mendi-Hierros | 28-58 |
| Arizmendi Eskoriatza-Andraitz | 23-19 |
| Colchones ATS-Soraluze BKE | 48-33 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONAK** | |
| Ford Mugarri-Barakaldo | 30-28 |
| **EUSKADIKO TXAP. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña Mendi-Elgoibar | 19-20 |
| **EUSK. GAZTE EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña-Usurbil | 24-27 |
| **EUSK. KADETE EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña-Usurbil | 11-11 |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Amenabar-Soraluce BKE | 29-33 |
| Irungo-Izarraitz Aloña Mendi | 25-29 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Bera-Bera-Kanpanzar | 28-7 |

Harmailatik

**Debagoieneko kirola GOITBn**

Astelehenero 22:15ean.

goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!



ARRASATE

# Euria egin arren, futbolean gogotsu jardun zuten gaztetxoek

**EURI ZAPARRADA** Euria egin zuen goiz osoan Mojategin, eta geure gaztetxoek mela-mela eginda bukatu zuten

**GURASOAK HARMAILETAN** Umeak ez ezik, guraso eta lagunak ere animatu ziren Mojategiko zelaira

**BESTELAKO JARDUERAK** Igeriketa jolasetan, eta saskibaloian eta eskubaloian ere jardun zuten gaztetxoek

NAROA ODRIOZOLA> ARRASATE

Ohikoa den bezala, geure gaztetxoen zapatu goizak Eskola Kirolarentzat izaten dira. Oraingo honetan, Arrasate, Aramaio, Leintz Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztetxoak Arrasateko Mojategiko zelaian elkartu ziren. Gaztetxo gehienek gustuko duten kirola praktikatu zuten oraingo asteburuan: futbola. Eguraldiak ez zuen bat ere lagundu zapatuko saioan, hala ere, Leintz Eskola Kiroleko gaztetxoak ez ziren kikildu eta pozpozik aritu ziren futbolean.

Goizeko 9:15ean hasi zen kirol jarduna eta 11:30ean bukatu. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak elkartu ziren Arrasateko instalazioeetan. Blai eginda bukatu arren, gustura ibili ziren seinale, ilusioa nabarmena zen euren aurpegietan.

Gainera, gurasoak eta lagunak ere Mojategin izan zituzten, animuak ematen.

**HAINBAT KIROL JARDUERA**

Bestalde, Mojategin futbolean jokatzen zuten bitartean, beste gaztetxo askok bestelako jarduera batzuk egin zituzten.

Musakolako kiroldegian LH 1.mailako ikasleek igeriketa jolasak egin zituzten. Toki berean, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak saskibaloian jokatzen ibili ziren.

Horrez gainera, Arrasateko Iturripe kiroldegian, LH 3. eta 4. mailako ikasleek eskubaloi partidak jokatu zituzten.



N.O.

**Gazteluondo.** Josu, Jon, Mikel, Eñaut, Ander, Asier eta Patxi.



N.O.

**Almen 6.** Ainhoa, Ariane, Ane, Maialen, Olaia, Deiane eta Laura.



N.O.

**Arrasateko Herri Eskola 5.** Beñat, Mikel S., Eneko, Ibai, Igor, Aitor, Anje, Liher, Mikel, Aitor eta Edu.



N.O.

**Kurtzebarri Arrasate.** Irantzu, Maialen, Alaitz, Goiuri, Maddi, Maitane, Nerea, Maider, Leire eta Maialen.

ZELA MOZORROTUKO ZARETE ARATUSTEETAN?



**Julen**
Arimazubi

Julenek esan zigunez, oraindik ez daki zela mozorrotuko den Aratusteetan, mozorro asko daude-eta. Futbolaz ere galdetu genion, eta lehen ez zitzaiola gustatzen, baina orain gogoko duela kontatu zuen.



**David, Ander, Daniel eta Txomin**
Arrasate Herri Eskola eta Aramaioko San Martin Herri Eskola

Futbolean hasi baino minutu batzuk lehenago hitz egin genuen David, Ander, Daniel eta Txominekin. Azaldu zigutenez, ez dute pentsatu Aratusteetan zela mozorrotuko diren. Hala ere, Txominek esan zigunez, Kiss musika taldeko kide moduan mozorrotzea pentsatzen dabil, baina oraindik ez daki seguru zer egingo duen. Bestalde, futbola gustuko dutela esan zigun laukoteak, eta halaxe erakutsi zuten futbol-zelaian.



**Aitor**
Arimazubi

Bere taldekideak jokatzen zeudela harrapatu genuen Aitor. Esan zigunez, hiru lagunen artean ari dira pentsatzen zela mozorrotu, hirurak berdin jantzita joateko. Futbolari dagokionez, gogoko kirola da Aitorrentzat.



**Julen**
Almen

Partidua hasi baino lehenago Julenekin izan ginen. Azaldu zigunez, Aratusteetan eskiatzera joango da. Hala ere, hemen egunen bat pasaz gero, txiro jantzita joango dela adierazi zigun. Julenek saskibaloia du gogokoen.

**Beñat Arnaiz** > Lagunak-Saltokiko atleta

# "Antxintxikako taldekideen bultzada izugarri eskertu dut"



Beñat Arnaiz, eguaztenean, Aretxabaletan. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

**Beñat Arnaizek (Aretxabaleta, 1980) erronka gogorra du, Antxintxika Triatloi taldetik Lagunak-Saltoki taldera egin du-eta salto. Taldekide indartsuak izango ditu ondoan, eta, horri esker, iaz galdutako motibazioa errekuperatu eta biderkatu egin du. Negu gogorra izan da entrenatzeko, baina fin-fin iritsiko da urteko lehenengo hitzordura, datorren astean, Murtzian.**

**Gogor entrenatzeko ez da negurik aproposena izan. Gorputzaldiari puntua harrapatuta?**

Euskal Herrian neguak normalean gogorrak izaten dira, baina uste dut poliki-poliki hasi garela gogorrena atzean uzten, eta ea horri esker lehiarako sasoi onena hartzen dugun.

**Horrenbeste ordu entrenatzen pasa eta gero, lehiarako deseatzen egongo zara.**

Bai, eta uste dut sasoian jartzeko hori falta zaidala, lasterketetan hastea. Entrenatzen erreferentzia batzuk izaten ditugu, baina lasterketetan ikusten da gainontzekoak non dauden.

**Gogor entrenatzeko urtero motibatuta egotea ez da erraza. Zelan hartu zenuen Lagunak-Saltoki taldera joateko proposamena?**

Harrituta, eta hasieran zalantza handiekin. Iaz oso lasterketa gutxitan izan nintzen, gogo barik nenbilen, baina kirola egiten jarraitzen nuen. Eta urri inguruan Zaragozara joan nintzen mendiko duatloi bat egitera. Orduan jaso nuen deia, eta hasieran ezetzak pisu handiagoa zuen.

Baina neskalagunak animatu egin ninduen, etxean ere animuak jaso nituen, eta gauza bera gertatu zen Antxintxikako taldekideekin. Azken haiek eman zidaten baiezkoa esateko azken bultzada.

**Zaletasun moduan hartzeko erronka gogorra da.**

Bai; nik lantegian egiten dut lan, ez naiz kiroletik bizi, eta hori oso garbi izan behar da; alegia, hau zaletasuna baino ez dela.

**Izen handiko taldekideak izango dituzu ondoan.**

Bai, nik uste dut Euskal Herri eta Espainia mailan talde onenetakoa dugula, eta horrek ere balio du norbera motibatzeko, jende ona izango dudalako ondoan. Duatleta eta triatleta oso onak daude; besteak beste, profesional moduan jardun duten Patxi Vila eta Igor Flores. Euren ondoan ikasteko gogoz nago.

**Ez zarete etxe ondoan hasiko.**

Ez, Murtziaraino goaz! Egubakoitzean egingo dugu bidaia eta domekan lehiatuko gara Espainiako Koparako sailkatzeko baliagarria den proban. Ea zelan moldatzen garen...

**Eta Murtziaren ostean zer? Taldea euskalduna izanda, hemen lehiatuko zarete gehienbat, ala?**

Bai, bai. Hurrengo hitzordua Santanderren izango dugu eta ondoren Euskal Herriko bizpahiru lasterketa egingo ditugu. Euskadiko selekzioarekin lehiatzeko lehenengo prestakuntza saio batzuk izaten dira, eta ea zorte apur batekin selekzioan sartzen naizen. Eta martxo eta apiril inguruan Espainia aldean ibiliko gara askotxo: Espainiako bakarkako txapelketa, taldekakoa... Apirilerako topera egon beharko dugu.

**Debagoienean proba bakarra dugu, Oñatikoa, martxoaren 13an.**

Ez dakit Oñatin izango naizen, asteburu horretan Euskadiko selekzioarekin proba autonomikoa izango da-eta Murtzian.

**Oñatin ez lehiatzea seinale ona izango litzateke, Euskadiko selekzioarekin lehiatuko zaren seinale.**

Alde horretatik bai, seinale ona izango litzateke, baina pena hartuko nuke Oñatin egongo ez banintz. Oñatiko lasterketa sekulakoa da, espeziala, niretako *la letxe*, giro ederra egoten delako.

**Gainera, Oñatin, orain arte taldekide izan dituzunak ondoan izango dituzu.**

Bueno, eta orain ere taldekide moduan hartzen ditut, oraindik Antxintxika nire taldea dela uste dudalako. Eurekin dudan harremana kristorena da, bertan hasi nintzen duatloiak egiten eta pauso berri hau egiteko euren bultzada ere asko eskertu dut. Berba onak baino ez ditut.

**Urte bakarra izango da seriotasunez hartuko duzuna?**

Bi urteko kontua izango da. Hau da, bi urte hauetan oso ondo banabil, eta taldean oraindik hobetzeko marjina daukadala esaten badidate... orduan ikusiko dut zer egin. Bestela, beste mailа baten jarraituko dut kirola egiten.

**"Nik lantegian egiten dut lan, ez naiz kiroletik bizi, eta hori oso garbi izan behar da"**

**"Euskal Herri eta Espainia mailan Lagunak-Saltoki talde onenetakoa da"**

**"Oñatin ezin badut egon pena hartuko dut, lasterketa horretan giro ederra egoten delako"**

**"Bi urte seriotasunez hartuko ditut; emaitzen arabera erabakiko dut ondorengoa"**

**OSASUNA** > UTEROKO MINBIZIA

# Gorputzak egiten dio aurre gehienetan uteroko minbiziari

Emakumeengan bakarrik eragiten du eta ez dago etxean egiteko moduko ariketarik; zitologia da atzemateko bide bakarra

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Bularreko minbiziaren ondoren, emakumeei gehien eragiten dien minbizia da uteroko edo umetokiko minbizia. Umetokira doan sarrera bat da eta itxi egiten denean gertatzen da. "Aurretik, ordea, birusak lesio bat sortzen du uteroaren kanpoaldean eta hori tratatuz gero gaitza ez da minbizia izateraino heltzen. Eta horixe da gertatzen dena kasu gehienetan", adierazi du Alaitz Pagaldai ginekologoak.

**ARRISKU FAKTOREAK**

Papiloma birusa da lepoko uteroaren zeluletan sartzen dena eta horrek sortzen du gero gaitza. Papilomak, ordea, onak eta txarrak daude eta hori ikusi arte ezin da zehaztu gaitza noraino hel daitekeen. "Gehienetan antigorputzek eurek gainditzen dituzte papiloma horiek. Txarrak direnen artean ere, txarrak eta txarragoak daude, eta batzuen zein besteen aurkako tratamendua ezberdina izan daiteke", azaldu du Pagaldaik.

Uteroko minbizia izateko faktore garrantzitsuena da papiloma birusa. Tabakoa erretzea eta pertsona ezberdin askorekin harreman sexualak izatea ere izan daitezke faktoreak, baina umetokiko minbizia izateko ezinbestekoa da aipatutako birus hori izatea. "Transmisio sexualeko birusa da eta harreman sexualak dira batak bestea kutsatzeko bide ia bakarra. Hala ere, mutilek ez dute garatzen, emakumeengan bakarrik eragiten du", argitu du ginekologo arrasatearrak.

**AZTERKETAK**

Zitologia da uteroko minbizia atzemateko modua. Bularreko minbiziarekin gertatzen den moduan, kasu honetan ez dago etxean egiteko moduko ariketarik gaixotasun hori atzemateko. "Emakumeak uteroko minbizia duen edo ez jakiteko egiten dira zitologiak. Emakumeari lehen errebisioa egin eta urtebetera egiten diogu bigarrena. Arazorik ezean, hiru urte barru egingo diogu beste zitologia bat, emakume hori ez delako minbizia izatera iritsiko tarte horretan. Espainian, hala ere, hirugarren errebisio hori bost urtera egiten dute eta hona ere iritsiko da hori", aurreratu du Pagaldaik. "Gomendioa da lehen zitologia harreman sexualak izaten hasten direnean egitea", jarraitu du.

**MINBIZIA**

Emakume batek uteroko minbizia izatera heldu orduko bide luzea dagoela dio Pagaldaik. "Azken unean odola, usaina, mina ... sentituko ditu emakumeak, baina gure lana da zitologien bidez gaitz horri aurre hartzea. Birusak kalte handiak eragiten badizkio emakumeari, uteroko lepoko luzera moztu behar izaten zaio; kaltea oso handia bada, umetokia eta obarioak kendu egiten zaizkio eta erradioterapia tratamendua hasi beharko du. Hala ere, gehienetan, gorputzak berak egiten dio aurre minbiziari", dio Pagaldaik.

DATUA

**2.103**

**DIAGNOSTIKO URTEAN**

Espainian, esaterako, 2.103 uteroko minbizi atzematen dituzte urtero. Emakume horietatik 739 hil egiten dira. Kasu gehienak 40 urte inguruko emakumeetan atzematen dituzte.




Bi emakume gazte kalean atseden hartzen. GOIENKARIA



Ume jaioberri bat sehaskan. RAHEGO

**ADOPZIOA** > GIPUZKOAN

## Adopzioan eman diren ume kopurua igo egin da

Umeetako batzuk erdi eta erdi-goi mailako familietan jaiotakoak dira

**O.E.** > ARRASATE

Herrialde pobreetan bakarrik ez, hemen ere, lehen munduan ere, gertatzen da hori, baita Euskal Herrian ere. Gipuzkoan, gainera, gora egin zuen kopuru horrek 2009an. 11 ume eman ziren adopzioan iaz Gipuzkoan, eta normalean bizpahiru izaten dira urtean.

"Gizartea osatzen duten pertsona arruntak. Diru sarrera aldetik erdi mailakoak eta erdigoi mailakoak" daude ume horiek adopzioan eman dituzten familien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur zuzendariak, Josi Insaustik, adierazi duen moduan.

Adopzioen arrazoi jakinik ez dagoela dio Insaustik; egoera ekonomikoa, ume bat ona ez den momentuan etortzea, abortatzeko arazo etikoak izatea … "Erabakia pertsonala da, pertsona errespetatu egin behar da eta ume horri babesa eskaintzea dagokigu guri, eta horixe egiten dugu", dio Insaustik.

Uko egitea haurdunaldian edo ospitalean egiten dute, erditu ostean. "Ospitaleetan mediku ekipoari edo gizarte laguntzaileari esaten diote eta haiek gurekin jartzen dira harremanetan, guk prozedura zabaltzeko", azaldu du Insaustik. Gurasoek hilabete dute erabakian atzera egiteko. Epe hori pasata, prozedura legala hasten da martxan. Urtebete irauten du tramiteak. Adopzioan emandako umeak Gipuzkoan bizi dira guraso berriekin, baina ez dituzte inoiz eramaten ama biologikoaren herri berera.

> ISTRIPUAK

### Zirkulazio istripuetan hildako gazteen kopurua %75,3 jaitsi da 1993tik hona

Zirkulazio istripuetan hildako gazteen kopurua jaitsi egin da azken urteetan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Trafiko Zuzendaritzak eman dituen datuen arabera. Zirkulazio istripuetan egondako gidari gazteen kopuruaren bilakaerari dagokionez, 1999an istripua izandako gazteen kopuruak gora egin zuen nabarmen; urte hartatik aurrera, beherakada etengabekoa izan da gaur egun arte, iturri berak kaleratu dituen datuen arabera.

Gidari gazteak inplikatuta dituzten istripuak gertatzen diren eguna aztertuz gero, 2008an ostirala izan zen istripu kopururik handien izan zuen eguna, baina ez dago alde handirik gainerako egunekiko. Gazteek istripu gutxien eduki zuten eguna, aldiz, domeka izan zen.

Sexu aldagaia aintzat hartuta, ia hildako guztiak gizonak dira. Datuak adin-taldeka aztertuz gero, hildako gazte kopururik handiena 20 eta 24 urteko adin-tartean kokatzen da, baina kopuruen arteko aldea ez da bereziki handia.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



> DISKOAK AURKEZTEN
Esperimentazioa eta heldutasuna, Adi Holden eta Hot Dogs! taldeekin > 31



> THE USKI'S
Itsaso usaina eta surf doinuak barreiatu zituen The Uski's-ek Elgetan > 32



> DOINU HEAVYAK
'Hil ala bizi' aurreneko diskoa kaleratu du Asfikzia talde oñatiarrak > 33

**MUSIKA** > JOSU BERGARA ETA KEN ZAZPI KONTZERTUAN

# Taldea bikain, zaleak zoratzen

**ARRAKASTA**

Jende gehiago espero arren, arrakasta itzela izan zuen kontzertuak

**NON:** Jam aretoa.
**EGUNA:** Zapatua, Urtarrilak 30.
**ZENBAT JENDE:** 600 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.



Ken Zazpi taldea Bergarako Jam aretoan, zapatuan; lehen planoan, Eñaut Elorrieta. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Jarraitzaile kopurua ez da talde baten kalitatearen adierazle, baina ezin esan ikuslea ezjakina dela. Jarraitzaile asko dituen talde batek ez du zertan kalitatezko musika egin, baina, ezin ukatu herritarrak direla musika kritikari zintzo eta leialenak. Jakina da Ken Zazpi talde gernikarrak itzelezko jarraitzaile mordoa duela, nahiz eta zapatuan Bergarako Jam aretora ez ziren guztiak etorri. Antolatzaileek ikusle gehiago espero zituzten, hala ere, dezente bete zen aretoa Ken Zazpi ikusteko.

**JOSU BERGARA, TXUKUN**

Josu Bergara bakarlari bilbotarra izan zen Jam aretoaren etapa berriari hasiera eman ziona. Bakarka – akustikoan –, binaka zein taldekide guztiekin batera eskaini zituen *Beldurra*, *Nora zoaz* edo *Hego haizea* bezalako kantuak. Gaueko izarra, baina, Ken Zazpi zen; Josu Bergararen kontzertuaren bukaeran hasi baitzen Jam aretoa betetzen.

**KEN ZAZPIREKIN, ZORATZEN**

Eñaut Elorrietak eta beste taldekideek eskenatokia zapaltzearekin batera piztu zen zoramena, bereziki jarraitzaile gaztetxoen artean. Lehen notak entzun orduko hasi zen aretoa saltoka. Akustika eta soinua itzelak, eta taldekideen eszenaratzea ere bikaina. Han ez zen giroa berotu beharrik izan, hasieratik zegoen-eta, pil-pilean atmosfera.

Iazko urtarrilean Donostiako Victoria Eugenia antzokian grabatutako *Zazpi urte zuzenean* diskoa aurkeztera etorri zen taldea Bergarara. Diskoan bildutako abestiak izan ziren kontzertuaren ardatza, hala nola, *Noizbait*, *Gernikan*, *Ez nau izutzen*, *Haueko argiak*, *Zapalduen olerkia* edota *Bihar*. Horiez gain, *40 minutuz*, *Trenaren zain* edo *Askatasun oihua* bezalako abestiak ere eskaini zituzten.

**ELORRIETA TALDEKO ARIMA**

Ezin ukatu Eñaut Elorrieta abeslaria dela taldeko arima. Eskenatokitik jendartera helarazten dituen indarra, sentimendua eta grina – betiere musika kalitatezkoa eskainiz –, dira beste batzuen artean Ken Zazpik zuzenekoan duen arrakastaren arrazoi nagusienetariko bat. Kontzertua ondo gertatuta zuten, han ez zen inprobisaziorako tokirik. Elorrietak, ikusleak ere ipini zituen kantuan; eta ez euren abestiekin bakarrik, izan ere, Mikel Laboaren *Txoria Txori* abestu genuen Jamen batu ginen guztiok, ozen.

Ia bi orduko kontzertua izan zen. Ikusleek gehiago eskatzen zuten, baina taldekideek badakite hobeto dela jendea gogoz uztea, larregi ematea baino. *Atzo da bihar* izan zen amaitzeko aukeratu zuten abestia. *Ilargia* abesti ezaguna, ez zuten eskaini.

ZER IRUDITU ZAIZU KEN ZAZPIREN KONTZERTUA?



**Marilu Azpeitia eta Ana Ruiz**
Legazpi

"Asko gustatzen zaigu Ken Zazpi. Orokorrean oso ondo egon da kontzertua, nahiz eta *Ilargia* abestia falta izan den. Legazpitik gatoz kontzertura bereziki eta zalantza barik, merezi izan du".



**Amaia Garitano**
Bergara

"Ken Zazpiren jarraitzaile amorratua naiz. Kontzertuan ikusten ditudan lehen aldia da eta egia esan, momentu askotan hunkitu egin naiz. Eñaut Elorrieta sekulakoa da, eta oso erakargarria ".



**Idoia Imaz**
Bergara

"Abesti guztietan hunkitu naiz. Ikaragarria izan da. Taldearen jarraitzaile naiz eta asko gustatu zait nola abeslaria motibatu den eta ikusleak ere nola motibatu dituen. Hala ere *Ilargia* falta izan da".



**Aritz Areitio**
Eibar

"Askotan ikusi ditut kontzertuan, eta gaurkoan bereziki akustika ona egon dela iruditu zait. Abesti batzuk bota ditut falta, *Ilargia*, esaterako. Bikaina izan da, baina jende gutxi etorri da".



**Leire Alberdi**
Eibar

"Ez naiz Ken Zazpiren oso jarraitzaile sutsua; hain justu, kontzertuan lehen aldiz ikusi ditut gaur. Gustura egon naiz, talde ona da eta abeslariak badaki giroa nola sortu".


Goiena kluba
Abantailaz betetako kluba!
300 euro opari. Nahi?
http://zozketa.goienakluba.com
web orrian sartu, eta bete hutsuneak, bazkide txarteleko zenbakia erabilita.
Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 28a.
GOIENA KLUBA | Telefonoa: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com

**MUSIKA** > ADI HOLDEN ETA THE HOT DOGS!

# Esperimentazioa eta heldutasuna, parez pare

**NON:** Bergarako gaztetxean.
**EGUNA:** Zapatua, urtarrilak 30.
**ZENBAT JENDE:** 160 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Hiru ordu eta erdi.

**I.B./A.B.** > BERGARA

Txapa Irratiak beste behin ere maila handiko kontzertu antolatu zuen Bergarako gaztetxean. Gonbidatuak oraingo honetan, Adi Holden eta The Hot Dogs!; biak ere azken diskoak aurkeztera etorri ziren Bergarara.

Etxekoak izanda, nola ez, Adi Holdenekoak izan ziren taula gainera igotzen lehenak. Danbaka lehiaketaren finalean ikusi genituen azken aldiz eta ibarreko talde onenaren saria irabazi ostean diskoa kaleratu berri dute: *Adi Holden*. Hori horrela, ikusmin handia zegoen bergararren abesti berriak ezagutzeko. Argi dagoena da Adi Holdenek gaur egun hutsik dagoen esparru bat betetzen duela; 90eko hamarkadako talde *indie* edo independente kutsua hartzen dutelako: intentsitatea, melodia, gitarra distortsionatuak eta abesti borobilak.

Intro luze eta berezi batekin hasi zuten zapatuko kontzertua. Taula gainean gainera, taldekide berri bat aurkitu genuen, abestiei efektu eta giro bereziak emateaz arduratuko dena.

Une batzuetan horrenbeste miresten duten Sonic Youth taldearen tankera hartu zuten intentsitatean eta basakerian. Taldeak oso soinu trinkoa lortu zuen eta argi geratu zen asko entseatu dutela. Danbakan ezagutu genituen kantuak are garatuago eta landuago ikusi genituen, tonalitate berriak gehituz.

Taldeko abeslari Alex Muela, oraingoan ere abesti batzuetan kantuen intentsitateak eramanda, lebitatzen ikusi genuen, batez ere *Lotura* abestiarekin.

Adi Holdenekoek Cancer Moon, Ama Say, Ironic Cancer Phobia eta antzekoak ekarri zizkiguten gogora. 40 minutu izan ziren, baina, bete-beteak.



Adi Holdenekoek grabatu berri duten diskoa aurkeztu zuten zapatuan Bergarako gaztetxean. JOSETXO ARANTZABAL

**URRETXUARREN IKUSKIZUNA**

The Hot Dogs! taldekoak, berriz, beteranoak eurak, laugarren diskoa aurkeztera etorri ziren: *Nothing but a bad day*. Urretxuarrak taula gainera igo orduko Bergarako gaztetxea jendez lepo zegoen. Betiko moduan sekulako ikuskizuna eskaini zuten. Jon Iturbe abeslariak ia ez dauka parekorik: lurrean etzanda, kontortsioak egiten, uneoro koreografiekin eta aldi berean, ahots tonu ederra mantenduz, eta tartean oihuka.

Batez ere azkeneko bi diskoetan oinarritu ziren, baina euren lehenengo bi lanetako abesti bizienak edo gogorrenak entzuteko aukera ere izan zen, jendearen zoramenerako: *RN'R Army 69*, *The power house* eta *The return of Hankie*. Sekula baino helduago ikusi genituen. Abestiek beste tempo bat dute, askoz detaile gehiagorekin baina, hala ere betiko AC/DC markarekin.



**KONTZERTUA** > ETXE ETA THE USKI'S

# Bizkaiko kostaldeko rockaren freskotasuna

**NON:** Elgetako Espaloia antzokian.
**EGUNA:** Egubakoitza, urtarrilak 29.
**ESTILOA:** Pop-rock.
**IRAUPENA:** Hiru ordu eta erdi.

**ARRITXU BARRUSO** > ELGETA

"Hasieran pentsatu dut gaurko gaua gogorra izan behar zela baina, plazerra izan da zuekin egotea", esan zuen Etxe abeslariak egubakoitzeko kontzertuaren amaiera aldera. Horixe uste genuen askok eta askok Espaloia Kafe Antzokira iritsi ginenean. Baina, usteak erdia ustel, eta horixe gertatu zen; Etxeren pop-rock doinuek eta The Uski's taldearen abesti dantzagarriek sekulako giroa ipini zuten Elgetako antzokian.


The Uski's taldea Elgetako Espaloia antzokian. JOSETXO ARANTZABAL.

Etxe izan zen taula gainera igotzen lehena, eta kostata, baina amaiera alderako lortu zuen atzean ezkutatuta zeuden ikusleak taula aurrera gerturatzea. *Heldu eskutik* bere azken diskoko kantuekin hasi zen taldea baina, ordu eta erdian Etxek kaleratu dituen hiru diskoetako abestiak entzuteko aukera egon zen. *Bidea eginez* diskoko *Zenbat bide?* kantua, euren *hit*-a, amaierarako utzi zuten eta The Uski's taldeari lan erdia eginda utzi zioten; ikusleak dantzarako gogoarekin zeuden.

**OLATUAK, NESKAK ETA PARRANDA**

Kostaldeko haizearekin gozatzeko momentua ailegatu zen gero, Ibarrangelutik eta Elantxobetik iritsitako haizea; fresko-freskoa eta dibertigarria. Hondartzan legez, oinutsik atera ziren eskenatokira The Uski's taldeko bi, arrantzale jantzita beste bat eta alkandora hawaiiarrarekin beste bat. Ganberro hutsak dira The Uski's taldekoak, eta gauza bat dute ona; inork baino gehiago gozatzen eta dantzatzen dute euren musika. Horrelakoetan oso zaila izaten da ikusleak aspertzea. The Uski's taldekoek bizi egiten dute euren surf kutsudun rocka eta hori ikusleengana erraz iristen da. Momentu batean taula gainetik jaitsi eta ikusleen artean dantzan ere ikusi genituen taldekide batzuk.

Oraingoan, gainera, neska baten ahotsaz lagunduta etorri dira The Uski's taldekoak; Argi Zameza da bere izena eta bere ahotsaren indarrak eta dantzarako gogoak asko laguntzen die abestiei.

Azken diskoari izena ematen dion *Katuak bezala* abestiarekin hasi zuten kontzertua eta amaitu ere kantu berdinarekin amaitu zuten; bi ordu inguru egon ziren taula gainean eta ikusi genuen The Uski's-en gaiak hiru direla: olatuak, neskak eta parrandak.

**Ibon Uribarren** > Jokin Zaitegi sariketako irabazlea

# "Liburu oso berezia da itzuli behar dudana; estilo landua, poetikoa eta metaforikoa du"

**A.B.** > ARRASATE

**Ibon Uribarri zarauztarrak irabazi du Literaturako Nobel saridunak euskaratzeko AEDk eta Elkarrek, Kutxaren laguntzarekin antolaturiko Jokin Zaitegi lehiaketa. Beraz, iazko urte amaieran Suediako Akademiak hautaturiko Herta Müller idazle errumaniar-alemaniarraren *Atemschaukel* (*Arnasaren kulunka*) lana euskaratu beharko du Uribarrik.**

**Ez da nolanahiko aurrean daukazun erronka...**

Erronka oso zaila da. Liburu oso berezia da itzuli behar dudana; oso estilo landua, poetikoa eta metaforikoa dauka beraz, oso itzulpen zaila izan behar da.

**Herta Mülerren obra ezagutzen duzu?**

Ez gehiegi. Orain ari naiz apur bat ezagutzen eta ikusten ari naizena da oso idazkera poetikoa daukala; berak poesia asko idatzi du, narratiba ere bai baina, oso narratiba berezia eta landua da; oso estilo pertsonala dauka. Lehiaketarako itzuli behar genuen laginerako ere nahiko buruhauste izan nituen, testu ulergarri bat egin eta jatorrizkoaren maila mantentzeko.

**Suposatzen dut horrelakoetan itzultzaileengan beti sortuko dela eztabaida; testu originalari fidela izan ala testu ulergarri bat egin. Zer deritzozu?**


Ibon Uribarren. GOIENKARIA

**"Testua nolakoa den jakinda harritu egin nintzen 15 lan aurkeztu zirela jakin nuenean"**

Tarteko bide bat aurkitu behar da beti, baina ni normalean saiatzen naiz jatorrizkoaren estiloa mantentzen, ez naiz jatorrizkoa asko moldatu edo erraztearen aldekoa.

**Zein da *Atemschauskel* liburuaren istorioa?**

Herta Müllerrek Oskar Pastior izeneko idazle bat zuen lagun. Hau kontzentrazio esparru batean egon zen. Izan ere Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean sobietarrek kontzentrazio esparruetara eraman zituzten hainbat alemaniar, zigor moduan, naziekin kolaboratu izanagatik. Müllerrek hainbat elkarrizketa egin zituen Pastiorrekin eta biek batera idazleak kontzentrazio esparruetan bizitakoaren inguruko lan bat argitaratzea pentsatu zuten. Pastior, baina, hil egin zen eta Müllerrek pentsatu zuen bere lagunari egin ziezaiokeen omenaldi onena lan hura bukatzea zela. Beraz, *Atemchauskel* liburua Oskar Pastiorren esperientzian oinarritzen da.

**Jokin Zaitegi sariketara aurkezten zaren lehen aldia da?**

Lehiakide moduan bai. Epaimahaikide izan nintzen 2002an.

**15 lan aurkeztu dira lehiaketara. Ez dago gaizki...**

Harritu egin nintzen, uste nuen gutxiago izango ginela, testua nolakoa zen ikusita. Nik neuk ere nahikoa zalantza izan nituen, lagina itzulita neukan arren, ez nekien aurkeztu ala ez; banekien horrek gero ekarri zezakeen lana. Interes handia neukan eta azkenean animatu egin nintzen.

**DOKUMENTALA** > 'SIMPLEMENTE'

# Anduezaren azken lana otsailean estreinatuko da

Down sindromea dutenekin eta horien gainean egindako dokumentala da

**A.B.** > ARRASATE

Jon Andueza arrasatearrak *Simplemente* izenburua ipini dio bere azken dokumentalari. 80 minutu inguruko lana da eta down sindromea duten gazte talde bat du protagonista. *Despertar los sentidos* dantza taldeko kideak dira eta oraingo honetan erronka handia daukate esku artean; Oriñon (Kantabria) herriko hondartzan dantza ikuskizun bat egitea erabaki dute. Ez da erraza izango; aire zabalean egingo duten lehenengo ikuskizuna izango da-eta. Herrira iristen diren momentutik bi kameralari izango dituzte atzetik, egun handia iritsi bitartean egiten duten lan guztia jasotzeko.

*Simplemente* otsailaren 16an estreinatuko da Victoria Eugenian eta Debagoieneko estreinaldia Arrasateko Amaia antzokian izango da otsailaren 26an, 19:30ean. Dokumentala proiektatzeaz gain, protagonistak bertan izango dira eta dantza emanalditxo bat ere egingo dute. Dokumentala gaztelaniaz da eta azpi-tituluak ditu euskaraz.


*Sinplemente* dokumentaleko protagonistak. GOIENKARIA

GURE TALDEAK

## Asfikzia



Ezkerretik eskuinera, Unai Lete, Eneko Igartua (makurtuta), Harriet Aiala eta Jon Kortabarria. ASFIKZIA

# "Heavya da abiapuntua, baina ez dugu estilo zehatzik egiten"

Asfikzia oñatiarrek lehen diskoa kaleratu dute; Aretxabaletako estudio baten grabatu dute, Josu Lazkano eta Asier Sala teknikariekin

'Hil ala bizi' diskoarekin entzule guztiengana heldu gura dutela esan digute, eta laster hasiko direla kontzertuak egiten

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

**Eneko Igartuak, Unai Letek, Jon Kortabarriak eta Harriet Aialak osatzen dute Asfikzia taldea. Entsegu lokaletik kanpoko lehen grabazioa egin dute. Disko berriaz egin dugu berba eurekin.**

**Lehen diskoa grabatu duzue. Gustura zaudete?**

Orain, esku artean ikusita harro gaudela esango genuke, baina prozesua oso luzea, amaigabea izan da. Arazo asko izan ditugu grabazioa eta nahasketa egiterakoan, eta denbora luzea galdu dugu. Dena den, aurrera egin ahala, eta emaitza ikusita, pozik gaude. Emaitza ona dela uste dugu.

*Hil ala bizi* jarri diogu izena diskoari. Egungo sistemari kritika egiteko aukeratu genuen izena, egunero hil ala biziko egoeran gaude-eta.

**Diskoa erosten duenak zer topatuko du?**

Lau gazteren ideia eta sentimenduak musika eta hitzez jantzita. Batzuetan amorrua adieraziz eta beste batzuetan tristura; bizitzaren ikuspegiak erakutsiz eta hausnarketa sortuz. Bi hitzetan, gure lana kritika sentimentala dela esango genuke.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Aretxabaletako estudio baten egin dugu diskoaren grabazioa Asier Sala eta Josu Lazkano teknikarien laguntzarekin. Oso gustura egin dugu lan eurekin. Esperientzia itzela izan da guretako.

**Nolako musika egiten duzue?**

Heavy-thrash estiloa jorratzen dugula diote batzuek. Duda barik, heavya abiapuntutzat hartuz egiten ditugu abestiak, baina ez dugu estilo zehatz bat egiten: doinu gogorrak zein lasaiak daude, entzuteko errazak direnak, eta erritmo konplikatuagoak dituztenak.

**Nortzuengana heldu gura duzue diskoarekin?**

Disko honekin ahalik eta pertsona gehienengana heldu nahi dugu: gazteengana eta hain gazte ez direnengana; musikazale eta musikan aditu ez direnengana. Oro har, entzule guztiengana heldu gura dugu, baita, abesti batzuen bidez kritikatzen ditugun pertsonengana ere.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

Besteak beste, Metallica, Judas Priest, Megadeth, Latzen, The Who, Su Ta Gar, Overkill, Sepultura, BLS (Black Label Society) eta Berri Txarrak.

**Grabazioa Hamer izenarekin hasi zenuten, baina orain Asfikzia zarete. Zergatik aldaketa?**

Hasiera batean, Hamer izenarekin hasi ginen, baina ez geunden oso konforme, eta behinbehineko izen moduan aukeratu genuen. Bat-batean, Asfikzia izena bururatu zitzaigun, eta taldekide guztion adostasunarekin izena aldatu genuen. Izen horrekin identifikatuta gaude erabat.

**Ezagutzen ez zaituztenendako, aurkeztu zuen burua.**

2006ko udan pentsatu genuen heavy talde bat sortu behar genuela. Ordura arte, Jon Triskantza taldeko bateria jolea zen; Eneko eta Unai Nadek taldeko kideak ziren eta Harriet Lukrezia taldeko kidea. Baina talde horietan nekez egiten genuen heavy musika. Arantza hori ateratzeko asmoz sortu genuen taldea. Hasieran bertsioak egiten hasi ginen, besteak beste, Metallica eta Megadeth taldeenak. Ondoren, hasi ginen gure kantuak sortzen, eta ordutik hona horretan dihardugu.

**Kontzertuak lortzen hasita zarete?**

Egia esan, kontaktu batzuk baditugu gaztetxe eta jaialdi batzuetan jotzeko, baina oraindik ez dugu ezer lotu. Datak lotzen ditugunean jakinaraziko ditugu.




### Denborak ez dio kalterik egin heavy-thrashari

Onartu beharra daukat pena dudala oñatiar talde honek Hamer izena Asfikziagatik ordezkatu duelako. Berria euskaraz da, baina aurrekoak nortasun eta *pegada* hobea zeukala uste dut.

Baina izena baino askoz garrantzitsuagoa da diskoan dagoena, kantuak. Eta onartu beharra dago heavy kutsu handia daukan thrasha txukun egiten dutela. Hala, thrash oinarri indartsuekin (*Gora Kill'em all*) melodia eta punteoz jositako kantuak idatzi dituzte; tarteka, Latzenen hastapenak gogora ekarriz.

**Iker Barandiaran.**

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxea salgai edo errentan: 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailua eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30.

**Azkoitia.** Pisua salgai Azkoitin, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, berogailua, aluminiozko leio berriak, ganbara erraldoia,dena berritua eta altzariekin saltzen dut. Pisua oso ondo dago, merezi du. 665 73 51 11

**Aramaio.** 70 metro koadroko etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Etxe berria da. Bi logela, ganbara eta garajearekin. Dena jantzita. Eguzkitsua. 679 45 57 62 edo 664 74 90 23.

**Arrasate.** San Andres auzoan 58 m²ko etxea salgai edo errentan. Bi logela, bainugela bat, balkoi bat, sukaldea, egongela eta trastelekua. 635 73 94 91.

**Aretxabaleta.** 100 metro koadroko etxebizitza salgai Markolen. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela, ganbara, garajea eta bi terraza handi (150 m2). Jantzita utziko genuke. 650 34 89 85.

**Irurtzun.** Eraberritutako pisua salgai Irurtzunen. 3 logela, 2 balkoi, sukaldea jantzia. Prezioa 150.000 euro. Deitu 699 02 03 63 telefonora.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean apartamentua salgai. Sukaldea, egongela, komuna eta logela bat. Oso eguzkitsua. 607 58 00 99 edo 625 70 54 44.

**Oñati.** Eraikuntza berriko etxea salgai Kalebarrian. Prezio oso interesgarria. 652 75 60 52

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, komuna eta trastelekua. 2009an berriztatua, prezio onean. 676 19 91 54

**Oñati.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Bergaran edo Arrasaten etxebizitza hartuko nuke errentan.639 94 48 65 edo 615 57 81 54

**Gipuzkoa.** Etxea edo baserria alokagai hartuko nuke Gipuzkoan. Ahal bada Donostialdetik gertu. 605 73 63 71.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 671 33 75 54

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 657 08 96 69

**Donostia.** Etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. 661 33 85 87

**Iruñea.** Bikote batek pisua errentan hartuko luke Iruñean. Gutxienez bi gela dituena, eta argitsua. *marutegi@yahoo.com*

**Oñati.** Bikote batek etxea hartuko luke erretan Oñati, 3 gela eta igogaluarekin. 665 75 59 13.

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Pisu konpartitu batean logela eskaintzen da, egongela, sukalde eta komun handiko etxean, Altsasun, herri erdian. Animatu eta deitu608 57 97 70 telefonora.

**Altsasu.** Logela alokatzen da Altsasun, sukaldea erabakitzeko eskubidearekin. Deitu 606 00 23 40 telefonora.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 250 euro hilean. Deitu 606 74 42 37 telefonora.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULUA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Mutil arduratsua logela bila. Lan finkoa daukat. 647 28 82 41

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Erdialdean dago eta oso egoera onean. 300 euro, gastu guztiak barne. Otsailetik aurrera. 606 74 42 37

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 608 57 97 70 edo 665 71 69 10

**Arrasate.** Eskola Politeknikoko 3 Erasmus ikasle gara eta pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 4 banakako logela, sukaldea, komuna, terraza handia. Unibertsitate aurrean. 200 euro + 30 euro (gastuak) hilean. Internetarekin 12 euro gehiago. Otsailetik uztailera. Interesatuok idatzi helbide honetara: *septunova.zuza@centrum.cz*, edo deitu telefono hauetara. Emilia edo Chiara. 638 15 76 98 edo 638 15 77 00.

**Bergara.** Bergara 2 logelako apartamentu berriztuan, logela bat errentan ematen da. 250 euro. Deitu 626 86 67 36 telefono zenbakira.

**Donostia.** Amara auzoan gela bat alokatzen da neska batentzat pisu konpartitu batean. Berdin ikasle edo langile. Deitu 943 65 16 92 zenbakira.

**Eibar.** Iepa! Lana dela eta konpartitzeko pisu bila nabil Eibarren edo inguruetan. Pisukide bila bazabiltza, hau da nire telefonoa: 652 73 58 09

### 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Trukean Lanan (Nafarroa) ditugun etxea (150 m) eta baratzea eskaintzen dira. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, ganbara eta ukuikuak. Beheko sua du. Gasteiztik 45 minutura eta Lizarratik oso gertu. Aproposa asteburu eta oporraldietarako. Trukea zehazteko orduan aukera guztiak zabalik (garai baterako, betiko...). Deitu 699 24 86 99 zenbakira.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
  **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia Lezaman (Santakurtz 24). Salgai 16.000 euroan, negoziagarriak, eta errentan 65 euro hilean. Aukera aparta. 647 08 00 16.

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Deitu 688 25 56 56 telefono zenbakira.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Aldaigainen. 14:00etatik aurrera deitu. 680 84 09 45.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bolu auzoan. 658 73 35 96

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59.

## 3/ LOKALAK

### 301. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bulegorako egokitutako 90 metro koadro inguruko lokala eta 100 metro koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. 943 76 33 56.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 656 77 46 60.

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. Telefonoa: 943 76 53 55.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**ALDIBATEKO LANA**
**943-16 20 48**
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

**Mungia.** Laukarizen (Mungian) etxeko lanak eta ume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. 5 egun astero. Kontratua eskaintzen dugu eta gizarte segurantza ordaindua ere bai. Euskalduna izateaezinbestekoa. 609 43 99 54 (Xabier)

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko, etxeak edota atariak garbitzeko prest. Esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 telefonora.

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. 647 16 40 49

**Arrasate.** Hemengo neska umeak zaintzeko, etxekolanak egiteko edo edozein lanerako prest, orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urte askoko esperientzia. 662 07 31 68.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Bergara.** Garbiketa eta adinekoen zainketa lanak egiteko gertu nago, 13:00etatik aurrera. 691 03 25 02

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. 637 28 58 52

**Bergara.** Bergarako emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko. 690 05 79 07

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. 637 28 58 52

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko norbait behar dugu. 943 76 53 55

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak edo pertsona nagusiak arratsaldez zaintzeko. 695 78 22 47 edo 943 76 17 17 Itziar.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 660 57 33 92

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago. 625 11 20 71

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko. 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. 943 79 54 21 edo 619 42 75 21

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea erreferentzia onekin gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Paperak ditut. Lanaldi osoa edo murriztua egingo nuke. 696 19 05 15

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. 663 65 78 43

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldetan, astebukaeratan eta jai egunetan. Auxiliar laguntzaile titulua. Itxaso. 943 74 82 09

**Debagoiena.** Paperakdituen emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauez edo bestela. Legezko paperak dauzkat. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. 676 07 23 72

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez. 943 71 46 24

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak ditut. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke, egunez. 943 53 29 18 edo 696 84 19 51

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. 671 27 78 36

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. 637 12 15 18

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, sukalde laguntzaile edo etxeko lanak egingo nituzke. Telefonoa: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Etxean bizi izaten edo orduka. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Baserrietan ere bai. Etxean bizi izateko prest nengoke. 690 70 63 39

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak lan egingo luke sukaldean, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten: bulegoak, etxeak eta abar. Enpresa zein partikularrekin. 661 48 86 74

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte askoko esperientzia. Antonio. 630 65 30 22

**Debagoiena.** Egun erdiz lan egingo nuke: umezain, garbiketa, sukalde laguntzaile... Mondragon Unibertsitatean dagoen Txekiar Errepublikako Erasmus ikaslea naiz, gaztelera ikasten ari naiz eta ingelesa hitz egiten dut. *septunova.zuza@centrum.cz* edo 638 15 77 12

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu gerontologia sektorean lan egiteko, esperientziaduna eta erreferentziaduna. Arratsaldez egingo luke lan. 943 79 04 69

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo ostalaritzan sukaldari aritzeko. Esperientzia daukat. Deitu 637 12 15 18 telefonora.

**Debagoiena.** Pintore lanak egingo nituzke partikularrentzat edo enpresentzat. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Kamioi gidari baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. Deitu 610 67 18 60 zenbakira

**Donostia.** Neska gaztea, haurrak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest Donostia edo inguruetan (Astigarraga, Hernani...). Biologian lizentziatua naiz, EGA titulua daukat eta begirale bezala 4 urteko esperientzia. Deitu 679 28 08 28 telefono zenbakira.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Deitu 616 38 31 64 telefono zenbakira.

**Irun.** Bidasoaldea-Oarsoaldea. Emakume euskaldun jakintsu eta arduratsua, frantsesez eta espainolez dakiena, etxean idazkari zein etxeko lanetarako prest. Gidabaimena eta autoa baditut. Deitu 622 06 33 48 telefono zenbakira.

**Goierri.** Goierrin emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Deitu 660 02 85 52 telefono zenbakira.

**Gernika-Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumoaldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Deitu 645 70 40 20 telefono zenbakira eta Marisarengatik galdetu.

**Haurrak zainduko nituzke.** Goizez eta arratsaldez. Haur hezkuntzan diplomatua naiz eta 4 urteko esperientzia daukat haurreskoletan. Deitu 628 33 31 56 telefono zenbakira.

**Oñati.** Neska euskaldun oñatiarra haurrak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko prest. Arduratsua. Deitu 618 09 47 87 telefono zenbakira.

**Sakana.** Haurrak zaindu eta plantxatzeko prest nagoen emakumea naiz. Deitu 651 47 27 21 telefono zenbakira.

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako,asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

**Zumarraga.** Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoan titulatua naiz. Elektrikari eta mantenu lanetan esperientziduna. Deitu 667 03 52 16 telefono zenbakira eta Ramonengatik galdetu.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Matematika eta euskara eskola partikularrak emateko norbait behar dut. 6. maila. Deitu 652 75 68 95 telefono zenbakira.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Goi ingeniaritza ikasten duen neska arduratsua Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldetan. 625 74 91 50

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26.

**Bergara.** Aleman Filologian Lizentziaduna eta irakaslea naiz. Ingeles eta aleman eskolak emango nituzke. 660 52 25 01

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. 648 06 79 85

**Elgoibar.** Ingeleseko klaseak ematen dira. Eskolarako laguntza, azterketa ofizialen prestakuntza, Ingeles komertziala... Adin guztiak. Ordutegi malgua (goiz eeta arratsaldez). Deitu 652 76 32 64 telefono zenbakira.

**Gasteiz.** Klase partikularrak emateko eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntzako ikasketak egiten ari naiz eta ondorioz arratsaldetan bakarrik lan egin ahalko nuke. Esperientzia daukat bai klaseak ematen eta baita haurrak zaintzen ere. Aisialdirako monitore titulua daukat.EGA ere badaukat. Deitu 648 70 15 92 telefono zenbakira.

**Gernika-Lumo.** Klase partilularrak emango nituzte Gernika zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Deitu inolako konpromiso barik 680 53 84 82 telefono zenbaki honetara:

**Gernika-Lumo.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak ematen ditu Gernikan LHko eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Ingeleseko klaseak.** Eskolarako laguntza, azterketa ofizialen prestakuntza, Ingeles Komertziala...Adin guztiak. Ordutegi malgua (goiz edo arratsaldez). Deitu 652 76 32 64 telefono zenbaki honetara.

### 503. BESTELAKOAK

**Hizkuntza ikasketak trukean.** Nik dudan frantserera maila hobetu nahi nuke (2. maila hasteko egongo nintzateke) eta trukean beste pertsona baten euskara maila hobetzen lagunduko nuke. Interesa baduzu idatzi mezu bat *pelloastiz@hotmail.com* edo e-postara edo deitu 618 09 62 04 telefono zenbakira. Animatu zaitez hizkuntz hauetan dugun maila hobetuko baita.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Kawasaki Z750 salgai.** 2007koa. Kolore beltza. Egoera oso onean. 12.000 km. Azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Deitu 660 33 77 16 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Zaldi hispaniar-arabiarra** salgai. Monturakoa. 7 urte. Zuria. Deitu 616 00 34 29 zenbakira.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak** ematen dira opari. Interesatuek hots egin 948 46 00 43 telefonora

### 704. BESTELAKOAK

**Bi setter** eme daude jasoak, aurreko astelehenetik, urtarrilak 11. Zuri-beltzak dira. Deitu 625 70 86 49 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta gorria salgai. Egoera onean. Merke. Deitu 943 79 11 24 telefono zenbakira.

**Birkiendako aulkia salgai.** Jane etxekoa. Urdin iluna. Hiru gurpilduna. 200 euro. Deitu 650 57 36 07 telefonora.

**DJ maleta.** Technics DJ maleta saltzen dut. 80 binilorentzako kapazidadearekin. Interea duenak dei dezala 648 06 79 85 telefono zenbakira.

**Erremailadora industriala** salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Antzuolan. Interesa duenak dei dezala 685 77 08 46 telefono zenbakira.

**Eskiak.** Dynastar Vitesse etxekoak, Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. Interesa duenak dei dezala 690 83 98 53 telefono zenbakira.

**Eskiatzeko buzoa** salgai. 10 neurrikoa. 15 euro. Gore-Tex eskularruak opari. Interesa duenak dei dezala 656 78 64 64 telefono zenbakira.

**Eskiatzeko ekipo** berria salgai. Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690 83 98 53.

**Karabana salgai.** Lau plazakoa. Egoera onean. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 658 75 58 23

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 626 28 68 13

**Snow taula** salgai, Kay Wright markakoa. 1,55 metroko altuera. 130 euro. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara:630 29 16 01.

**Snow taula** salgai. 1,51 metroko altuera. 175 euro. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara:630 29 16 01.

**Soinua salgai.** Bigarren eskukoa. Polverini markakoa, beltza. Motxila eta guzti. 800. Aproposa ikasleentzat. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki hauetara 23 92 87 edo 943 76 44 69.

**Tabike-armairua** salgai. Debagoienean. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 670 08 12 16.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu: 696 32 63 13

**4x4rako erremolke eder baten bila.** Erremolke berriak izugarri garestiak dira, baten batek ez dauka 2. eskuko bat salgai? 2 edo 2,5m luzerakoa, 750kg edo? Paperrekin gainera? (NIVA batentzako) 606 58 33 26

**Moisesa.** Moisesa erosiko nuke. 650 57 36 07.

**Pastoralen liburuxkak.** Honako pastoralen liburuxkak erosiko ditut: *Xiberoko Jauna* (2008), *Atharratze Jauregian* (1997) eta *Santa Kruz* (1992). Prezioa adostuko dugu. Deitu 656 72 68 70 telefono zenbakira.

### 804. HARTU

**Batxilergoko Kimikako liburua hartuko nuke.** Ibaizabal argitaletxeak argitaratu K2 Natur eta Osasun zientzietako kimika liburua (i.bai proiektua) hartuko nuke. *maitezesa@gmail.com* Maite. Eskerrikasko.

**Umeendako segurtasun aulkia behar dut.** Autorako segurtasun aulkia behar dut. 1-3 taldekoa. Deitu 650 57 36 07 telefono zenbaki honetara.

### 806. GALDU

**Amantala Oñatin.** Ikastolako amantal berdea galdu dut Bidebarrieta eta Errementari plaza inguruan, ostiralean, hilak 22. Aurkitu baduzu, deitu: 943 78 00 01 edo 943 79 08 09

**Betaurrekoak galdu Etxarrin.** Aurreko ostiralean betaurreko graduatu batzuk galdu ziren Etxarri Aranatzen. Funda marroian gordeta daude. Opatu dituenak Beleixe irratian utz ditzala edo 948 46 08 32 telefonora hots egin dezala.

**Eraztuneko harria.** Zubiaurre eta Ozaeta artean (Bergara) eraztuneko amatista harria galdu nuen. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 637 77 45 57.

**Kartera opatu Altsasun.** Urtarrilaren 9an Altsasuko Foruen plazan karteratxo bat opatu genuen. Galdu duenak Guaixen galde dezake.

**Autoko giltza galdu.** Abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki hauetara: 618 49 28 56 edo 943 79 58 98

**Lapitzen zorro bat eta memoria bat galdu.** Oñatiko Bidebarrieta Kalean. Astelehena 25ean Oñatiko Bidebarrieta Kalean 18:30ak inguruan arkatzak eramateko laukidun zorro ilun bat galdu nuen. Informazio garrantzitsua duen memoria bat ere bertan neukan. Eskertuko dut. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki hauetara: 653 71 79 81 edo 943 53 44 71

**Sakelako telefonoa galdu.** Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena). Nokia beltza da. Sarituko da SIM txartela, behintzat, bueltatzea. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 676 66 02 66

**Eskiak galdu Arantzazun.** Martitzenean, hilaren 12an, K2 Fujative trabesiarako eskiak ahaztu nituen Arantzazun. Norbaitek topatu baditu, dei diezadala. Eskerrik asko. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki hauetara: 652 75 66 97 edo 669 78 17 81

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak aurkitu dira Arrasaten.** Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 48 02

**Giltzak Ugarrixan aurkitu dira.** Bi giltzatako aurkitu dira: batek 3 giltza ditu eta besteak 12. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 689 70 44 17

**Urrezko domina aurkitu Altsasun.** Karratua da. Alde batean,(Javi, 7-3-03) agertzen da grabaturik eta bestean gizonezkoaren erretratua. Informaziorako jo Guaixera edo deitu 948 56 42 75 telefono zenbaki honetara.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Neska bila.** Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. *mgpelmaz@gmail.com*

### 904. BESTELAKOAK

**Basauri-Gasteiz.** Basauri-Gasteiz bidea autoz konpartitzeko lagun bila nabil. Lakua inguruan lan egiten dut, eta 07:15 inguruan irtengo nintzateke Basauritik Gasteizera. Gasteiztik 17:00etarako irtengo nintzateke Basaurira. Ana. Bidaia konpartitu nahi duenak deitu. 685 73 17 18.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten gara. Momentu honetan 3 pertsona joaten gara auto berean. Bidaia konpartitu nahi duenak deitu. 635 20 33 14.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. aldezaharrekojoaldunak@gmail.com

Gorka Julio
'Teketen'



**ILUNPEAN**
Martitzenean, otsailaren 2an, 22:15ean.
Eguaztenean, otsailaren 3an, 15:10ean.

**Jon Berezibarrek aurkeztuta**

Goitb Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Itzulpena.** Europar Batzordea. Europar Batzordeko itzulpen zerbitzuan praktikak egiteko dirulaguntza. Unibertsitate titulua duten edo ikasketa horietako lehen zikloa amaitu duten eta komunitateko beste erakunderen batean praktikak egin ez dituzten gazteendako. Epea: otsailaren 15a.

**LANA**

**> Liburutegi laguntzailea.** Bergarako Udala. Aldi baterako liburutegi laguntzaile postua betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: otsailak 10.

**> Tutoreak.** Eusko Ikaskuntzako Gazteria Departamentua. *Ei Gazte!, Gure ondarearekin nortasunerantz. Nor zara zu?* proiekturako bi tutore behar dira. Ondarearen bidez, herri-identitatearen inguruan gogoeta egitea du xede nagusi proiektuak. Baldintzak: lizentziatura bat egina izatea edo azken bi urteetan aritzea (antropologia eta historia lizentziadunak gailenduko dira, eta doktoregaiek lehentasuna izanen dute), talde bat dinamizatzeko gaitasuna izatea, euskalduna izatea.

**> Gaztelania irakasleak.** EURES. Alemanian gaztelania irakasteko irakasleak. Espainian irakasle ez diren eta denbora mugatu batez Behe Saxonian lan egin nahiko luketen goi-mailako tituludunei zuzenduta dago. Adin-muga: 30 urte. Epea: otsailaren 8a..

**> Gaztelania irakaslea.** Manchesterko Metropolitan Unibertsitaterako gaztelania irakaslea behar da. Epea: otsailaren 4a.

**> Asterix parkerako langileak.** Paristik 40km-tara dago eta jende bila dabiltza! 18 eta 30 urte bitarteko ikasle edo profesionalak, praktiketan edo lizentziatu berriak, behar dituzte. Jende baikorra, irekia eta ikasteko gogoarekin. Frantses maila altua beharrezkoa da. Curriculuma bidaltzeko epea: otsailaren 5a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 1



**> Beñat Arnaiz atletari elkarrizketa**
**22:15**

Beñat Arnaiz aretxabaletarra Lagunak taldeak fitxatu du duatloia egiteko. *Harmailatik* saioan elkarrizketatuko du GOITBk.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 2



**> Gorka Julio blogaria 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

Gorka Julio *Teketen* ziber-ekintzailea da, eta ezaguna euskal blogosferan. *Ilunpean* saioan egongo da Jon Berezibarrekin.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo-Eskuokin.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 3



**> On:Giz elkarteko Mikel Otxotorena 'Magazinea'-n**
**19:45, 21:15**

On:Giz elkarteak sexu berdintasunaren alde lan egiten du. Taldeko kide Mikel Otxotorena izango da *Goiena magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 4



**> Zozketa egingo dute 'Goiena magazinea'-n**
**19:45**

Bideokamera digitala, Euskaltelen deskodetzailea eta sari gehiago zotz egingo dira gaur, Amaia Txintxurretak aurkeztuta.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo->Eskuokin.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 5



**> 'Lazkao Txiki', umeen gozamenerako**
**13:15, 17:15**

Lazkao Txiki pertsonaia ezagunaren inguruko marrazki bizidunak emango ditu Goiena Telebistak gaurtik aurrera.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Born to Lose taldea eta Ruper Ordorika bakarlaria zuzenean entzuteko aukera**

Otsailaren 4an, Born to Lose (Austin, Texas, AEB) punk estiloko taldeak kontzertua egingo du 3 aretoan; eta otsailaren 6an, Ruper Ordorika oñatiarrak Amaia antzokian joko du. Oso estilo desberdinetako kontzertuak, baina biotarako sarrerak zozketatuko ditu Arrasate Irratiak.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**EUSKAL TELEBISTA** > ESTREINALDIA

# Kirolari umorezko begiratua emango dio Oscar Terolek astelehenero ETB2 katean

Gaur, hilak 1, estreinatzen du ETBk 'Uyyyyy!' saioa, kirol gaurkotasunaren 'umorezko komikia', egileen hitzetan

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Oscar Terol hari-idazle eta aktore ezaguna Euskal Telebistara itzuliko da gaur, bost urte kanpoan egon eta gero. Hura da *Uyyyyy!* izeneko saio berriaren zuzendari eta protagonista, eta gaur, astelehena, hasiko dira emititzen Euskal Telebistaren bigarren katean, 22:00etan. Baineten saio hori astelehenero emango dute, eta "kirol jardunaldiaren komikia" izan nahi du, arduradunen esanetan. Gaueko hamaikak arte iraungo du.

**ASTERO ELKARRIZKETA BAT**

Hiru tartetan banatuko dira edukiak: lehenengoan, mahai-inguru baten kirol albisteak jorratuko dituzte, betiere umorearen ikuspuntutik. Kirol eta musika arloetako pertsona ezagunek parte hartuko dute. Azkeneko tarteko protagonista Peio Ruiz Cabestany txirrindulari ohia izango da, eta hainbat proba gainditu beharko ditu. Publikoak ere parte hartu ahal izango du horretan.

Bestalde, astero-astero, kirolarekin nolabaiteko lotura duen "garrantzi handiko" pertsonaia bati elkarrizketa egingo diote; solasaldi horrek ere umorezko zertzeladak izango ditu.

## telealbisteak

> TELECINCO

### Belen Esteban eta Victor Janeiro 'Mira quien baila' saioan

Aurrerantzean Telecinco katean emango den *Mira quien baila* famatuen dantza lehiaketarako gertu dago *casting*-a, eta jakinarazi dituzte lehiakideen izenak: Belen Esteban famatua, Edurne abeslaria, Carmen Lomana enpresaburua eta Helen Lindes modelo eta Miss Espainia ohia dira emakumezko parte-hartzaileak; eta Victor Janeiro toreatzailea eta Estebanen koinatu ohia, Miguel Angel Rodriguez *El Sevilla* Mojinos Escozios taldeko abeslaria, Juan Garcia Mister Mundu ohia eta Miguel Angel Nadal futbolari ohia, berriz, gizonezkoak.

Iaz arte, TVEk ematen zuen *Mira quien baila*, eta Anne Igartiburuk aurkezten zuen. Aurten, baina, Telecincok dauzka saio horren eskubideak, eta Pilar Rubiok aurkeztuko du.

> SARE SOZIALAK

### 'Gran Hermano'-k ditu jarraitzaile gehien 'Facebook' sarean

*Gran Hermano* saioa da *Facebook* sare sozialaren erabiltzaileek gogokoen dutena; bai, behintzat, *Facebook*-en duen jarraitzaile edo *fan* kopurua kontuan hartuta. Sare sozial horretan badago edozer gauzaren zale egiteko tresna bat, eta telebistako saioek duten jarraipenaren beste neurgailu bat da hori. Hala, bukatu berri den *Gran Hermano*-ren 11. sasoiak 133.919 *fan* zituen *Facebook*-en joan den astean, Hego Euskal Herrian zein Espainian beste inongo saiok baino gehiago. Hurrengo datoz La Sexta katearen *Se lo que hicisteis* (90.699 *fan*) eta Antena3 katearen *El Internado* telesaila (45.769 *fan*), jarraitzaile gehien dituztenen artean. Kateek eurek ere jarraitzaileak dituzte, eta Antena3- kateak ditu gehien: 26.245 *fan*. Telecincok, ostera, 20.739 *fan* dauzka.

## zorion agurrak



OÑATI
**Gloria Tejada**
Urtarrilaren 23an, 23 urte. Zorionak, Gloria! 23 tirakada eta patxo handi-handi bat kuadrillakuon partetik!



ARETXABALETA
**Kaiet Repecho Zurbano**
Urtarrilaren 23an. Zorionak, eskiatzaile! 5 urterekin pista gorritik! Musu handi bat etxekoen partetik! Aitatxo, amatxo eta Manex, eta noski, aiton-amonan partetik ere bai!



ARETXABALETA
**Maitane Arregi**
Urtarrilaren 25ean, 30 urte. Zorionak! Zure lagunen partetik. Barkatu berandu ibiltzeagatik. Muxu handi bat!



ARETXABALETA
**Ainere Caballero**
Urtarrilaren 27an, 4 urte. Zorionak, maitia. Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguneann. Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Esther Mateos Hernandez**
Urtarrilaren 27an, urtebetetzea. Zorionak anaiaren eta gurasoen partetik.



ARETXABALETA
**Anje Arriola Serrato**
Urtarrilaren 28an, 2 urte. Zorionak, pirata! Muxu handi bat Laia, amatxo eta aitatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Arantxa Gomez**
Urtarrilaren 28an, 48 urte. Zorionak eta urte askotarako. Muxu bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Jon Ayesa Ibaibarriaga**
Urtarrilaren 30ean, 10 urte. Zorionak familia guztiaren partetik eta ondo-ondo pasatu egun berezi hori!



OÑATI
**Miren Barrena Alzelai**
Urtarrilaren 30ean, 29 urte. Zorionak, *guapisima*! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo handi bat familixian partetik.



ARETXABALETA
**Malen Gastañaga**
Urtarrilaren 30ean, 7 urte. Zorionak, *guapixima*! Ze ondo pasatu gauen eh? Arientzan bai parranda onak itxen ditxugula! Muakmuaka, mila muxu June, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin, Lander eta besteen partetik.



ARRASATE
**Ane Barrenetxea Garzia**
Urtarrilaren 30ean, 3 urte. Zorionak, *prexiosa*! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Laztan potoloak etxekoen eta bereziki Jonen partetik.



ESKORIATZA
**Markel Madinabeitia Aldai**
Urtarrilaren 31n, 4 urte. Zorionak, Markeltxo! Egun polit bat pasa dezazula eta patxo handi bat etxekuen partetik!



OÑATI
**Maren Irazabal Plazaola**
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak eta marrubizko muxu handi bat etxekoen eta bereziki Garaziren partetik.



ARRASATE
**Aitor eta Iker Lafuente Alzola**
Aitorrek otsailaren 1ean, 5 urte eta Ikerrek 12an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat bioi familia eta lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
**Florencia Gallego**
Otsailaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handia senar, seme-alaba eta iloben partetik.



ARETXABALETA
**Elisa Balza de Vallejo**
Otsailaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ilobek gaztetu egiten dutela esaten dute. Horregatik zaude zu hain guapa! Muxu zakukada zuretako June, Malen, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin eta Landerrek.



ARETXABALETA
**Mikel Roldan**
Otsailaren 2an. Zorionak, pirata! 5 urte bete dituzula! Patxo handi bat etxekoen partetik: aitatxo, amatxo eta Nora.



ARRASATE
**Izar Uribetxebarria Azpitarte**
Otsailaren 2an. Sortu eta 7 urte haziz, gozatu eta urtea pasa graziz. Zorionak, maitia! Aitatxo, amatxo eta Ametsen partetik. Muxu handi bat eta ongi pasatu!



ESKORIATZA
**Marisa Isasmendi**
Otsailaren 2an, 60 urte. Zorionak etxeko danon partetik, *guapa*! Zuri be heldu jatzu eguna! Muxu eta besarkada handi bat!



OÑATI
**Iñigo Santa Cruz**
Otsailaren 2an, 5 urte. Zorionak familiakoen partetik. Ondo pasatu.



ARRASATE
**Anartz Eraña Garcia**
Otsailaren 3an, 7 urte. Zorionak etxeko mutiko jatorrenari. Marrubi eta txokolatezko muxu handi bat Jon anaia eta etxekoen partetik.



ARAMAIO
**Lur Ezpeleta**
Otsailaren 3an. Zorionak, *prexioso*! 6 urtetan zenbat lan egin dozun! Maite zaitugu infinito eta bueIta. Mila muxu. Aitatxo, amatxo eta familiakoen partetik.



ARRASATE
**Garazi Prieto Goñi**
Otsailaren 4an, 3 urte. Zorionak familia eta lagun guztien partetik. Ondo pasatu zure egunean!



BERGARA
**Malen Garitano eta Ionan Garitano**
Malenek otsailaren 1ean, 5 urte eta Ionanek otsailaren 3an. Ondo pasatu bikote! Danon partetik, bereziki Unax eta Ametsen partetik.



ARRASATE
**Txomin Frutos Uribesalgo**
Otsailaren 4an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! 7 urte jada gure mutikuak! Ondo pasatu eta patxo pila etxekuen partetik.



ANTZUOLA
**Lierni Errasti Urteaga**
Otsailaren 4an, 8 urte. Zorionak, polittoi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bana, etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Josu Gastañaga**
Otsailaren 4an, 23 urte. Zorionak, tio Josu! Zu be zahartzen zabitz, eh? Noiz joango gara zurekin eskiatzera? Muxu potolo bat June, Malen, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin eta Landerren partetik.



BERGARA
**Irati Mujika Domenech**
Osintxuko Iratik otsailaren 4an, bi urte. Zorionak, Irati eta muxu pila bat gure sagutxu txiki politxari amatxo, aitatxo, Fito, Sintxan, Tia Sorgi, Ozaetako Gorka, Aratz eta osaben partetik.



ARRASATE
**Elene Loiti Montero**
Otsailaren 5ean, 3 urte. Zorionak, printzesa. Patxo potolo bat etxeko guztien, eta, bereziki, Imanolen partetik.



BERGARA
**Hodei Murgizu Rodriguez**
Otsailaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik, bereziki Iraia eta Unax.



BERGARA
**Andoni Gallastegi Agirre**
Otsailaren 7an, 14 urte. Urte askotarako eta musu handi bat aita eta amaren partetik.



OÑATI
**Naroa Legazpia Larrea**
Otsailaren 7an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna etxekoen eta, bereziki, Jonen partetik. Patxo handi bat.



ARETXABALETA
**Ainara Zugasti Santamaria**
Otsailaren 4an, 8 urte. Zorionak etxeko guztien partetik, bereziki Maren, Uxue eta Egoitz.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

## asteburuko albuma



**Ordenagailu bat opari.** Bergarako Domingo Irala kalean Ukabi informatika denda inauguratu zuten egubakoitzean. Bertaratutakoen artean Acer Extensa 5.235 ordenagailu eramangarria zozketatu zituzten. Josean Bernierrek irabazi zuen ordenagailua; argazkian ageri da Ukabiko zuzendari Ander Gogorzarekin eta Bergarako dendako arduradun Lorena Andresekin. Ukabik enpresen kudeaketarako aplikazioekin egiten du lan, baina etxerako zein enpresetarako eskaintzen du zerbitzua; webguneen diseinuan ere egiten du lan.



**Jardunen amodiozko gutunen epaimahai gaztea.** Ane Barragan, Jon Montiel, Maialen Odriozola eta Amaia Azpeitia Aranzadi ikastolako eta Ipintza institutuko ikasleek osatzen dute aurten, Jardun Euskara Elkarteak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketako epaimahai gaztea. Epaimahai nagusia, bestetik, otsailaren 5ean elkartuko da, egubakoitza. 62 gutun jaso dira aurtengo edizioan eta sari banaketa, ohikoa den moduan, otsailaren 14an egingo dute, maiteminduen egunean.

OROIGARRIA

## Itziar Osoro Torres

Donostian hil zen 2010eko urtarrilaren 30ean, 59 urte zituela.

*Hegoak ebaki banizkio*
*nerea izango zen*
*ez zuen alde egingo,*
*baina horrela, ez zen gehiago txoria izango*
*eta nik txoria nuen maite*



Bergarako lagunak.
Bergaran, 2010eko otsailaren 1ean.


## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**




## jaiotakoak



**Izar Pazos Dorronsoro**
Aretxabaleta > 2,700 kilo. Urtarrilaren 28an. Gurasoak: Eneritz (Aretxabaleta) eta Andoni (Aretxabaleta). Argazkian, Izar jaioberria, amarekin.



**Andoni Izuzkiza Ojuel**
Bergara > 3,610 kilo. Urtarrilaren 23an. Gurasoak: Amaia (Legazpi) eta Juan (Bergara). Argazkian, Andoni jaioberria, Josu eta amarekin.



**Hodei Uzuriaga Matilla**
Elgeta > 2,820 kilo. Urtarrilaren 26an. Gurasoak: Mari Carmen (Oñati) eta Zumaitz (Elgeta). Argazkian, Hodei jaioberria, amarekin.



**Irene Calleja Otazu**
Bergara > 3,900 kilo. Urtarrilaren 27an. Gurasoak: Mirella (Bergara) eta Asier (Elgoibar). Argazkian, Irene jaioberria, sehaskan lo.



**Bryant Martinez Peña**
Bergara > 2,900 kilo. Urtarrilaren 25ean. Gurasoak: Fiorelly eta Delson Luis. Argazkian, Bryant jaioberria, amarekin.



**Danel Okariz Rodriguez**
Arrasate > 3,300 kilo. Urtarrilaren 28an. Gurasoak: Bittor (Ermua) eta Ana (Ermua). Argazkian, Danel jaioberria, amarekin.




**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2010-02-01

**Gorka Julio 'Teketen'** > Ziber-ekintzailea

# "Herriko plaza digitalak dira sare sozialak"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**"Teknologia etena": horra *Teketen*, Julioren ziber-aliasaren eratorketa. Lehen blogetatik sareko azken ekintzetara, euskal amaraunean erreferente izan da andoaindarra. *Blogari.net* euskal blogarien komunitatearen sortzaileetako bat da. Hain zuzen, aurki aurkeztuko dute *Blogariak.net*; hau da, bloga nagusi duen sare sozial izaera duen plataforma bat.**

***Facebook, Twitter*, sare sozialak. Nola azaldu zer diren amamari?**

Esango nioke, nolabait, horiek guztiak direla plaza berriak. Zure interesa, grina, lan profesionala... komunikatu eta zure antzekoak diren horiekin komunikatzeko tokiak dira. Bildu egin zaitezke edo zerbait egiteko edo zerbaitetaz hitz egiteko. Plaza digitalak dira, ez dira leku fisikoak, baina, azken finean, bertan sortzen diren harremanak gero plano fisikora ere eramaten dira.

**Eta plaza horretan *Teketen* moduan aurkezten duzu zure burua.**

Izena bera ia tontakeria baten modura hasi zen. Garai berriek ekarri duten teknologia eten horretatik dator. Hain zuzen, bada eten bat teknologia erabiltzen dutenen eta ez dutenen artean; nabaria da. Zer esanik ez hirugarren mundua deritzoten horren eta gure artean. Eten hori da koxka eta nire ardura da teknologia hori jendartearen mesedetan nola erabili.

**iPad famatua erosiko duzu?**

Ez diot kasu handirik egin. Beste gailu berri bat atera dute, eta listo; polita, hori bai. Ni, hala ere, kritikoa naiz Apple etxearekin, ze teknologikoki oso gailu garatuak egiten baitituzte, baina euren softwarea eta ideologia inposatzen dute.

Lan esparruan, gainera, esplotazio kasuak egon dira eta software librea erabat baztertzen dute.

**Sarean askatasuna azkenetan dago?**

Trantsizioan gaude. Ni baikor naiz, ze inoiz baino aukera gehiago baitugu informazioa jaso eta komunikatzeko. Arduratzen nauena da, eta ezkor naiz, nolabaiteko informazio hori helaraziko diguten filtroak nork kudeatuko dituen pentsatzen dudanean. Edonork erabaki badezake zer kontsumitu, ondo; baina alderantzizkoa bada, ez. Proiektu txikiek oraindik ere erabakiak hartzeko ahalmena daukate, baina horrek ere gutxi iraungo du. Gauzak berriro pentsatzeko garaia da.

SOSLAIA

## Ekintzaile digitala

Teknologia eta jendartea, horiek bere ekintzen ardatz eta ekimenak sortzeko iturri-zurrrunbilo itzela da. Horixe Gorka Julioren traza azkarrak. *Blogari.net, Teketen, Zutagu.org*... horrela hamaika helbide eta guztietan jakintza partekatzeko nahia. Teknofiloa eta ezkertiarra. Hain zuzen, olatu berria ezker hegaletik hartzea da haren ardura nagusia. Arrakala teknologikoak bazterkeria berriak ekarriko dituela badaki, eta elkartasuna ezin dela eten. Hori da *Teketen*.



Gorka Julio, elkarrizketa egin bitartean. OIHANE ISASI

### ai, ene!



**Platerak lehortzen**

Krisi garai honetan dirua aurrezteko ideia denak dira ongietorriak eta hau ere bai, zergatik ez. Eguzkia edo haizea egiten duenean, ikuzgailua erabili ordez, platerak eta sukaldeko ontziak balkoian zintzilikatzea, lehortzeko.

http://www.yaves.es

### biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

## Sare sozialak

Gogor eutsi nion sare sozialak deitzen dioten horietan sartzeko. Sartu nintzen arte... Facebook eta Tuenti dira egunero begiratzen ditudan bi sareak. Facebook'ek berriak ematen ditu eta han eta hemen dabilen jende eta lagunen berri ematen. Iritziak jaso eta ideak zabaltzen ditu. Tuentik, berriz, lagunak jartzen ditu sarean, harremanetan, elkarrizketan. Lagunak esan ditut eta hortxe dago Tuenti sarearen lehiaketa pertsonala: zenbat lagun dituzu? Atzo bertan irratian entzun nuen esku bateko hatzekin kontatu ditzakegula gure benetazko lagunak. Bainan sare honen halako "voyeur" jolasetan ibiltzeak, besteen irudi eta komentarioak kuxkuxea-



tzeak soziologiaren oinarriak garatzen ditu. Ez buru eta ez hankarik gabeko inkesta klonikoak betetzen dituzte gazteek solasean, galdetuz eta erantzunez. Euskaraz hasi eta gaztelaniaz bukatzen dituzten esaldiak jartzen dituzte arbel informatikoan. Ondo eta gaizki ateratako argazkiak zintzilikatzen dituzte eta, arren, etiketatzeko eskatu. Euren interesak plazaratzen dituzte eta hau salatuz besteak goraipatzen dituzte. Solasa giza hurbilketa gertatzen da ordenagiluaren aurrean. Etxetik edota eskolatik bidaltzen dituzte elkarren arteko agurrak. Halere, hauxe nire galdera: sare sozialek eramango al gaituzte benetan gizarte honetako giza-sarea sortzen?

### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +6 | +3 |

Eguzki izpiak ikusiko dira, baina euria egingo du gaur ere. Tenperatura jaitsi egingo da zertxobait. Bihar ateri egingo du.

www.euskalmet.net

**iKER**

**SUKALDEAK:**
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

**Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak**

